

1. *Euskal Herriko udalen izendegia*  
Euskaltzaindia, 2011
2. *Leioako leku-izenak*  
Mikel Gorrotxategi - Iratxe Lasa -  
Goizalde Ugarte, 2011
3. *Aiarako toponimia nagusia*  
Patxi Galé - Mikel Gorrotxategi -  
Felix Mugurutza, 2013
4. *Euskal Herriko ibaiak*  
Euskaltzaindia, 2014
5. *Araba / Álava. Los nombres de  
nuestros pueblos*  
Patxi Salaberri Zaratiegi, 2015
6. *Sestaoko toponimia*  
Jorge Luis Tejedor, 2016
7. *Sierra de Toloño, nexo de la  
Montaña y la Rioja Alavesa*  
José Ángel Chasco Oyón, 2017
8. *Kale eta karriken izenak  
hautatzeko eta idazteko irizpideak*  
*Euskal odonimiako eskuliburua*  
Onomastika batzordea;  
Euskaltzaindia, 2019
9. *Gipuzkoako herrien izenak.  
Lekukotasunak eta etimologia*  
Patxi Salaberri Zaratiegi - Luis Mari  
Zaldua Etxabe, 2019
10. *Gipuzkoa Antzinaroan: hizkuntzak  
eta eremu linguistikoak onomastikaren  
argitan*  
Luis Mari Zaldua Etxabe, 2020

La labor de Onomástica de Euskaltzaindia tiene como finalidad el estudio de los nombres, tanto antropónimos (nombres de pila, apellidos...) como topónimos (mayores, menores, exónimos, callejeros, oicónimos...). Tras recoger, clasificar, analizar y establecer la forma normativizada de los nombres, Euskaltzaindia considera imprescindible darlos a conocer, a fin de que las formas correctas vayan implantándose en el uso habitual, al igual que ocurre en toda lengua normalizada. Ese es el objetivo de la presente colección *IZENAK*.

Le travail d'Onomastique d'Euskaltzaindia a pour but l'étude des noms, aussi bien des anthroponymes (prénoms, noms de famille...) que des toponymes (principaux, secondaires, exonymes, noms de rue, noms de maison...). Après les avoir répertoriés, classés, analysés et établis selon les normes, Euskaltzaindia considère indispensable de les faire connaître, afin de favoriser l'emploi habituel des formes correctes, comme c'est le cas de toutes les langues normalisées. Voilà l'objectif de cette collection *IZENAK*.

The main aim of Euskaltzaindia's Onomastic work is the research of basque names that are classified in proper nouns (names of persons, surnames...) and place names (main and minor toponyms, exonyms, street names, house names...). After collecting, classifying, analyzing and deciding the standardized form of those names, Euskaltzaindia considers it is a must to announce them, so that the correct forms are adopted in the every-day use as it happens with any standardized language. That is the purpose of this *IZENAK* collection.



EUSKALTZAINDIA  
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA  
ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE



Gipuzkoako Foru Aldundia



9 788412 188967



Luis Mari Zaldua Etxabe

## GIPUZKOA ANTZINAROAN: HIZKUNTZAK ETA EREMU LINGUISTIKOAK ONOMASTIKAREN ARGITAN



*Euskaltzaindiaren Onomastika lanak euskal izenen ikerketa du helburu, bai antroponimoena (ponte izenak, deiturak...) bai toponimoena (toponimia nagusia, txikia, exonimia, kale izendegiak, etxe izenak...). Izen horiek bildu, sailkatu, ikertu eta arautu ondotik, beharrezkotzat jotzen du Euskaltzaindiak izenen forma zuzenak plazaratzea, euskararen erabileran eta normalizazioan eragina izan dezaten. Hori da, hain zuzen ere, IZENAK bilduma honen xedea.*

### ONOMASTIKA BATZORDEA:

*BURUA:*

González de Viñaspre, Roberto

*IDAZKARIA:*

Mujika, Alfontso

*TEKNIKARIA:*

Gorrotxategi, Mikel: Onomastika  
zerbitzuaren arduraduna

*KIDEAK:*

Alaba, Nerea  
Bidart, Asier  
Galé, Patxi  
Martínez de Madina, Elena  
Mugurutza, Félix  
Rekalde, Paskual  
Zaldua, Luis Mari

*AHOLKULARIA:*

Alfaro, Gexan  
Goikoetxea, Imanol  
Socarros, Allande





GIPUZKOA ANTZINAROAN:  
HIZKUNTZAK ETA EREMU  
LINGUISTIKOAK  
ONOMASTIKAREN ARGITAN



Argitalpen honen fitxa katalogafikoa eskuragarri duzu Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteko katalogoan: [www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

La ficha catalográfica correspondiente a esta publicación está disponible en el catálogo de la biblioteca de la Real Academia de la Lengua Vasca: [www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

Les données bibliographiques correspondant à cette publication sont disponibles sur le site de la Bibliothèque Azkue de l'Académie de la langue basque: [www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

A catalog record for this publication is available from the Azkue Biblioteka, Royal Academy of the Basque Language: [www.euskaltzaindia.eus/azkue](http://www.euskaltzaindia.eus/azkue)

Liburu hau Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Euskaltzaindiak lankidetzan argitaratu dute.

Hizkuntza orrazketa: Euskaltzaindiaren Hizkuntza Kalitatearen Behatokia zerbitzua (HIZBEA).

© Luis Mari Zaldua Etxabe

© Euskaltzaindia / Real Academia de la Lengua Vasca / A.L.B.

Plaza Barria, 15

48005 BILBAO

Tel. 94 - 415 81 55

Fax: 94 - 415 81 44

E-mail: [info@euskaltzaindia.eus](mailto:info@euskaltzaindia.eus)

Webgunea: <http://www.euskaltzaindia.eus>

Eskubide guztiak jabedunak dira. Ez da zilegi liburuki hau osorik edo zatika kopiazea, ez sistema informatikoekin beronen edukia biltzea, ez inongo sistema elektroniko edo mekanikoz, fotokimikoz, magnetikoz, elektrooptikoz, fotokopiaz, erregistratuz edo beste bitartekoz berau transmititzea, aipamenetarako izan ezik, argitaratzailearen edo *copyright*aren jabearen alde aurreko eta idatzizko baimenik gabe.

Azaleko irudia: Andrearriagako estela. Donostiako San Telmo museoa.

Diseinua: IKEDER

Maketazioa: Composiciones RALI, S.A.

Inprimategia: GZ PRINTEK, S.A.L.

ISBN: 978-84-121889-6-7

Legezko-gordailua: BI-01896-2020

*Patxi Salaberry Zaratiegiri*



# Aurkibidea

<b>Aurkezpena.</b> Roberto González de Viñaspre ( <i>Onomastika batzordeko burua</i> ) . . .	9
<b>Gipuzkoa Antzinaroan. Atariko hitz batzuk.</b> Patxi Salaberri Zaratiegi ( <i>Euskaltzain osoa</i> ) . . . . .	11
<b>Gipuzkoa Antzinaroan: hizkuntzak eta eremu linguistikoak onomastikaren argitan</b>	
1. <b>Aitzinsolasa</b> . . . . .	15
2. <b>Sarrera</b> . . . . .	17
2.1. Gipuzkoa erromatarren garaian . . . . .	17
2.2. Gipuzkoa Historiaurrearen amaieran . . . . .	18
2.3. Diruaren lehen lekukotasunak. . . . .	20
2.4. Pirinioen sartaldean erabilitako hizkuntzak. . . . .	21
2.5. Epigrafiak . . . . .	24
3. <b>Andrearriagako estela (Oiartzun)</b> . . . . .	27
3.1.1. Epigrafearen historia eta ezaugarriak . . . . .	27
3.1.2. Segida onomastikoaren egitura eta zatien tasun nagusiak. . . . .	28
3.2. <i>-so</i> akabaila. . . . .	30
3.2.1. Pirinioez honaindiko <i>-so</i> eta <i>-tse / -sse / -se</i> . . . . .	30
3.2.2. Akitaniako <i>-xo(n)</i> , <i>-so</i> eta <i>-xe / -se</i> . . . . .	31
3.2.3. Pirinioen alde bietako lekukotasunen uztarketa . . . . .	33
3.2.4. <i>-so</i> -ren balizko adiera . . . . .	35
3.3. <i>-te</i> atzizkia . . . . .	36
3.3.1. Grafia, parekoak Akitanian eta adiera . . . . .	36
3.3.2. Iberierazko <i>-te</i> . . . . .	39
3.4. <i>Bel-</i> osagaia . . . . .	40
3.4.1. <i>Bel-</i> osagaia euskal sustraiko onomastikan . . . . .	40
3.4.2. Iberierazko <i>bel</i> elementua . . . . .	43
3.5. <i>Belteso</i> -ren zatikien ezaugarri morfologikoak . . . . .	44
3.6. <i>Belteso</i> -ren sustraia . . . . .	44



4. San Pedro ermitako estela (Zegama) . . . . .	47
5. San Valerio ermitako aldare zatia (Arrasate) . . . . .	49
5.1. Epigrafearen historia eta ezaugarriak . . . . .	49
5.2.1. Segida onomastikoaren egitura eta zatien tasun nagusiak . . . . .	50
5.2.2. <i>Dialco</i> jainko izena . . . . .	51
5.2.3. <i>-ko-</i> atzizki hispaniar-zelta jende izenetan . . . . .	53
5.2.4. <i>-ko-</i> atzizki hispaniar-zelta jainko izenetan . . . . .	54
5.3. <i>Dialco</i> -ren balizko jatorria . . . . .	55
6. Antzinaroko geografoek eta historialariek aipaturiko lekuak . . . . .	57
6.1. Azterketaren oztupoak eta iturritako erabilitako autoreak . . . . .	57
6.2.1. <i>Menosca</i> . . . . .	59
6.2.2. <i>Morogi</i> . . . . .	60
6.2.3. <i>Meelako</i> . . . . .	61
6.3. Zuhurtziaren garrantziaz . . . . .	61
7. Bizirik dirauten antzinako toponimoak Gipuzkoan . . . . .	65
7.1. Latinaren aurreko jatorri indoeuroparra duten leku izenak . . . . .	65
7.2. Latinetik heldutako toki izenak . . . . .	66
8. Hizkuntza eremuak eta arkeologia arloko informazioa . . . . .	69
8.1. Barduliarren eta baskoien arteko irudipenezko muga . . . . .	39
8.2. Hizkuntza eremuak eta arkeologia arloko informazioa . . . . .	70
8.3. Pirinioetako cromlechen mugapea Euskal Herrian . . . . .	71
8.4. Pirinioetako cromlechen mugapea eta euskararen eremua . . . . .	72
9. Ondorio zenbait . . . . .	75
9.1. Inskripzioetan lekukoturiko hizkuntzen eta eskaintzaileek zerabiltzatenen arrazoia . . . . .	75
9.2. Onomastika arloko lekukotasunen kronologia . . . . .	76
9.3. Irudipenezko eremu linguistikoak Gipuzkoan Antzinaroan . . . . .	79
Laburdurak eta siglak . . . . .	83
Erreferentziak . . . . .	85
Irudiak . . . . .	97

# Aurkezpena

Roberto González de Viñaspre  
*Onomastika batzordeko burua*

Gozamenez irakurri nuen joan den udaberri hastapenean Luis Mari Zaldia Etxabe ikertzaileak eskuetaratu zidan izkribua, orain liburu moldera ekarrita esku-begietan dugun ikerketa-lan bikaina. Bozkarioz eta esker onez ere hartu nuen argitalpen honi aurkezpen-hitz batzuk jartzeko egin zidan gonbit eskuzabala.

Onomastika batzordearen azken urteetako bileretan ez zait abagunerik eta aukerarik falta izan egilearekin onomastikako aztergaien inguruan elkarlanean jarduteko, hausnarketak partekatzeko eta, finean, uste-iritziak alderatuz, ezagutzan aitzinatzeke. Bere ekarria zinez joria izaten ari da agerkari espezializatuetan plazaratzen dituen lanetan. Agerikoa da horietako hainbatetan –agian nabariagoa azkenekoetan– liburu honen ardatz bilakatu den eta izenburua ematen dion egilearen jakin-nahia: Gipuzkoan Antzinaroan mintzo ziren hizkuntzak eta beren eremu linguistikoak.

Iaz argitara eman zuen Euskaltzaindiak *Izenak* bilduman Patxi Salaberri Zaratiegik eta Luis Mari Zaldia Etxabek paratutako *Gipuzkoako herrien izenak. Lekukotasunak eta etimologia* izeneko liburu handia. Urtebetegarrenean dator Luis Mari Zaldia Etxaberen ikerketa-jarduera nekazinaren emaitza berria, Gipuzkoan erromatar garaiko historia linguistikoan, egilearen esanean, “argi egiten laguntzeko asmoarekin”.

Onomastika kriseilu gisa harturik, Antzinaroan barrena abiatzen da egilea, Gipuzkoan behialako hizkuntza-egoera inguratzen duten ilunpeetan argi apurra jaurti nahian. Zuhurtziaren garrantziaz mintzo zaigu, jakinik toponimia, teonimia eta antroponimia lagungarriak baino ezin daitezkeela izan –ahalmen mugatukoak, beraz– iragan urruneko hizkuntzak ikertzeko. Orobat oharturik onomastikak eman dezakeen argi ahulak hein bateko distira hartzen duela historia eta arkeologiaren datu-kopuruak hain urri eta murrizak direnean.

Izan ere, zuhurtziak gidatzen du izpiritu kritikoz egindako ikerlan hau. Zimentarri sendoen bila dabil gaiaren ikerketan gailendu diren autoreen emaitzetan. Alabaina, mesfidantzaz ageri da dagoen informazio apurrarekin latinaren aurreko hizkuntza indoeuropar (zelta) bat nagusi zen hipotesia ondorioztatzeko aski duten ikertzaileen (aurre)iritzien aitzinean.

Goresmenak merezi dituen liburua ondu du egileak. Eskertzeko aurrerapausoa da informazio-gabeziaren behe-lainoak estaltzen duen gai zail honetan. Sinetsita nago egileak ikerketarako duen sen eta adoreaekin luze gabe sakontzen eta aberasten jarraituko duela Antzinaroko jakintza-eremuan. Horren esperoan gelditzen gara irrikaz. Bitartean badugu oraingo ekarpenarekin zer gozatu.

# Gipuzkoa Antzinaroan. Atariko hitz batzuk

Patxi Salaberri Zaratiegi

*Euskaltzain osoa*

Luis Mari Zaldua Etxabe ikertzaile saiatuaren lanari hitzaurre gisako honetarako hitz batzuk harilkatu beharrean ikusi dut neure burua oraingoan. Ataka gaitzean egia erran, tituluak *onomastika* hitz ezaguna badarama ere, egilea paleo-onomastikaz mintzo baita gehienbat, eta hori *terra ignota* da niretako. *Iberiera*, *zeltiberiera*, *aitzineuskara*, *aitzinzelta* eta ildo bereko beste ele batzuk espezialista guti batzuen eskura baizik ez dauden alorren etiketak dira, eta ni, argi eta garbi, ez nago horien artean.

Egileak Gipuzkoan dauden idazkun bakanak baliatzen ditu, eskuztatzen, are zukutzen, Probintziaren aspaldiko denboretako egoeraren gainean argi zerbait egin nahiz. Gidaritzat autore ospe eta itzal handikoak izan ditu gehienetan, ez baitago gaizki: Mitxelena, Gorrotxategi, Velaza, Lakarra eta beste gureen artean; Matasović, Untermann, Ferrer-Moncunill, Villar-Prósper eta abar Euskal Herritik kanpokoen sailean. Dauden idazkunak alderdi guztietatik begiratu eta aztertu ditu, goitik, behetik eta saihetsetik; geografo eta historialarien materialak ere ibili ditu, aurreiritzirik gabe baina froga xerka betiere, Gipuzkoaren behialako hizkuntza egoerari ohartu beharrez.

Zenbait lan irakurrita, batek irudipena du hedatu diren ideia onartu batzuek ez dutela, neurri batean, holako oinarri zindorik, airean dilindan daudela hein handian: Coromines hizkuntzalari bikainak Pirinioen euskalduntasuna –zehazkiago erran, Pirinioez hegoaldeko isurialdearen euskalduntasuna– ahotan hartu zuenez geroztik, irudi luke begi itxiekin onetsi beharreko dogma bihurtu dela ustekunde hori, eta gaian anitz sakondu gabe ere, frogak eskas ditugula ematen du: nik sinetsi nahi nuke, jakina, baina horretarako mahaigaineratu diren baino froga sendoagoak behar nituzke, zeren *Aran* ipar isurialdekoa eta *Obarra* Huescako alde batera utziz gero, euskaratikakotzat har daitezkeen zenbat toponimo ditugu azken probintzia horretatik sortaldera? Eta *euskaratikako* diodanean, Lafonek, Mitxelenak eta Gorrotxategik Akitanian egin zuten eta duten moduan, euskararen bitartez era batera edo bestera esplika daitezkeen onimoez ari naiz, gure hizkuntzatik abiatuaz azal daitezkeen hitzez edo erroez. Egun, lehen falta genuen hiztegi etimologiko hauta daukagu (EHHE) helmenean, zenbait lilura eta irudipen alde batera uztera lagunduko diguna.

Bestalde, Iberia indoeuroparraren eta ez-indoeuroparraren arteko muga Gipuzkoan dago Untermannen mapa ezagunaren arabera, Deban itxuraz, alemanaren 1961eko lanean zehazki holakorik erraten ez den arren, eta hemen berriz ere ikusten dugu


erabat frogatu gabe dauden zenbait gauzari sineste handia eman zaiela, onetsi egin direla. Eta, halarik ere, *-briga vs ili-, ilu- (ilti-, iltu-)* muga hori –oinarria zabala da oraingoan, alabaina, onimo gehiago hartzen dira zatiketaren nondik norakoa marrazteko– lauso ageri zaigu, Deban berean *Irunegi* dugula dakusagunean, edo Meñakan (Bizkaian) *Irunzana*, alde batera *Illun-* dutenak utzirik ere.

Egileak datuak aztertutakoan ateratzen duen ondorioa da Gipuzkoaren euskalduntasuna, edo Gipuzkoako alderdi batena, ezin dela, egin izan den moduan, «*inskripzio gutxi batzuk eta lauzpabost toponimo (gehienak ilunkarak eta kokapen ezezagunekoak)*» direla–eta zalantzan ezarri. Horretarako dugun argudiorik argiena da erromatar inperioaren garaian han–hemen barreiatuak zeuden jende izenetan iturburu duten toponimoak Gipuzkoan ez direla urriak, eta eman ditugun (ikus bedi Salaberri eta Zaldua, 2019) azalpen guztiak ontzat har ez balitez ere, uste dugu aski direla toponimo horiek egun duten itxura euskaldunen ahotan ibiliak izateari zor diotela pentsatzeko, Nafarroan bezala, demagun. Alegia, eta paradoxa irudi badu ere, latin munduko pertsona izenetan oinarritutako toki izenek garbi adierazten digute euskaldunok –gipuzkoarrak kasu honetan– hemen bizi ginela, eta gure lurrian nagusi ginela, bilakaera euskararen barnekoa izan dutelako.

Goresmenak eman beharrean naiz, beraz eta bukatzeko, egileari, egin duen ahaleginagatik eta erakutsi duen adoreaagatik.

# Gipuzkoa Antzinaroan: hizkuntzak eta eremu linguistikoak onomastikaren argitan

---





# 1. Aitzinsolasa<sup>1</sup>

Harrian grabaturiko erromatar garaiko hiru idazkun azaldu dira gaurdaino Gipuzkoan: Oiartzunen, Zegaman eta Arrasaten. Aurrenekoak onomastika akitaniarrean agertzen diren osagaien taxua duten elementuak dauzka zati batean. Bigarrenean irakur daitezkeen «onimo» guztiak, berriz, latinekoak dira. Hirugarrena euskal enborrekoa ez dirudien jainko bati eskainitako aldarea da.

Oiartzungo hilarrian egiazki zer ipintzen zuen 1968an argitu zen behin betiko, ezagutu, estela XIX. gizalditik ezagutzen bazen ere. Zegamakoa ezin da osorik irakurri. Azkenik, Arrasateko epigrafea 2010ean “ediren” zen Segóbriga-ko museoan (Cuencan), jatorri ezezaguneko gauzakien artean gordeta.

Nafarroan kausitu den multzoarekin alderatuz gero, Gipuzkoan dagoen euskal sustraiko inskripzio sortatxoa hutsaren hurrengoa da; ez, ordea, Araban, Bizkaian, Lapurdin edota Zuberoan idorotako aztarna epigrafikoekin erkatzen bada, herrialde haietan ere urri baitira, oso, latinekoak edo hizkuntza zeltetakoak ez diren harrian grabaturiko izenak.

Geografo eta historialari erromatarrek euren lanetan Gipuzkoako eremuan aipaturiko toponimoez denaz bezainbatean, esan beharra dago –Oiartzun eta Deba alde batera utziz gero–, kokapenaren aldetik ez ezen, formaren aldetik ere ilunkarak direla, ez baitago izendatu zituzketen bizilekuen aztarnarik, ez eta haien oinorderik edo ahaiderik ere, gaurko toponimian.

Idazkera iberiarrean (signario epikorikoan) adierazitako legendak dituzten txanponei bagagozkie, Probintzian agertu direnak ez dira bertan egindakoak, ondoko eta urrutiko lurraldeetan (hegoaldeko baskoien, zeltiberiarren nahiz iberiarren hirietan) jotakoak baizik.

Mitxelenak 1956an argitara emandakoaren ostean ez da plazaratu onomastikaren arloan Gipuzkoan lekukoturiko erromatar garaiko erakuskariak espresuki eta modu bateratuan aztertzen dituen lanik. Gaurko zenbait ikertzailearen iritziz, dagoen informazioa urria eta behin baino gehiagotan zalantzazkoa izan arren, ezagutzen den apurra aski da Gipuzkoako Antzinaroko hizkuntza arloko egoera zein zen jakiteko eta, kemen gehiagorekin edo gutxiagorekin, sasoi hartan latinaren aurreko hizkuntza indoeuropar (zelta) bat gailentzen zelako hipotesia proposatzeko. Autore horietariko batzuk hizkuntza paleohispaniarretan ospe ona duten adituak dira, eta euren lanak

<sup>1</sup> Nire esker ona adierazi nahi diet Jose Antonio Mujika Alustiza eta Patxi Salaberri Zaratiegi irakasleei lan honi egindako ohar eta ekarpenengatik.



zabalkunde handiko aldizkari eta liburuetan karrikatzen dituzte. Merezi du, horrenbestez, defendatzen duten teoriak egiantzik baduen berresten edo ezesten ahalegintzea.

Zuzeneko informazio gutxi dagoenean iturri zeharkakoak erabiltzea besterik ez dago, eta gauza ezaguna da azterbide horretan toponimiak duen garrantzia eta egin dezakeen ekarpena. Hain zuzen, Patxi Salaberri Zaratiegi irakasleari esker, Gipuzkoako herrien izenen lekukotasunak eta etimologiak ikertzeko egokiera izan dut azken aldian eta, jakina den bezala, haien artean ez dira falta antzinetatik datozkigunak. Lehenago (2016an), *-(is)am(a, o)* atzizki superlatibo indoeuroparra duten leku izenak azertu nituen, baita jatorri deantroponimikoa duten saroi izen batzuk ere (2018an). Garbi dago toponimia, zeharkako iturria den heinean, tresna lagungarria besterik ez dela iraganeko hizkuntzak ikertzeko, baina, ez da egia txikiagoa, erabakigarriak izan daitezkeen aurkikuntza berriak egin bitartean, ez dagoela beste baliabiderik, beste aukerarik.

Lan honen helburua da Gipuzkoako Antzinaroko hizkuntza egoeraren ezagutzan argi egiten laguntzea, bai geografiaren aldetik, bai historiaren aldetik. Horretarako, erromatarren garaiko epigrafiatik eta geografo zein historialarien liburuetatik atera daitezkeen informazioa modu bateratuan azertu, eta Erdi Aroan nahiz Aro Modernoan lekukotzen den euskal onomastikarekin erkatuko dut.

## 2. Sarrera

### 2.1. Gipuzkoa erromatarren garaian

K.a. I. mendearen amaieran Pirinioen eremu sartaldekua Erromaren mende zegoen erabat. Aro aldaketaren sasoiari hiriek berebiziko garrantzia zuten lurraldearen eta gizartearen antolakuntzan. Ponpeio Handiak *Pompaelo* (Iruña) K.a. 70eko hamarkadaren erdialdean sortu zuen, antza, eta badirudi Oiarso (Irun) ere K.a. I. gizaldikoa dela; *Veleia* (Iruña Oka), berriz, K.o. I. mendean garatu zatekeen.

Goi Inperioan, Hispaniako hiri guztietan Estatuak zuzenbide erromatarra ezartzearekin batera, Kantauriko kostaldearentzat oparotasun garaia hasi zen; aurreko kokalekuak berritu eta portu edo arrantza gunek berriak sortu ziren.

Behe Inperioan, K.o. III. gizaldiaren erdialdean, hirietan oinarrituriko Goi Inperioko ereduak krisian sartu zen eta hiriek populazioa galdu zuten. Haatik, IV. jendemendea sasoi egonkorra izan zen oro har. Landa eremuan susperraldia egon zen, baina, aldi berean, biztanleriaren zati bat hainbat zereginetarako haitzulo eta harpeak erabiltzen hasi zen.

Bide sarea menderaturiko lurraldeak lotzeko eta zaintzeko tresna garrantzitsua zen Estatu erromatarrarentzat. Gipuzkoako hegoaldeetik gertu *Ab Asturica Burdigalam* (*iter XXXIV*) galtzada igarotzen zen, eta iparraldean, berriz, kabotajeko itsasoko igarobidea zegoen, *Via Maris* delakoaren zati zena. Azkenik, *Tarraco-Oiasso* bidea Gipuzkoako ipar-ekialdean iristen zen itsasora. Ez da harritzekoa, horrenbestez, erromatarren garaiko aurkikuntza asko lurraldearen periferian egin izatea. Aurreneko gunea kostaldean da, Bizkaiko golkoan zegoen itsasoko bidetaren alboan. Beste eremu garrantzitsua Probintziaren hegoaldean dago, Astorga-Bordelekin lotzen zuen *iter XXXIV* bidetaren ondoan. Hirugarren barrutia, eta garrantzitsuena, ipar-sartaldeko ertza da.

Erromatar garaiko Gipuzkoako hiri nagusian, Oiarson (Irunen) alegia, *Tarraco*-tik (Tarragonatik), *Pompaelo*-n (Iruñean) barrena, iparralderantz zetorren bidea eta kostaldea zeharkatzen zuen *Via Maris* delakoa elkartzeko ziren. Gure Aroko I. eta II. gizaldietan hiriak etengabeko garapena izan zuen, baina hango jarduna mantsotu egin zen K.o. III. mendetik aurrera. Oiarsoaren hazkundeak lotura zuzena du Arditurriko meatzeen ustiapenarekin.

Kostaldean bazeuden beste gunek aipagarri batzuk, Getaria eta Zarautz esate baterako. K.o. I. eta II. mendeetan izan zuten goraldia. Probintziaren hegoaldean, XXXIV. bidetik gertu zegoen alderdian ere egin dira erromatarren garaiko aurkikuntzak.

Alde guztietara, Azkoitiko Iraurgiko San Martingo nekropoliak edota Aralarko *Argarbi* zein *Aiatzio* egiturek erakusten dute kultura erromatarren eragina lurralde guztira zabaldu zela (mendiko larreak barne), eta ez periferiara bakarrik.

Erromatarren garaiko Gipuzkoari buruzko argibide zehatzagoak eta sakonagoak nahi dituenak ikus bitza, besteak beste, Mitxelena (1956), Esteban (1997), Urteaga (2002), Gorrotxategi (2018) nahiz Torregararen (2018) lanak.

## 2.2. Gipuzkoa Historiaurrearen amaieran


K.a. I. gizaldian, Oiarso sortu aurretik, Gipuzkoan baziren herrixkak. Urumeako arroan Santiagomendiko bizilekua zegoen (Astigarragan); Oriakoan *Buruntza* (Andoainen), *Basagain* (Anoetan), *Intxur* (Albiztur-Tolosan) eta *Murumendi* (Beasain-Itsasondan); Urolako arroan *Belaku* (Beizaman), *Akutu* (Bidegoian-Erreziletan) eta *Munoaundi* (Azpeitia-Azkoitian). Debako arroan, azkenik, *Moru* (Elgoibarren) eta *Murugain* (Arrasate, Aretxabaleta eta Aramaio artean) zeuden.

Herrixka gotortuok ez daude guztiak garaiera berean (*Basagain* 295 m - *Murumendi* 868 m), baina denak babesteko errazak diren eta ikusgarritasun handia duten tokietan dira. Azalerak ere nabarmen aldatzen dira batetik bestera (*Murumendi*-k, *Moru*-k zein *Belaku*-k 1-2 hektarea dituzte eta *Intxur*-ek, berriz, 17).

Antzaenez, denek ez zuten eraketa eta funtzio bera. Berebat, ez dago arras garbi herrixka bakoitzaren kronologia eta eboluzio zehatza, jatorria, garapena (barneko antolamendua) eta behin betiko hustearen arrazoia (Mujika 2018: 100-101).

Gipuzkoako herrixka harresitu batean erdietsi den dataziorik zaharrena orain dela 3.000 bat urtekoa da (Buruntzakoa). *Intxur*-en ere badago K.a. 770±80-ko datazio bat, beharbada mendiaren lehen okupazioari dagokiona, baina Albiztur-Tolosako aztarnategi garrantzitsuan biztanle dentsitate handieneko tokien, etxebizitzien eta haien inguruen datazioen emaitzak berriagoak dira, K. a. 320. eta 80. urteen artekoak (Peñalver 2003: 24-25). Kasu batzuetan gure aroaren aurreko milurtekoaren lehen erdialdean erabiliak izan arren, karbono 14az eginiko datazioen arabera, badirudi Gipuzkoako herrixka gotortu gehienek okupazioa berriagoa dela. Gure aroaren aitzineko milurtekoaren bigarren erdialdean erabiliriko babeslekuez ari gara beraz, zenbait kasutan, erromatar garaia aurreko urteak arte edota erromatartzea hasi arte baliatu zirenak (Peñalver 2003: 68). Honatx aipatu herrixketan erdietsitako zenbait datazio, data kalibratuetan<sup>2</sup> (K.a.): *Buruntza* (1245±99; 233±108), *Intxur* (904±74; 59±97), *Moru* (814±133), *Santiagomendi* (639±109; 518±93), *Munoaundi* (576±135; 109±44), *Basagain* (490±198; 226±111); ikus Mujika (2018: 106-107).

<sup>2</sup> Egiako urteak, data kalibratu ondoren.



*Murumendiko herrixka gotortua (Beasain-Itsasondo)*

Herrixka gotortuotan aurrerapen teknologiko eta merkataritza harreman adierazgarrien zantzuak ediren dira. Adibidez, gure aroaren aurreko milurtekoaren lehen erdia igaro eta gero, aztarnategi batzuetan (*Basagain-en*, *Moru-n* eta *Munoaundi-n*) tornuz landutako kalitate goreneko zeramika agertu da, Zeltiberian egindakoaren ezaugarriak dituena (Peñalver 2003: 43). Hala berean, herrixka horietako batzuetan (*Intxur-en*, *Basagain-en*) burdingintza eta nekazaritza oso ongi ezagutzen zituztela erakusten duten objektuak kausitu dira, guztiak K.a. azken milurtekoaren bigarren erdikoak (*ibidem*, 60). *Basagain*-go herrixka harresituan, azkenik, **barskunes** – **bengoda** zekako zilarrezko denario bat idoro zuten, Ebro arroko jendearekin izandako hartu-emanen lekuko dena.

Besterik da kokaleku gotortuak eraiki eta baliatu zituzten jendeak zein jatorritakoak ziren jakitea, zein hizkuntza zerabilten, hau da, euskal sustraikoak ziren ala ez. Toponimia eremuez ari delarik, Agudek (1973: 40, 45-46, 67) dio atzizki batzuk eremu jakinetan azaltzeak euskaldunen aurrekoak edo garaikideak diren kokalekuen berri eman dezakeela. Hain zuzen, *-ama* duten izen esanguratsuenak (*Beizama*, *Arakama*...) Gipuzkoako bihotzean egoteak menturaz zeltak ziren herrien sarrera


adieraziko luke. Haren iritzian ezin da halabeharrezkotzat jo Aldabako (*Intxur*-ko) «kastroaren» inguruan dagoen *-ama* duen izen multzoa. Hitz bitan, Aldaban «kastro» bat egoteak Gipuzkoan kokagune zeltak bazeudela eta *-ama* haien oroigarria dela pentsatzea ahalbidetuko luke.

Agudek «kastroak» *-ama* duten toponimoekin lotu zituenetik herrixka gotortuen zerrenda nabarmen luzatu da. Alabaina, agerikoa da *-ama* duten zenbait leku izen kokagune harresituetatik nahiko gertu daudela (Beizama-*Belaku* [1,1 km]; Ezama (Errezil)-*Akutu* [2,6 km]; Ezama (Tolosa)-*Basagain* [2,6 km]...), baina historiaurreko gotorleku guztiek ez daukate *-ama* duen toponimo bat ondoan (*Munoandi*, *Moru*...), eta *-ama* duten toki izen guztien ondoan ez da idoro herrixka harresitu bat (*Untzama*, *Bedama*, *Arakama*...). Zernahi gisaz, ez dago hemen egiari uko egiterik: Gipuzkoako historiaurreko herrixka gehienak Oria eta Urola ibaien arroen artean daude (*Buruntza*, *Basagain*, *Intxur*, *Murumendi*, *Munoaundi*, *Akutu*, *Belaku*), *-ama* duten toponimo askoren gisan (*Beizama*, *Bedama*, *Ezama* [2], *Amiama*, *Bedama*, *Untzama*, *Zegama*, *Arakama*). Ikus Zaldua (2016: 206-208).

### 2.3. Diruaren lehen lekukotasunak

Anoetan ediren zena ez da Gipuzkoan azaldutako signario epikorikoan (iberiar idazkeran) izkiriatu legenda duen txanpon bakarra (Esteban 1997: 67; Torregarai 2018: 142). Gaurdaino kausitu direnen erdiak Ataunen agertu dira, Usategiko koban. Zehatz-mehatz, **barskunes** – **bengoda** txanpon-etxeko zilarrezko lau denario, **sekobirikes** zeltiberiarreko bi denario eta jatorri bereko **turiazu** / **tvriaso**-ko (zeltiberiarreko) bi denario idoro zituzten; guztiak K.a. 105-82 urteen artekoak dira. Herri berean, Lokatzako koban, **turiazu** / **tvriaso** zeka zeltiberiarreko brontzezko as bat ere aurkitu zuten. Zestoan, bestetik, **barskunes** – **bengoda** zekako brontzezko bi txanpon topatu zituzten Amaldako koban, eta Andoainen **iltirta** iberiarreko (ilergeteko) as bat. Buruenik, Leizarrateko (San Adriango) igarobidean iberiar lurraldean (Aragoin edo Katalunian) egindako brontzezko txanpona aurkitu berri dute (Tapia; Ceberio; Moraza 2019: 136-138). Ikus 1. irudia.

Gipuzkoan egindako Antzinaroko txanponik ez da ezagutzen. Guztiak kanpotik ekarritakoak dira, asko baskoien hegoaldeko esparrutik, baina badaude urrutiago jotako aleak, **sekobirikes** zeltiberiarrak (Burgos, Duero arroa) nahiz **iltirta** iberiarrak (Lleida) lekuko. Garbi adierazten dute aro aldaketaren aurreko azken bi gizaldietan Gipuzkoan diruak bazuela garrantzia eta arlo ekonomikoan (merkataritzan) nahiz militarrean bazirela gertuko eta urrutiko lurraldeekiko harremanak, hau da, egon, jendeen zein gauzen joan-etorria eta mugimendua bazegoela eta, azken buruan, Probintzia ez zela lurralde bakartua.



1. irudia: Idazkera iberiarrean adierazitako legendak dituzten txanponak Gipuzkoan

#### 2.4. Pirinioen sartaldean erabilitako hizkuntzak

Gauza gutxi dakigu latina iritsi zenean Pirinioetako sartaldean, hegoko alderdian, euskararen orduko faziesak –edo, nahiago bada, euskal enborreko hizkuntzak– zukeen egiazko hedaduraz, zer esanik ez han eta hemen zituzkeen ezaugarriez.

1960az geroztik (Lergakoaren ondoren) azaldu diren harrian grabaturiko idazkunen argitan, egiaztaturik dago Nafarroako alderdi zabalean zein Aragoiko Cinco Villas-en euskal jatorriko mintzaira erabiltzen zela, bai eta, segur aski, Soriako lur garaietan ere. Araban badira euskal ondareko inskripzioak, Miñaoko HELASSE jainko izena zein Durrumako LUTBELSCOTTIO eta LUNTBELSAR jende izenak kasurako, baina latinaren aurreko jatorri indoeuoparreko antroponimia ugariagoa da epigrafian. Bizkaian, bestalde, gaur arte ez da lekukotu euskal eiteko erromatar garaiko onimorik.

Pirinioez haraindiko Euskal Herrian erakuskari bakarra dago, Atharratzeko HERAVSCORRITSEHE jainko izena. Ez da harritzeko, Akitaniako sartaldeko eremuan (Aturriren arroan) inskripzio gutxi aurkitu delako. Haatik, gauza jakina da Akitaniako sartaldean (Garona Garaian) euskal enborreko hizkuntzaren idatzizko lekukotasun

sorta kausitu dela, Banhères de Luishon<sup>3</sup> (Bagnères-de-Luchon) eta Sent Bertran de Comenge inguruan bereziki (Saint-Bertrand-de-Comminges; denbora joanetan *Lugdunum Convenarum*). Akitaniako epigrafe gehienak ez daude zehazkiro datatuak, baina uste da I.-III. gizaldietakoak diratekeela (Gorrotxategi 1984: 51).

Oraindaino argitu ez dena da Pirinioen bi isurialdeetan mintzatzen zen hizkuntza alde oro beti batekoa zen; bestela esanda, dialektoetan zatituta zegoen edo ez, zaila baita hori jakiteko finkatu beharreko ezaugarriak epigrafian antzematea (Lerga VM.ME. *vs.* Garona Garaia OMBECCO, OMBEXONIS [gen.]), are gehiago lekukotasunak hain urriak direnean.

Iberierari bagozkio, lehenik eta behin, Andelon (Muruzabal Andionen) aurkituriko K.a. I. mendearen azken zatiko mosaiko batean izkiriatu **likine abuloñaune ekien bilbiliafs** segida dugu, Caminreal-en (Teruelen) kausituriko beste baten antz handia duena (Velaza 2019: 192-193). Bestalde, jatorriz iberiarrak diratekeen OR[DU]NETSI (dat.) eta URCHATETELLI (gen.?) izenak ditugu Muetzen eta Muruzabal Andionen, Gorrotxategiren (2015a: 12) iritzian biak ala biak euskara zaharraren fonetikara edo ahoskatze arauetara egokituak bide daudenak. Ematen du, horrenbestez, baskoien eremuan iberiera ez zela guztiz arrotza.

Andelon idorotako mosaikoak eta, menturaz, Aranguren azaldutako zatikaturiko brontzeak epigrafia iberikoaren lurraldea Nafarroaraino zabaltzen dute. Txanponetan ezarritako legendek ere gauza bera erakusten dute, alegia, aldi errepublikanoan euskal eremuan idazkera iberiarra ez zela erabat ezezaguna.

Txanponek gizarte maila garaiko zenbait pertsona idazkeraren fenomenoarekin harremanetan jarri arren, ukipen horrek dirua zeukatenak ez zituen bultzatu izkiriatzen ikastera eta jakintza hori erabiltzera. Erromatarren garaian denario iberiarrak nabarmen zabaldu ziren, txanponak idazkera ezagutarazteko modua izan ziren, baina baliatu zituzten gehienek ez zuketzen ulertzen legendan zer ipintzen zuen.

Irudi du eliteak euren izenak auzoengandik zetorkien idazkeran adierazten saiatu zirela batzuetan, beren sortzezko hizkuntzan idazteko iberiarren signarioa bereganatzeko urratsa eman gabe, ordea. Baskoien eremuan idazketa ez zen erabili eguneroko zereginetarako (Gorrotxategi 2002a: 77-78; 2018 [2011a]: 352, 372, 376).

Baskoien lurraldean lau zeka aurkitu edo identifikatu dira, **kalakofikoś** (*Calagurris*, Calahorra), **sekia** (*Segia*, Ejea de los Caballeros), **bolśkan** (*Oscá*, Huesca) eta **iaka** (*Iacca*, Jaka); laurak barrutiaren periferian daude. Gauza ezaguna da, berebat, baskoien lurraldean eta haren ondoan (Ebro eta Pirinioen arteko lurralde zabalean) edirendako txanponen artean badela multzo bat ezaugarri bereziak dituena, inskripzioen hizkuntza ezin delako aise ulertu eta sailkatu (Gorrotxategi 1987a: 438-439; 2002a: 81; 2018:

<sup>3</sup> Okzitaniako toponimoak bertako hizkuntzan idatzi ditut eta ondoan, parentesi artean, frantsesezkoak eman.

246). Diru horien legendek ez dute antzik **-sken** akabaila duten txanpon iberiarrekin, ezta ere **-kos** edo **-kom** amaiera duten zeltiberiarrekin; **arsaos**, **arsakoson**, **ba(f)škunes** **-bentia(n)**, **ba(f)škunes** - **benkota**, **olkai fun**, **ontikes**, **sesars** eta **unambaate** zekez ari naiz.

Velazari (2012: 79; 2018: 517) ez zaio ezinezkoa iruditzen izendapen horietako zenbaitzuek euskara zaharra adieraztea, iberiarrak ez diren tasunak baitituzte. Nabariena erabilitako signarioa da, batzuetan badaudelako ezohikoak diren grafemak eta beste batzuetan ezagutzen den epigrafia iberikoan bakarrak, apartekoak, diren zeinuak baliatzen direlako. Salbuespenak salbuespen, multzo berezia osatzen dute paleografiari eta ikonografiari dagokionez. Deigarriak dira, adibidez, **sesars** izenaren e zein s hizkiak, baita ere **ontikes** nahiz **unambaate** txanponetako **n**, *T* itxurako letra berezi baten bidez adierazitakoa (Beltrán; Velaza 2009, apud. Gorrotxategi 2018: 247).

Velazaren (2018: 518) aburuz, zentzuzkoena da pentsatzea legenda multzo horrek signario paleohispaniarraren erabilpen apartekoaren berri ematen duela, hau da, hein batean iberiarren ohitura epigrafikoen aldean bestelakoa den gertakari baten aurrean gaudela. Azken buruan, kultura epigrafiko iberiarrarekin lotua zegoen idazketa saio berria (eta motza) lekukotuko lukete aipatu txanponetako idazkunek, euren hizkuntzan izkiriartzen zuten iberiarrek zegitenaren ezberdina dirudiena. Ferrerrek eta Moncunillek (2019: 79) ere uste dute baskoien lurraldeko txanponetan dauden zenbait forma ezin direla argiro iberiartzat edo zeltiberiartzat sailkatu, eta horrek, auzia oraindik erabat argitu gabe egon arren, neurri batean iradokitzen duela alderdi horretan idazkera berezia bazegoela.

Euskal eremuan kausitu diren zeltiberieraren idatzizko testigantzei erreparatuz gero, alfabeto latinoan izkiriaturata daude gehienak, hots, K.a. III. gizaldian iberiarrei hartutako signarioan adierazitako ezer gutxi dago. Salbuespena **kalakofikoś** etxeak jotako txanponak dira, **-koś** atzizkiak frogatzen baitu hizkuntzaz zeltiberiarrak direla, **-sken** dutenak iberiarrak diren bezalaxe.

Lizarrerrian, Gómez Morenok (1925: 479-480) ikusi zuen bezala, badira zeltiberieraren ondareko pertsona izenen aztarnak epigrafian (DOITERUS [Marañón], DOITENA [Marañón]), baita Lusitanian dokumentaturiko antroponimoekin egoki aldera daitezkeenak, hau da, sorburua beste hizkuntza hispaniar-zelta batean duketenak (BOUTIA [Aguilar Kodes]; Unterman 1965: 72-73, 107, 189; Ramírez Sádaba 1988: 148-149). Pertsona izenek zeltiberiar ondarean dute ernamuina, baina Nafarroako ipar-sartaldeko jainko izenak euskal sailekoak dira eta, Gorrotxategiren (2018: 278) ustez, horrek aditzera emango luke geruza bat (euskal jainkoena alegia) bestea baino zaharragoa dela.

Pirinioez haraindiko lurraldeaz denaz bezainbatean, sartaldeko Akitaniako epigrafian ez da kausitu pertsona izen zeltarik ia; bai, ordea, sortaldekoan, DANNORIGIS



([gen.], Sent Líser [Saint-Lizier], Arièja [Ariège]) zein DVNOMAGIVS (Sent Líser) lekuko (Gorrotxategi 1984a: 57). Badira teonimo zelta gutxi batzuk han, (MINERVAE) BELISAMAE (dat., emak.) ezaguna kasu.

Bistan da latina iritsi zenean euskararen orduko faziesa mintzatzen zen barrutian, gutxiago edo gehiago, beste hizkuntza batzuk ezagutzen zituztela: Pirinioetatik hegoaldera iberiarra zein zeltiberiarra, eta Pirinioetatik iparraldera galiera. Irudi du ondoko mintzairen lurraldeetan gauza bertsua gertatzen zela, K.a. I. gizaldiko *Botorrita III* brontze zeltiberiarrean (*Contrebia Belaisca*), konparaziora, izen iberiarrak, zeltiberiarrak, grekoak nahiz latinekoak daudelako idazkun berean.

Gertuan zeuden hizkuntzen artean hartu-emanak egon bide ziren, hortaz. Ezagunak diren adibideak besterik ez aipatzeko, iberieraz *-beles* / *-bels* dugu eta euskal sustraiko hizkuntzan *Belex-* / *-bels-* (Akitanian) eta *-bels-* / *Belz-* (Pirinioetatik hegoaldera). Orobat, goian esan bezala, jatorri iberiarrekoak diratekeen OR[DU]NETSI eta URCHATETELLI euskal enborreko fonetikara edo ahoskatze arauetara egokituak daude, eta **kalakofikoś** legenda zeltiberiarraren oinean dagoen *Calagorri* / *Calagurris* leku izena Ebro ibarreko iberiar geruzarekin lotua dagoke. Badira, azkenik, osagai galiarrak eta akitaniarrak uztartzen dituzketen kasu gutxi batzuk, HOROLATI (Òra [Ore]) teonimoa eta MATICO (Aush [Auch]) antroponimoa adibidez (ikus Gorrotxategi 1984a: 367, 358; 2018: 246, 266).

## 2.5. Epigrafia

K.a. II. jendemendearen abiamenean, erromatartzea hastearekin batera, latina eta epigrafia iritsi ziren Pirinioen eremu sartaldekora. Idazkuntza hirien garapenarekin eta ekonomia arloko harremanen zabalkundearekin loturiko zerbaite da; izkiriatzen badakitenekin harremana dutenek haiengandik ikasten dute eta, batzuetan, euren hizkuntzako hitz (izen) batzuk idazteko erabiltzen.

Lan honen habeetako bat ez ezen, erdialdeko-sartaldeko Pirinioetako Antzinaroko hizkuntza egoera eta bertako euskal enborreko mintzaira ezagutzeko ezinbesteko erreferentzia den *Onomástica indígena de Aquitania* liburuan (48. or.), Gorrotxategik nabarmentzen du baliabide grafikoa (idazkuntza, alfabetoa), euskarria den neurrian, dokumentuaren kultura elementuaren gordailua dela, eta hizkuntza jakin baten erabilpenarekin zerikusirik ez duten kanpoko arrazoiek baldintzatua dagoela. Egia da hizkuntza baten egiturak, agian, hura idazteko alfabeto bata edo bestea aukeratzea erraztu edo oztopa dezakeela, baina, azken buruan, idazketa sistema jakin baten hautaketa eta erabilpena izaera kulturala duen gertakaria da. Idazkun motek, testuetan erabilitako formulek, inskripzioak idatzita dauden euskarriek, eta batez ere, baliaturiko alfabetoek, herri baten akulturazioa zein eratan gertatu zen ezagutzeko laguntza garrantzitsua eskaintzen dute.

Idatz dadin, hizkuntza batek omena lortu behar du besteak beste, baina guztiek ez dute iritzi hori erdiesten, euren mintzaira izkiriatzeko baliaturiko idazkera sistemarekiko hiztun erkidego batek duen jarrera historia eta kultura arloko gertakariak baldintzatua baitago.

Eibarko euskalariak (*ibidem*, 49) honakoa dio alfabetoaren eta hizkuntzaren arteko loturaz:


Por último, existen comunidades lingüísticas para las que esa fusión entre lengua y escritura tiene unas repercusiones muy negativas; es decir, existe una estrecha relación entre alfabeto y lengua, pero con la particularidad de que esa lengua no es la suya, sino la del pueblo culturalmente superior: sólo la lengua del pueblo culto, la lengua con tradición escrita, se considera capaz de fijarse por escrito, mientras que la propia no alcanza el nivel social adecuado.

Elebitasun diglosikoa zuten hiztun erkidegoetan, hortaz, bertako berezko hizkuntzak eta goi mailako eta hedadura orokorra zuenak ez zuten estatus bera, eta idazkeraren erabilpena bigarren horretara mugatua geratzen zen.

Latinezko epigrafia, erromatartze mailaren adierazlea ez ezik, tokian tokiko izenen gordailua ere bada. Inskripzioak egitea aski arrunta zen lurraldeetan erromatar hiritarrek ez zirenek ere –izen indigenak izateko aukera gehiago zuten erromesek– ohitura bereganatu zuten eta, horri eskerrak, bertako hizkuntzaren lekukotasun gehiago dago, alegia, zenbat eta gehiago erromatartu, idazketa zenbat eta gehiago erabili, hainbat eta tokiko onomastika gehiago azaltzen da. Hiriburuetako erromatar hiritarrek bakarrik izkiriitzen zekiten alderdietan ez da horrelakorik gertatzen, eta izen indigenen arrastorik ez dago ia.

Aspaldi esan zuen Mitxelenak (1969a: 34, 37) onomastika aztertzean ez dela aski dimentsio zeharkakoa (espazioa) aintzat hartzea; goitik beherako koordinatua (gizarte maila) ere kontuan hartu behar dela, maiz hori izaten delako izenen nondik norakoa ulertzeko gakoa. Oharpen hori bereziki baliotsua da erromatar garaikoen gisako mostra onomastikoak ikertzean, eliteek (hilarriak eta aldareak ordaintzeko edota jabetza handi samarrak edukitzeko adina sos zutenek), eta ez herritar arruntek, darabilten antroponimiaz, teonimiaz eta toponimiaz ari baikara.

Mintzaierek zuten prestigioa adierazteaz gainera, inskripzioek, idatzi zituzten jendeek zerabiltzaten hizkuntzen hedaduraren berri ematen dute hein batean. Gipuzkoan epigrafia arloko lekukotzak ez dira modu homogeenan edo bateratuan lurraldearen muinean azaltzen, ez bada Probintziaren periferian eta barreiatuta, betiere eragin erromatarraren indarguneetan, edo haietatik gertu. Ikus 2. irudia.



2. irudia: Erromatarren garaiko inskripzioak Gipuzkoan

### 3. Andrearriagako estela (Oiartzun)

#### 3.1.1. Epigrafearen historia eta ezaugarriak


Oiartzungo Andrearriagako estelaren aurreneko lekukotasuna 1470. urtekoa da. Agirian, Oiartzun-Irun bidearen ondoan (bi herrien arteko mugatik gertu) zegoela eta hilarria zatekeela zehazten da: «puesta por algund defunto» (ikus Ayerbe; Irijoa; Lema; San Miguel 2013: 46). Bi gizaldi geroago Isastik (1850 [1625-1626]: 217) aipatzen du bere historia liburuan. Lezoko elizgizonak dio, izena eta tradizioa ikusita, emakume bat harrizko bihurtu zatekeela han amaren madarikazioarengatik. Iztuetak (1847: 50), berriz, honako pasarteia idazten du XIX. mendean:

Andrerreguia esaten zaion Elizachoaren aldamenen dago arri bat emacume baten idurinecoa ancinaeraco letraz betea; eta gendea oidago sinistpen osoan, ecic, toqui berperean izan zala lurperatua Julio Cesar-en emaztea. Andrerreguiac esan nai du Euscaraz, Andre-Erreguiña, eta icen onec adierazten du garbiroqui, ezen, Erreguiñaren baten autsac estalitaco arria dala au.

Honenbestez, 1932an Oiartzundik Donostiako San Telmo museora eraman zuten estelaren jatorrizko kokapena ezaguna da, eta horrek aparteko balioa ematen dio. Hilarria aurkitzen zen tokitik gertu behinola *Andrearriaga* ermita zegoen (16. gizaldirako aipatzen da). Toponimoaz kestione, diodan Zestoan badela *Zezenarriaga* sarioia eta Oiartzunen bertan *Aldarearri* aurkintza.

Idazkuna hareharrizko lauza laukizuzen batean grabatua dago (118 cm x 48 cm x 25 cm). Bi lerrotan banatzen da eta letra baldarrarekin eginda dago. Inskripzioaren gainean eta eskuin aldean apaingarriak daude, zaldun baten eta zutik dagoen pertsona baten irudiak zehazkiro. Caro Barojari (1943: 93) zaldiaren irudia aldrebeskeria hutsa iruditzen zaio eta Asturiasko hilarri batzuetan azaltzen direnekin alderatzen du. Erromanizazio maila apala adieraziko luke Berakoaren iritzirako eta, seguruenera hilarria bada ere, ez zaio ezinezkoa iruditzen aldarea izatea.

San Telmo museoaren katalogoan, Ignacio Barandiarani (1968: 209) jarraikiz, K.a. II.-I. gizaldietakoa dela adierazten da. Alabaina, ñabarduretan sartuz gero, historialari donostiarrak zehazten du data K.o. I. mende arte luza daitekeela. Estebanek (1997: 67) K.a. I. gizaldiaren amaierakotzat jotzen du, giro erromatarra nagusitu aurrekotzat alegia. Iritzi berekoa da Urteaga (2002: 12-13), erromanizazioaren lehen eraginaren sasoikoa dela baitio honek ere. Ciprés-ek (2006: 89-91), aitzitik, osagaien etorkia eta haien hurrenkera aintzat hartuz, K.o. I. jendemendekoa dela deritzo.



*Andrearriagako estela (Oiartzun)*

Aranzadik (1914: 44-45) VLBELTESONIS ikusi zuen, Gómez Morenok (1925: 483) bezala. Caro Barojak (1943: 119), ordea, «*Ubeltesonis*» interpretatu zuen eta Garona Garaiko «*Aherbelste*» nahiz Arabako (Angostinako) «*Baelisto*» jaingo izenekin lotua zegokeela iradoki. Gómez Morenoren oinatzetan, Mitxelenak (1956: 82) ere VLBELTESONIS ipintzen zuela zeritzon. Ignacio Barandiaran (1968: 204) izan zen, azkenik, egun komunitate zientifikoak ontzat ematen duen VAL BELTESONIS irakurri zuena.

### 3.1.2. Segida onomastikoaren egitura eta zatien tasun nagusiak

Andrearriagako estelan irakur daitekeen segida onomastikoak bi osagai ditu, idionimoa (izen bakarra edo berekia) eta patronimoa (filiazioa adierazten duen zatia). Aurrenekoa latinetik heldutakoa da, baina, bigarrena, genitiboko *-n-is* hondarkia duena, euskal enborrekotzat jotzen da.

Osaketa hori ez da arrunta. Hain zuzen, egitura nahasia duten izendapenok aditzera emango lukete idatzi zituzten pertsonak erromesak zirela (ez erromatar hiritarrak), bertako izenak utzi gabe, haiek erabat ordezkatu gabe, onomastika latindarra hauteman zutenak (Gorrotxategi; Ramírez Sádaba 2013: 140-141; Ciprés 2006: 111). Hirugarrenetik deklinatua dago, hau da, akabailako *-o* nominatiboaren adierazletzat hartu zuten eta sudurkaria itsatsi zioten latinez deklinatzean (*-o-n-is*).

Ikertzaile gehienek uste dute VAL laburduraren atzean *Valerius* maskulinoa dagoela. Nafarroako epigrafian sarri azaltzen den *nomen*-a da hori (ikus 4.1.§), eta Zuberoan (Atharratze-Sorholúzen) ere bada erakuskari bat, HERAUSCORRITSEHE jainkoari eskaintza egiten dion G. VALERIUS VALERIANUS. Orobat, Arrasateko aldarean VALERIUS dugu. Velazak (1995: 213; *cf.* Beltrán; Velaza 2013: 62), horratik, uste du Oiartzungo inskripzioan *Valeria* femeninoa dagokeela, eta ez *Valerius*.

*Belteso*- patronimoak ez du etimologia argirik oraingoz. Gómez Morenok (1925: 483) —Andiongo URCHATETELLI-rekin batera— iberiar taxuko pertsona izenen artean sailkatu zuen balizko \*VLBELTESONIS. Mitxeleneri (1956: 82), ordea, *-son*-elementuak akitanierako *-xo(n)-* (*-xso(n)*) atzizkia dakarkio burura, baina aitortzen du ez duela parekorik ezagutzen aurreneko zatiarentzat (*Belte*-rentzat).

Gorrotxategiren (1984a: 158, 162; 1987a: 441; 1995a: 52 eta 1995b: 217-218; 2015a: 12) iritzian, *Belteso* antroponimoa Akitaniako izenetan erabilitakoekin aldera daitezkeen osagaietan zatika daiteke (*Bel-te-so*) eta haien ezaugarri fonetikoek izen iberiarretatik aldentuko lukete. Zehazkiro, Eibarko irakasleak AHERBELSTE (Garona Garaia) eta BAESERTE (Gordan e Polinhan [Gourdan-Polignan]) teonimoekin nahiz TORSTEGINNO (dat., Aush) antroponimoarekin erka dadin eskatzen du. Bere irudiko, Akitanierako *Belex*-en zein iberierako *beleś*-en dugun *bel-* erroa ('beltza') dago Oiartzungo patronimoan, aurreko bi forma horietan ez bezala, afrikariaren luzapena gabe azaltzen bada ere, alegia, iberierazko AENIBELIS (dat., Valentzia), ANTVBELI (gen., Cáceres) nahiz euskarazko *harbel*, *ospel*-en ageri den modu berean. Bigarren tokian *-te* atzizkia dakusa, ez *-ten(n)-*, eta horren harira dio iberieraz badaudela *-te-* (Akitaniako bera) bakartzea ahalbidetzen duten segidak, *bors-te* kasu (*cf.* Sent Beath-eko [Saint-Béat] BORSVS). Buruenik, *-sonis* akabera akitanierako *-x(s)o-n-is*-ekin alderatzen du.

Duela gutxiko argitalpen batean (2018: 257-258) —silaba bakarreko zenbait hitz-oinetan atzizki afrikatu baten bidez buruturiko luzapenez ari delarik— nabarmentzen du akitanierako *Belex*, *-bels* formek eta Andrearriagako harrian agertzen den *Bel*-ek euskarazko *-bel* / *beltz* bikotean ikusten den txandaketa formal bera erakutsiko luketela. Lan berean (270. or.) esaten du, Lergako VM.ME.SA.HAR alde batera utziz gero, baskoien lurraldean agerturiko akitaniar kutsuko izenen artean (Andrearriagakoa barne) ez dagoela euskal ordain gardenik duen izenik edo hitz-oinik, dauzkaten osagai edo atzizkiak eta haien ezaugarri fonetikoak akitanieraren corpuseko izenetan irakurtzen direnen parekoak badira ere (*-bel*, *-bels-*, *-so...*). Beltránentzat eta Velazarentzat (2013: 62) ere Oiartzungo patronimoa baskoi multzokoa da.

BELTESONIS, antzinateko beste asko bezala, oinarri bati atzizki bat (edo gehiago) erantsiz eraturiko izendapena da ([*Bel-* + *-te*] + *-so* + [*n* + *-is*]), baina ez du etimologia garbirik oraingoz. Hura argitzeko urratsak ematen saiatu aurretik komeni da zenbait gauzari begiratzea, esate baterako, osagaiak eta haien ezaugarri fonetikoak zein jatorkitakoak diren, hau da, euskal enborrekoak, iberieraren sailekoak edota bietarikoak.

### 3.2. -so akabaila

#### 3.2.1. Pirinioez honaindiko -so eta -tse / -sse / -se

-So- grafiaren atzean zer dagoen, alegia, nolako txistukaria dugun (igurzkaria edo afrikatua, lepokaria edo apikaria) ez dago arras garbi, ez eta adieraren aldetik aitzineko zatiari atzizkiak zer dakarkion ere.

Pirinioen hegoaldeko epigrafian irakur daitezkeen izenen akabailei begiratuz gero, Izkueko ABISUNSONIS (gen.) patronimoarekin aldera daiteke Andrearriagakoa, Nafarroakoan -so- sudurkari gibelean azaldu arren, eta ez bokal ostean. Etsenplu bakarra egoteak ez du asko laguntzen, damurik, txistukariaren artikulazio modua eta puntua zeintzuk ziren jakiteko dauden oztopoak ezabatzen. Nabarmenezkoa da sudurkari ostean *s* grafema egotea, menturaz, lekune horretan igurzkariaren aldeko neutralizazioa burutzen zelako seinale dela. Kontuan izan Nafarroako eta Arabako Antzinaroko jainko izenen sailean baditugula *ts* eta *ss* grafiak (SELAITSE [Barbarin], SELATSE (2) [Barbarin], HELASSE...), segur aski, txistukari afrikatuak adierazten dituzketenak, horiekin batera, LOSAE (Zirauki, Iruxo, Lerate) eta LOXAE (Argiñaritz) teonimoak badiren arren, soinu afrikatua duketenak hauek ere, baldin eta, esan izan den moduan (*cf.* Mitxelena 1962: 198, 200), euskarazko *lotsa*-rekin lotuak badaude. Azken-aurreko adibidean txistukariaren artikulazio modua, egiazki, uste dena balitz, *s*-rekin adierazita egon arren, ez litzateke erabat ezinezkoa Andrearriagako inskripzioan ere txistukari afrikatua egotea.

Hegoaldeko epigrafeetan dagoenari begiratuta ezer gutxi esan daiteke *Belteso*-ren *s* grafemak irudikatutako txistukariaren artikulazio puntuari dagokionez. Batetik, gauza ezaguna da erromatarren garaiko epigrafian lepokariak *s* hizkiarekin izkiriatuak egoten direla arruntean, Lergako idazkuna lekuko (*cf.* Valentinako [Valentine] CISON) eta, ondorioz, ez da jakite ziurra Oiartzungo estelan txistukari hobikaria dugula. Ildo beretik, irudi du Durruma Donemiliagako LUTBELSCOTTIO eta LUNTBELSAR-en *s* hizkia lepokaria idazteko baliatu datekeela. Orobat, Pliniok *Olarso*, *Olarsonis* idazten duenez gero (Oiarso, Oiarsonis), ematen du Antzinaroko historialariek eta geografoek ere *s* zerabiltela euskal saileko lepokariak idazteko.

Hegoalderago, Soriako idazkun multzoa dugu. Alderdi hartako antroponimoetan Nafarroan eta Araban kausituriko jende eta jainko izenetan ikusten diren zenbait ezaugarri errepikatzen dira. Esate baterako, OANDISSEN (Valloria) emakume izenaren argitan, ematen du zenbait aldiz han ere soinu afrikatuak *ss* geminatuaren bidez adierazita daudela. Ebro ibaiaren iparraldean legez, Sorian *s* dugu sudurkari ondoren, ONSO (giz., El Collado) eta ONSE (emak., Santa María de Yanguas) kasu, igurzkariaren aldeko neutralizazioaren berri emango lukeen grafia, alegia. Nabarmenezkoa da Villartosoko BELZCON[...], *z* grafemak txistukari lepokaria adieraz baitezake (J. Gorrotxategiren ahozko adierazpena).

Araba, Nafarroa eta Soriako idazkuntetan ez dago *xs* grafiaren arrastorik. Badirudi afrikatuak idazteko *ts*, *ss* eta, agian, *s* nahiz *x* grafemak baliatu direla eta –hiru lurraldeetako lekukotzak elkartuz– ematen du *-tse* / *-sse* / *-se* atzizkiak, izatez, soinu afrikatua zuela. Sudurkari ondoko *-se* (eta *-so*) ikusirik, pentsa daiteke, albokari segidan bezala (LUNTBELSAR), sudurkari ondoren ere igurzkariaren aldeko neutralizazioa burutzen zela.

### 3.2.2. Akitaniako *-xo(n)*, *-so* eta *-xe* / *-se*

Frantzia aldeko Pirinioetako hizkuntzei buruz idatzitako liburuan, Luchairek (1879: 73–74) diosku akabailan *-xo*, *-so* (*-son*) daukaten izen askok jatorri zelta dutela edo duketela, SEMBEXONIS (gen., Sent Gironç [Saint-Girons]), CALIXONIS (gen., Cièrp e Gaud [Cierp–Gaud]), GEREXO (Sent Blancat [Saint-Plancard]) / GEREXSO (Bordèras de Loron [Bordères–Louron]), OMBEXONIS (gen., Cièr d’Arribèra [Cierde–Rivière]) antroponimoak nahiz HAROVSONI (dat.?, Lo Bocau [Boucou]) teonimoak lekuko, baina, berebat, ohartarazten du euskaraz badela *-so* atzizkia, seguruenik balio indartzailea eta handigarria duena (*aita-so*, ‘grand-père’; *ama-so*, ‘grand-mère’).

Mitxelena «De onomástica aquitana» maisulanean (416–418, 420–422 eta 448. or.) *-xo(n)*, *-xso(n)* atzizkiaz mintzo da, eta ANDEREXO (emak.?, Escugnau), ANDEREXSO (emak., Caubós [Caubous]), BONXSONI (dat.?, Benque, [Benque–Dessous–et–Dessus]), ERHEXONI (dat. emak., Barsous) eta SENIXSONIS (gen., Lo Bocau) antroponimoak zein ARIXO (Loudenvielle), BAIGORIXO (Uòs [Huos]), ILIXONI (Banhèras de Luishon), ILVRBERRIXO (Escugnau) / ILVRBERRIXON[ (Tibiran e Jaunac [Tibiran–Jaunac]) teonimoak ipintzen ditu etsenplutako. Bokal artean *x* eta *xs* grafiek soinu bera adierazten dutela diosku, bai eta sudurkari ondoan batzuetan *x* eta *s* txandakatzen direla ere, baina HAVTENSONI antroponimoaren (dat., emak., Vathcrabèra [Valcabrère]) kasuan bederik, ez du jakite ziurtzat jotzen *-so(n)* forma *-xo(n)*-en (sudurkari ondoko) aldaera dela. Hala berean, *-se(n)* atzizkiaz hitz egiten du (HAVTENSE, emak., Bordèras de Loron) eta URIAXE (emak.) jende izenaren akabaila haren aldaera datekeela iradokitzen (emak., Ardièja [Ardiège]). Errenteriakoak *x*-ek eta *xs*-ek euskarazko *tz*, *ts* edo *tx*-ren pareko soinu afrikatuak irudikatzen dituztelako hipotesia ez du txarresten, ez eta *s* / *xs* grafia aldizkatzeak igurzkari / afrikatu aurkakotasunaren berri eman dezakeelako ideia ere. Ildo berean, iruditzen zaio, *x(s)* nahiz *s*-rekin aldizkatzen denez gero, *ss*-k soinu afrikatuak nahiz igurzkariak adieraz ditzakeela.

Gorrotxategik (1984a: 368–369) *-xsus*, *-xsi* eta *-xso(n)*- bukaerei sarrera bana eskaintzen die, baina, BONXSVS (Sent Bertran de Comenge) / BONXSONI (dat.) bikotea ikusirik, uste du atzizki bakarraren aurrean gaudekeela, txistukari afrikatua dukeena eta latinera nagusiki bi eratan egokitu datekeena, hots, bigarren deklinabidetik (*-xsus*, *-xsi*) eta hirugarrenetik (*-xso*, *-xsonis*), nahiz eta kasu batzuetan hirugarrenerako *-x*, *-xsis* dokumentaturik egon. Beste lan batean ere (2018: 260) bi modutara moldatu



datekeen *-xso-* atzizkiaz mintzo da, nahiz eta, bestalde, ez duen guztiz baztertzen *-xs-* atzizkiaren luzapena izatea.

1984ko lanean Oiartzungo patronimoari eskainitako sarreran, *-sonis* akitanierako *-x(s)o*, *-x(s)onis*-ekin (txistukari afrikatua dukeen atzizkiarekin) aldera dadin eskatu ostean, Gorrotxategik (162. or.) dio *-soni* grafia bokal ondoren HARAVSONI (Lo Bocau), HAROVSONI eta LARRASONI (Moux) jainko izenetan bakarrik azaltzen dela, baldin eta *-x(s)onis* atzizkiaren formatzat interpretatu behar bada. Segidan, LOHIXSI (gen., Lieoux) / LOHISI (gen., Sent Bertran de Comenge) antroponimo bikotea dakar *x(s)* eta *s* grafien arteko balizko txandakatzearen erakusgarritako. Liburu berean (369. or.), *-x(s)o(n)*-en *-so(n)-* aldaeraz mintzo da aurrerago. Gaurko lanetan (2018: 260, 264) iritzi berari eusten dio, eta *-xso(n)-* atzizkiaren *-so(n)-* aldaeraz hitz egiten du, pertsona nahiz jainko izenetan ageri denaz.

Mitxelenaren (1954: 454) aburuz, hitz amaierako lekuneko, kontsonante aurreko zein elkartuen bigarren osagaien hasierako zenbait grafia iradokitzen dute akitanieraz aurrerago euskaraz ikusten den banaketa bera dukegula, hau da, kontsonanteen arteko oposizioek erabateko balioa morfema barneko bokal artean baizik ez zutela, eta hitz amaieran, morfema hasieran (eta hitz hasmentan?) zein kontsonante aurrean eta atzean, aurkakotasunak neutralizatu egiten zirela, edo neutralizatzeko joera zegoela (ikus FHV, 287-289, 376-377).

Gorrotxategirentzat (1984a: 376-377) Akitaniako epigrafiako *xs*-ek txistukari afrikatua adieraz dezake, hipotesi horrek aski esanguratsuak diren grafia txandaketak baititu alde; gainera, Penintsulan *ts* dugu (SELATSE, OR[DU]NETSI) Garona aldean *xs* espero genukeen lekuneetan. Bokal artean *-s*-ren eta *-xs*-en arteko oposizioa dakusa morfema barruan (SOSONNIS [antrop., gen., Cièrp e Gaud] / OXSON), baina hitz-oinaren bukaeran, hitz akaberan nahiz latinezko hondarkien aurrean *xs* grafia besterik ez dago ia (BELEX, antrop., Cardelhac [Cardeilhac], BERHAXSIS, antrop., gen.; Barcugnas); Mitxelenari bezala, horrek pentsarazten dio txistukarien sailean ere ozenen artean sumatzen denaren antzeko banaketa zegoela, hau da, *s* idazten zela hitz hasieran (biguna), barruan *s* / *xs* aurkakotasuna zegoela eta *xs* izkiriatzen zela hitz-oin bukaeran (bortitza).

Zernahi gisaz, *-xo(n)*, *-xso(n)* bikotearen argitan, *x* eta *xs*-ek soinu bera adieraz dezaketela onartzen bada, ikusirik *-BAICORISO* (Belestar [Balesta]), *BAICOR(r)IXO*, (Montmajou) eta *BAIGORIXO* teonimoek erakutsi bezala– badela *s* eta *x*-ren arteko txandakatzea bokal artean, *s*, *x* nahiz *xs* grafia zenbait aldiz fonema bera irudikatzen erabili diratekeela onestea besterik ez dago. Hau dateke pentsatzeko erarik logikoena, baina beti kontu egin daiteke hor *Baikor(r)iso* eta *Baikor(r)ixo* zeudela, batean bata eta bestean bestea.

### 3.2.3. Pirinioen alde bietako lekukotasunen uztarketa

Artikulazio moduari bagagozkio, Arabako eta Nafarroako epigrafian *s*, *x*, *ss* eta *ts* grafemak ditugu bokal artean. Jorienak aurrenekoa eta azkenekoa direnez gero, pentsatzekoa da *s* (igurzkaria) / *ss*, *ts* (afrikatua) oposizioa egon daitekeela, hau da, Lergako NAR.HVN.GE.SI (dat.?, gen.?) nahiz A.BI.SVN.HA.RI. (dat. / gen.?) eta HELASSE, SELATSE, SELAITSE zein OR[DU]NETSI izenetan dauden txistukariek ez zutela artikulazio modu bera. Alde guztietara, *s* hizkiak aldi oro soinu igurzkaria adierazten duela ez da jakite ziurra, LOSAE (3) / LOXAE bikotea baitugu, euskarazko *lotsa*-rekin lotu izan dena. Horrenbestez, badirudi *-sse* nahiz *-tse* atzizki beraren adierazpenak direla eta *ss* zein *ts* grafemek afrikatua adierazten dutela. Sudurkari ondoren *s* dugu beti, menturaz antzinatean igurzkarien aldeko neutralizazioa burutzen zelako seinale. Nolanahi ere, ikusirik azken mendeetan *ss*-k maiz egungo *x* sabaiaurreko igurzkaria adierazten duela, eta beste batzuetan gaurko *ts* afrikatua, ez da erabat ezinezkoa mende batzuk lehenago ere gauzak hola izatea.

Soriako idazkuntetan, bestetik, *s* eta *ss* grafiak ditugu bokal artean; ozen ondoren, berriz, *s* eta *z* irakur daitezke. Hortaz, Euskal Herrian ez bezala, ez dago *x* eta *ts* grafemen arrastorik. Badira, halere, bi tradizioen arteko antzekotasunak, bi lurraldeetan lekukotzen den *-sse(n)* atzizkia edota *ns* zein *l̥* / *ls* kontsonante multzoak adibidez. Horregatik guztiagatik, pentsa daiteke Pirinioetako hegoaldean *-se* / *-sse* / *-tse* atzizkiaren txistukaria afrikatua zatekeela, baina ez da nahitaz hola dela oldoztu behar.

Akitaniako onomastikan badaude *x* / *xs*, *ss* / *x* nahiz *s* / *xs* aldizkatzeak bokal artean, eta *x* grafia *xs* baino ugariagoa da. Bestetik, ez dira falta bokal arteko *s*-ren adibideak (HARAVSONI, HAROVSONI). Ondorioz, badirudi aipatu lekunean igurzkariak *s*-rekin (zein *ss*-rekin) eta afrikatuak *x*, *xs*, *s* nahiz *ss* grafemekin izkiriartzen zirela. Ez dago *ts*-ren aztarnarik, horratik.

Kontsonante ostean gauzak are nabarragoak dira, MONSVS (Loras de Varossa [Loures-Barousse]), BONXVS (Sent Bertran de Comenge), BONXI (gen. Lorda [Lourdes]), BONXSUS, BONXSONI jende izen sorta ikusirik, grafia hori arrunta izan ez arren, irudi duelako sudurkari ondoko *s*-ak, batzuetan, afrikatua adieraz dezakeela. Ildo beretik, *l* eta *r* urkarien ostean *s* grafema dugu ([H]ARBELISIS [antrop., gen. Cièrp e Gaud], HARSORI [antrop., Bordèras de Loron]).

Bestalde, euskarazko *beltz*-ekin lotu izan diren BELEX, BELEXEIA (emak., Aush), BELEXENNIS (gen. Montcirèr [Montsérié]) nahiz BONBELEX (Caubós) eta HARBELEX (Gordan e Polinhan, Lieoux, Casarilh [Cazaril]) antroponimoak ikusita, pentsa daiteke batzuetan *x* grafema afrikatu lepokaria emateko baliatu dela. Itxura batean, badira soinu hori idazteko *xs* erabili den etsenpluak ere (HARBELEXSIS, gen., Caubós, Benque). Zernahi gisaz, *beltz*-en egun *-tz* afrikatua egoteak ez du esan nahi Antzinaroan ere horrela zenik, hau da, ez da jakite ziurra *Belex* nahiz *Belexeia*-n afrikatua zegoela

(*Belex beletz* esaten zela), izan, *beltz*-en afrikatzea berandukoa izan litekeelako, Erdi Arokoa edo Aro Modernokoa alegia.

Itxura batean, beraz, (puntu batzuetan) bi tradizio daude euskal enborreko aztarnak lekukotu diren lurraldean. Egia da Akitanian eta Hego Euskal Herrian badirela *s*, *ss* eta *x* grafien lekukotasunak, eta Soriako idazkUNETAN ere aurreneko biak irakur daitezkeela, baina ez dago *ts* nahiz *lz* Pirinioez haraindi, ezta *xs* mendilerroaz honaindi ere. Nabarmentzekoa da bi alderdian ozen ondoren *s* hizkia agertzea. Ikus 1. eta 2. taulak.

Bokal artean			
Igurzkaria		Afrikatua	
Akitania	<i>s</i> , <i>ss</i> ?	Akitania	<i>xs</i> , <i>ss</i> , <i>x</i> , <i>s</i> ?
	- <i>so</i> -?		- <i>xso</i> -, - <i>xo</i> -
Pirinioen hegoaldea	<i>s</i>	Pirinioen hegoaldea	<i>ts</i> , <i>ss</i> , <i>x</i> ?, <i>s</i> ?
	- <i>so</i> -?		- <i>tse</i> -, - <i>sse</i> -

1. taula: Txistukarien grafia bokal artean euskal enborreko epigrafian

Kontsonante ozenaren ondoren			
Sudurkariaren ondoren		Urkariaren ondoren	
Igurzkaria	Afrikatua?	Igurzkaria	
Akitania	<i>s</i>	<i>xs</i> , <i>x</i> , <i>s</i>	Akitania
	- <i>so</i> -	- <i>xso</i> -	
	- <i>se</i>	- <i>xe</i>	
Pirinioen hegoaldea	<i>s</i>		Pirinioen hegoaldea
	- <i>so</i> -		
	- <i>se</i>		

2. taula: Txistukarien grafia kontsonante ozenen ondoren euskal enborreko epigrafian

Daitekeena da *Belteso*-ren bukaeran txistukari afrikatua egotea eta egiazko ebakera *-/tso/* (edo *-/tzo/*) izatea, baina ez dago ustekizun horren alde egiteko erabateko arrazoirik. Grafien aldizkatzei erreparatuta ondoriozta daitekeenaz landara, *-xo* / *-xso* / *-so* eta *-xe* / *-se* / *-tse* / *-sse* atzizki sailen arteko balizko lotura dago (ikus 3. §). Hain zuzen, ONSO / ONSE bikoteak eta BAICORISO / BAIGORIXO / BVAIGORIXE (Valentina) hirukoteak iradoki moduan, irudi du bi multzoak osagarriak direla (bata maskulinoa eta bestea femeninoa), eta, Pirinioen hegoaldean bederik, bigarren sortak

txistukari afrikatua zuela. Oroit bedi, baita ere, *-xo*, *-xso* euskarazko *-txo* txikigarriarekin lotu izan dela.

Beste hipotesia izan daiteke pentsatzea Antzinaroan bi atzizki zeudela, *-txo* eman duen *\*-/tso/* (edo *\*-/tzo/*) eta *-so*, zenbait aldiz modu berean izkiriatzen zirenak. Ondorioz, ez litzateke guztiz baztertu behar *Belteso* patronimoan euskara historikoan familia harremana adierazten duten emakumezko nahiz gizonezko izenetan ikusten den *-so* (urruntzailea, handitzailea) dagoelako aukera (ikus 3.2.1.§), are gehiago aintzat hartuz gero Oiartzungoa aitaren eta semearen / alabaren arteko loturaren berri ematen duen izena dela.

### 3.2.4. *-so*-ren balizko adiera

Corpusa txiki samarra izan arren, Soriako lurralde garaietako antzinaerako izen multzoak Akitaniako onomastikaren zenbait ezaugarri ditu, *-so* eta *-se* atzizkiak azaltzea eta sexuaren araberako haien arteko banaketa esaterako (*gfr.* BAICORISO / BAIGORIXO / BVAIGORIXE). Sorian, ikusi dugunez, ONSE-z gainera, OANDISSEN dugu, akabailaren aldetik hori ere Barbaringo SELATSE/SELAITSE-ren sailekoa dirudiena.

Akitaniako *-xso(n)*- atzizkia gizonezko nahiz emakumezko izenen osagaia da, baita jainko izenena ere, baina Gorrotxategik (1984a: 201, 369; 2009: 544) biltzen duenez, sexu bietako izenak eratoritzeko erabilia izanagatik, askoz ere narroagoa da gizonezkoenetan. *-Se(n)*-, ordea, *-ozen* ondoko aldaeratzat har daitekeen *-xe* barne-emakume izenenetan baizik ez da ageri. Antzinateko euskaraz 2018an argitara emandako lanean ere (260. or.) sudurkari atzean *-xe* aldaera duen *-se(n)*- atzizki femeninoaz mintzo da Eibarko irakaslea (ANDERESENI, dat., emak., Luishon [Luchon] harana...), baina, aurrerago, beste pasarte batean (264. or.) dio jainko izenetan lekukotzen den *-xso*, *-xe* atzizkiak *-so* eta *-tse* aldaerak dituela.

Mitxelenaren (1954: 443) aburuz, Akitaniako *-xo*, *-xso* funtzio txikigarria (eta, oro har, hipokoristikoa) duen euskarazko *-txo*-rekin erka daiteke (ANDEREXO, ANDEREXSO vs. *andretxo*). Alabaina, Erdi Aroko antroponimoetan txistukaridun bukaera bat baino gehiago dagoenez gero, arazoak dakuski grafiaren arloan, ezin delako jakin zehazkiro haiek nola ebakitzen ziren; *Anaso*, *Nonmuso*, *Iaunso* zein *Anderazo* aipatzen ditu etsenplutzat. Aurreko horiei *Anderaço*, *Anderazu*, *Andereço* zein *Anderezu* erants dakizkieke (*ibidem*, 432). Bestalde, *-xe*, *-se* atzizkiaren kasuan euskal onomastikan aurkitzen duen parekotasun bakarra *Totacoje* da, *-xe* bide duen *Tota* andrezko izenaren txikigarria izan daitekeena (*Totica*).

Gorrotxategik (1984a: 131-132, 368-370 eta 1995a: 43) ere akitanierako *-xso(n)* egungo *-xo*, *-txo* txikigarriarekin erkatzen du, azken hori *-to*-ren sabaikaritzetik ere badatorkeela onartuagatik.

Salaberrik (2009: 186) deritzo pertsona izenak eratzeko euskaraz erabilitako *-so*, *-xo*, Akitaniako inskripzioetan azaltzen den *-xo*, *-xso* atzizkiarekin aldera datekeela. Berebat, azpimarratzen du *-xo*, *-xso* hori *-se(n)*-ekin aldizkatzen dela, oinarri berari eratzikirik ageri direla, alegia.

Izen ttipiei buruz idatzitako «aingura liburuan» Uxueko irakasleak (186-190, 222. or.) *-so*, *-xo* atzizkia duten Erdiko Aroko izenak biltzen ditu eta haien lekukotasunak ematen (*Argiso*, *Argixo*, *Ilunso*...). Salaberrik jasotako izen ttipien artean adierazgarria da *Urdinso* (*Orti Ordinsso*, 1283; *Pedro de Hurdinso*, 1299; *Pero Vrdinso*, 1350) / *Urdintxo* (*Ourdincho*, 1359; *Sancho de Urdincho*, 1414; *Garcia Hurdincho*, 1501) bikotea, bi formek oinarri bera (*urdin*) dutelako. Sarrera bana ematen die; zehazkiro, aurrenekoari *-so*, *-xo*-ri eskainitakoan eta bigarrenari *-txo(a)*, *-txu*-ri opaturikoan.

Adibideen artean, Salaberrik Erdi Aroan lekukotzen den *Belso*, *Beltso*, *Beltxo* jende izena ere aipatzen du: *Belso* (1217, Iratxe), *Belcho de Auarçuça* (XIII. m., Abartzuza), «*fijos de Pero Sanchiz del Era de Belso*» (sic) (1350, Deikaztelu); *gfr. Semero Belza*, *Semero Velza* (1156, Irigoien 1995: 170). Hain zuzen, *-so* edo *-xo*-tik ez ezik, *Beltxo* forma, apika, *Beltz* + *-txo*-tik erator litekeela deritzo (188. or.). Bestetik, arrazoi ematen dio Mitxelenari (1969a: 52) *Belso*, *Beltxo*-ren bukaerako *-o* hori genero mozioarena dela dioenean, baina, Irigoienekin (1981: 388-389) bat eginez, ez du baztertzen antzeko beste kasu batzuetan gradu hurbileko mugatzailea egon daitekeelako aukera. Buruenik, diosku Aranon 1726an *Belso* oikonimoa dokumentatzen dela, *Béltso* ebakia egun. Herri horretako Suro auzoan *Béltso* *bórda* deritzan etxea badela gehitzen du (*gfr. Ultzamako Eltso* kontzejua).

Lakarrak, Manterolak eta Seguiolak atonduriko *Euskal Hiztegi Historiko-Etimologikoan* (EHHE-200en) behin baino gehiagotan hartzen da ahotan *-so* atzizkia. Konparazio batera, liburuaren hitzaurrean (xlvii, cxii) irakur daiteke txistukari bortitza gordetzen duen akitanierazko OXSON, gure *otso* balitz, *\*hor-tz-so*-tik letorkeela ('hortz handi'). Aurrerago (32, 409. or.), adierazten da *-so* ahaidetasun mailaren urruntzailea badela, eta *aitaso* ('aitona', 'arbaso'...) nahiz *ilobaso* ('biloba') erabiltzen dira adiera horren lekukotzat. Bestelako funtzioak izan ditzakeela ere jasotzen da. *Baso*-ren (*\*bar-so*) kasuan, adibidez, *bidaso*, *ibaso* eta *itsaso* moduko hitzetan bezala, 'zabal' eta are 'handi' balioa izan duke. Zehazkiro, *baso* 'beheko lurralde zabal' edo 'barne handi' moduko zerbait izan zitekeen (83. or.).

### 3.3. *-te* atzizkia

#### 3.3.1. Grafia, parekoak Akitanian eta adiera

AHERBELSTE jainko izenari eskainitako atalean, oztopo bat baino gehiago ikusi arren, Gorrotxategik (1984a: 302) ez du erabat baztertzen *-te* elementua soinu afrikatua adierazteko grafia baliabidea izan daitekeelako hipotesia:

Otra posibilidad consiste en interpretarlo como un recurso gráfico para anotar un sonido africado, al estilo de lo que sucede en los textos galos. En apoyo de esta conjetura se puede citar el caso de *Asterdumari* (dat. CIL, 2, 5840) si lo entendemos como un nombre formado sobre el elemento galo *Adsedo-*, aunque tenemos en contra toda la tradición aquitana que se sirve de la grafía *x(s)* para anotar una africada, incluso en el caso de *Adsedo-*, cf. AXSEDO. Esta explicación no convendría tampoco para *Baeserte*.

Velazak ere (a.a.), Gorrotxategiri jarraikiz, ez du txarresten *-te* grafiak afrikatu bat edo palatal bat azaldu nahi izatea. Horrela balitz, *Belteso* izena \**Beltz-so* / \**Beltz-tso* interpretatu beharko litzateke apika.

Nolanahi ere den, azpiatal honetan *-te-* egiazki herskari horzkariaren eta erdiko bokalaren arteko grafia batura delako aukera baizik ez dugu jorratuko (ikus 3.6.§), hau da, Oiartzungo estelan *Belte-* irakurri behar dela izango da abiapuntua.

Lehenik eta behin, Mitxelena (1954: 417) gizonezko nahiz emakumezko izenetan azaltzen den *-ten(n)* atzizkiak mintzo da, eta, besteak beste, ANDOSTEN (giz., Cièr d'Arribèra), ANDOSTENNI (dat., giz., Sent Bertran de Comenge), ANDOSTENNO (dat., giz., Luishon harana), HAHANTENN (emak.?, Burgalais, [Burgalays]), HAHANTEN (emak., Lieoux), SEMBETENNIS (gen., giz., Bossens [Boussens]) zein SEMBETTEN (giz.?, Eup) lekukotasunak dakartza.

Beste lan batean Errenteriako maisuak (1969a: 51) dio *-t(e)* amaiera duten Erdi Aroko hipokoristikoek euskaratiko oinarriak izaten dituztela, eta *-et,-ot* dutenak, aldiz, «Ipar-ekialdeko etorkia duten erromantzeko eratorriak» direla. Salaberriren (2009: 173) iritziz, baina, ez dirudi hori denik *Enekot* edo *Gartxot*-en kasua, oinarria usaian euskarazkotzat jotzen delako. Uxueko irakasleak eransten du horiek beste interpretazio bat ere izan dezaketela (*Eneko* + *-t*, *Gartxo* + *t*).

Gorrotxategik (1984a: 162, 368; 2018: 259-260) *-te* ikusten du Oiartzungo inskripzioan, ez *-ten(n)* / *-tten(n)*, eta AHERBELSTE, BAESERTE jainko izenekin zein TORSTEGINNO antroponimoarekin alderatzen du. Izan ere, AHERBELSTE-ri eskainitako sarreran Eibarkoak (1984a: 302) diosku *-te* akabaila eta *-ten(n)* atzizkia ez direla gauza bera, aurrenekoan *-t* eta jainko izen askoren datiboko hondarkia den *-e* baitituzkegu. Bere ustez, BAESERTE-n ere Akitaniako teonimoetan ugaria den *-t-* atzizkia eta datiboko *-e* hondarkia daudeke (*ibidem*, 311), IDIATTE-n (Saint-Pé-d'Ardet) bezala (*ibidem*, 332, 368). Lan berean (*ibidem*, 373) zehazten du teonimoetan lekukotzen den *-e* hondarki berezia *-batzuetan* hirugarren deklinabideko *-i* nahiz bigarren *-o* markarekin txandakatzen dena (ANDOSSO [dat., Sant-Bertrand de Comenge, Sent Helitz [Saint-Elix-sur-Baïse] / ANDOSE [Narbona], BAIGORRIXO / BVAIGORIXE)-, galtzen ari zen zaharkina zatekeela.

*Beuste* (XII. gizaldian *Belste*) toponimo gaskoian ere *-te* dukegu Eibarko euskalariaren iritzian (*ibidem*, 159), alegia, BELTESONIS, BAESERTE, IDIATTE

TORSTEGINNO-n legokeen bera. Osagai horixe antzematen du Hagenbach-eko xafletako *Cerecotessehari*-n (Gorrotxategi 1995b: 215).

Salaberrik (2009: 192-193) garbi dakusa badela *-te* bukaera euskarazko izen ttipien sailean (*Anderete...*), *-o* bukaera duten lekukotzetan (*Antxote*, *Otsote*, *Semerote*) *-te* gabe *-ote* ere ikus daitekeen arren. Honela mintzo da Akitaniako *te*-rekin bide duen loturaz:

Ez dakit Erdi Aroko *-te* zein neurritan lot daitekeen Akitaniako *-ten(n)*-ekin, hark ez baitu honek duen bukaerako sudurkari gogorra, baina gorago ikusi bezala, *-te* ere bazen Akitanian, eta badaiteke honekin behintzat erlazioa izatea, edo atzizki bera izatea.

Egia erran, Gorrotxategik berak (1984: 304, 311) onartzen du *Aherbelste*-n eta *Baeserte*-n, bai eta *Alardosto*-n ere, *-t* atzizkia egon daitekeela (azkenak latineko *-o* datiboaren hondarkia duke). Hemendik, zenbaitetan segurik, teonimoa deklinatu gabe dagoela onartzeko (hau jainko izenetan usu agitzen da; ikus lan bereko 300 eta 306. or.) eta atzizkia *-te* dela errateko egin behar den urratsa ez da oso handia.

EHHE-200en (lxxxvii-lxxxviii) biltzen denez, historikoki bananduak diren *-te*<sub>1</sub> ('aditz-ekintza' [*etorte*]) zein *-te*<sub>2</sub> ('plurala' [*dute*]) sustraia \**den*-en (*finish*-en) gramatikalizazioan duen *-de* alomorfo zaharraren (*forma sparita*-ren) oinordeak dira. Aipatu hiztegian (lxxvi) jakitera ematen da ahoskabe / ahostun (*-te/-de*) txandakatzea dagoenean bigarrena dela alomorfo zaharra. *Arte/alde* bikotean (*ibidem*, cxxiv), konparaziora, \**den* errotik datozkigun alomorfoak ditugu bi kasuetan, bata forma (*d-*) eta esanahi zaharrarekin ('amaitu'), bestea forma (*t-*) eta esanahi-funtzio berrienarekin (plurala eta aditz-izena). Beraz, usu alomorfo antigoalekoak morfemen funtzio zaharrarekin edo/eta hitzen adierarik antzinakoenarekin doaz, eta alomorfo berrienak funtzio eta esanahi berrienekin.

Badaude atzizkiari buruzko pasarte gehiago EHHE-200en. Adibidez, *ate*-ri eskainitako sarreran irakur daiteke hitz horretan, *-te* balego, zilegi litzatekeela 'igarotze' moduko jatorrizko esanahi batean pentsatzea, lehen osagaia zein den jakin gabe ere (*ibidem*, 55). *Garaite*-n (< *garai*), bestalde, aditz-izenetako *-te* atzizkia lexikalizatuta genuke (*ibidem*, 240). Berebat, *kalte* (< *galdu*) *gal-te* aditz-izen zahartzat jota ongi azalduko litzateke eta *galde* ('eske', 'itaun') *gal-de* zati daiteke (*ibidem*, 252). Hain justu, daitekeena da azken etsenplu horretan albokari ondoko herskari ahostuneko *-de* zaharra izatea, aditz-izenetako atzizkiaren *-de* eta *-te* aldaeren artean antzinakoa lehena delako. Kontuan har, antza denez, akitanieraz /l/ eta /n/ ozenen ondoko herskariak ez zirela neutralizatzen. Azkenik, *urte*-n ere *-te* atzizkia litzateke bigarren osagaia (*ibidem*, 396), alegia denbora tarte adierazten duten beste zenbait hitzetan legokeen berbera (cf. *arte*, *aste*, *mende*), adizetako *-de* / *-te* azken buruan. Adierari dagokionez, *urte*-k, jatorrian, 'euri-sasoia' edo 'mendietako elurraren bedatseko urtze-aldia' izendatuko zukeen. Bilakaera metonimikoa egon bide da, hortaz.

Gurera etorritz, ez du ematen Oiartzungo patronimoan dagoen *-te*-ren bokala jainko izenetan usu azaltzen den datiboko *-e* hondarki zaharra denik. Lehenik eta

behin, ez dagoelako garbi *-e* hori beti kasu marka dela, gauza jakina baita teonimo asko deklinatu gabe azaltzen direla. Bigarrenik, Andrearriagako inskripziokoa pertsona izena delako, ez teonimoa. Azkenik, eta batez ere, segidan beste atzizkia dugulako (*-so*), hau da, ez dagoelako akabailako lekunean.

Daitekeena da Andrearriagako inskripzioan Salaberrik Erdi Aroko antroponimoetan ikusitako *-te* txikigarria egotea. Horretarako, oztopo bat da *Bel-* oinarriak ez dirudiela, adibidez, *Andere-* edo *Semero-*ren sail berekoa. Beste azalbidea izan daiteke pentsatzea EHHE-200en biltzen den aditz-izenetako *-te* dagoela, zenbait hitzetan denbora tartea adierazten duena, nolabait esan, *Belte-* oinarria *iluntze-*ren parekoa dela. Zailtasun nagusia, eta ez nolanhikoa, aditz-izen bat jende izen baten osagaitako erabiltzea arrunta ez izatean datza.

### 3.3.2. Iberierazko *-te*

BELTESONIS-i eskainitako sarreran, Gorrotxategik (1984a: 162) dio iberieraz badirela *-te*–Akitaniar AHERBELSTE-n eta dugun atzizki bera–bakantzea ahalbidetzen duten formak, *bors-te* kasu (*cf.* akit. *Borsus*). Ullastret-eko beruneko **borste** : **abaſceborste** segidaz ari da.

Liburu berean (311. or.) esaten du BAESERTE teonimoaren akabailako *-te* generoak eragiten ez dion eta Akitaniako jainko izenetan ugaria den datiboko *-e* hondarriak eta ALARDOSTO-n (Luishon harana) edo AHERBELSTE-n bide dagoen *-t* atzizkiak osatua dagokeela. Zernahi gisaz, BAISOTHAR[ (gen. Garona Garaia) antroponimoarekin eta BEISIRISSE (Cadiac [Cadéac]) teonimoarekin dukeen lotura alde batera utzi gabe, aitortzen du BAESERTE-k antz handiena iberierazko pertsona izen batzuekin duela, bigarren tokian *-baiser* (latinez idatzita *-baeser*) elementua duten «*belaſbaiser, balcesbaiser, ESPAISER, TANNEPAESER*»-rekin esaterako.

Gorago esan bezala (ikus 2.2.§), baskoien lurraldean eta haren ondoan (Ebro eta Pirinioen arteko lurralde zabalean) idorotako txanponen artean bada multzo bat ezaugarri bereziak dituena. Haien artean **unambaate** zeka dago, Gorrotxategiren (2018: 246) iritzirako, irakurketaren zailtasunak ukatu gabe, iberiar pertsona izen baten itxura duena, non *-te* atzizkia bakan daitekeen. Horrenbestez, *-te* osagaia ez da arras arrotza euskal eremuko txanpon etxeek antzinatean jaulkitako diruan.

Velazak (1996: 49, 68) iberierazko *-te* morfotzat jotzen du, hau da, beste hitz batzuei (itxuraz haien funtzioa aldatzeko) eransten zaien balio lexiko ezezaguneko osagai (morfema, deribatzaile) zatiezintzat. Nabarmentzen du *-te* morfoa epigrafe askotan ageri dela, pertsona izenen jarraian agertu ere (**betukine-te, kuleſbelauf-te, likine-te, sakafatin-te**). Iruditzen zaio beste batzuetan toki izenei lotua dagoela, **iltuko-ite** edo **alaun-iltif-te** segidetan bezala. Kategoria ezezaguneko hitzekin ere



dokumentatzen da Castejongoaren hitzetan, **ban-te**, **baser-te**, **kafes-ban-ite**, **kafes-ir-te**-rekin kasu.

Beste lan batean ikertzaile nafarrak (2002: 272-274) adierazten du *-te*-k balio gramatikal bera ez duten segmentu homografoak ezkuta ditzakeela eta, jarraian, *-te* ageri den ingurumariak zerrendatzen ditu. Lehenik eta behin, pertsona izenak diren hitzen jarraian agertzen den etsenpluak biltzen ditu: **betukine-te**, **bilosbos-te**, **ultibaiser-te**. Orobat, ematen du **bototaš-te**, **keltibeles-te** eta **laufberton-te** segidetan jende izenen ostean doala. Bigarrenik, leku izenak izan daitezkeen elementuen segidan dagoen kasuak jasotzen ditu, **iltuko-ite** eta menturaz toponimoak diratekeen **iltif** hitzarekin eratutako **alauniltifte** zein **bastesiltifte**, konparaziora. Aurreko gramatika testuinguruei antroponimo baten gibeletik eta **ekiar** hitzaren aurretik azaltzen diren mostrak erantsi behar zaizkie, Caminrealgo **likinete** : **ekiar** : **uSakeRteku** adibidez.

Velazaren iritzirako, hipotesi sinesgarriena da iberieraz *-te*-k agentea markatzen duela pentsatzea. Besterik da agente hori zein tipologia linguistikori esleitu behar zaion, ez baitu garbi ikusten ergatibo marka edota subjektu jasailearen (pazientearen) adierazpena ote den.

Onomastika iberiarrean *-te* elementua ezaguna da hortaz, baina ematen du usu gramatika marka dela (agentearena, subjektu jasailearena), ez onomastika arloko atzizkia. Hizkuntza horretaz ezagutzen denaren argitan, ezin da erabat baztertu eratorpen atzizkia delako ideia, baina, antza denez, ez dago jarraian beste osagai batekin azaltzen den adibiderik, hau da, ez dago *-te* + *atzizkia* segidaren arrastorik.

### 3.4. *Bel-* osagaia

#### 3.4.1. *Bel-* osagaia euskal sustraiko onomastikan

Mitxelenak (1956: 82) aitortzen du ez duela ezagutzen parekorik Andrearriagako inskripzioaren aurreneko zatiarentzat (*Belte*-rentzat). Errenteriarak (1954: 418) BELEX, BELEXCONIS (gen., Cardelhac) / [b]ELEXCONIS (gen., Montcirèr), BELEXEIA, BELEXENNIS zein BONBELEX, HARBELEX, HARBELEXSIS, [H]ARBELSIS jende izenak eta AHERBELSTE teonimoa aipatzen ditu Akitaniako onomastikaz idatzitako ikerlanean, baina Oiartzungo patronimoa ez du haiekin erkatzen.

Gorrotxategiren (1995b: 208, 218) ustez, ordea, Oiartzungo patronimoa onomastika akitaniarrean lekukoturiko osagaietan oinarri hartuz azter daiteke, eta aurreneko osagaia (*Bel-*) *Belex-* erroarekin zerikusia duten elementuen sailean sartzen du. Eibarko euskalariak (1984a: 156) diosku *Belex* (eratorri eta elkartuak barne) Akitania osoan hobekien dokumentatuta dagoen izen-oinetariko bat dela eta –Mitxelenari (1954: 435) jarraikiz– azken kontsonantea (hitz eta morfema amaieran *-x(s)*-ekin idatzita azaltzen dena) txistukari afrikatua dela segur aski. Mitxelenak

bildurikoez landara, HARBELESTEG[ (Lot-et-Garona<sup>4</sup> [okz. Òlt e Garona]) antroponimoa jasotzen du (*ibidem*, 219). Beste gauza askoren artean, zehazten du BELEXCONIS *Belex-* oinari *-c(c)o-*, *c(c)o-nis* atzizkia erantsita sorturiko eratorria datekeela (*ibidem*, 159).

Pirinioen hegoaldeko antzinateko onomastikan badaude *-bels-* / *Belz-* elementua daukaten izendapenak, Durruma Donemiliagako LUTBELSCOTTIO eta LUNTBELSAR nahiz Soriako lur garaietako BELZCON[...] esaterako; ez, ordea, *-belex(s)-* duenik.

Schuchardt (1909: 240–242), *-azken* soinutako txistukaria duten izen-oinenez kestone–ohartu zen akitanierazko *Belex* zein iberierako *beles bel-* erroan oinarrituriko eraketak zirela. Erro hori bera euskarazko *bele-*n aurkitu zuen, irudiz.

Mitxelena (1954:418) dio HARBELEXSIS / [H]ARBELSIS bikoteak AHERBELSTE-ren *-bels-* zatikia *belex-*ekin lotzea ahalbidentzen duela. Errenteriakoaren iritzirako (*ibidem*, 435), Akitaniako *Belex* jatorriaren aldetik euskarazko *beltz*, *baltz* («negro») nahiz sustraia *bele-*n («cuervo») duen *belatz*, *belatx* («gavilán» «corneja») izenen sail berekoa litzateke. Beraz, iruditzen zaio *Belex* eta *beltz* lotzeak baduela egiantzik. Euskarazko *beltz*, agian, *\*beletz-*etik datorkeela adierazten du, eta horrek *a / e* txandakatzea argi dezakeela eranstean. Orobat, uste du zentzuzkoa dela pentsatzea *belatz-*ek *\*beletz-*en duela sorburua. Aurrerago gehitzen du (*ibidem*, 448) *Belex* eta *belatz* gauza bera balira akitanieran elkargunean bokalak aldatzen zirela frogaturik geratuko litzatekeela, euskarazko oinordeak ez baititu *bele-*k dituen bokalak. Ohar esanguratsu hau ere egiten du (*ibidem*, 419): akitanierako *har-* (HARBELEX) eta *hars-* (HARSIS [gen., Gordan e Polinhan], HARSORI [Bordères de Loron, Vathcrabèra]) erroen artean dagoen lotura *biho-* eta *bihos-*en artean dagoen bera izan daiteke (*cf. bel vs. bels*).

Antzinako azentuaz ari delarik, Mitxelena (1958: 230; FHV, 415–416) argitzen du elkartuen azken osagaietatik abiatzen den berdinketa analogikoak azal ditzakeela *-sinkopa* arrunta den euskalkiez landara–oso zabalduak dauden zenbait bokal erorketa, eta *beltz-*ena horren kasu garbia dela. Akitaniako *belex-*ek ondo bidean euskaraz *\*berets* edo *\*beretz* eman beharko zukeela azpimarratu ostean, iradokitzen du *beltz*, elkartuaren bigarren osagaian sortu den eta aldaera beregaina ordeztu eta ezabatu duen berrikuntza datekeela. Beraz, *beltz* forma bigarrenkaria dela deritzo eta *bele*, *bela*, *belatz* *\*L* bortitza zukeen beste etimo batetik datozkeelako hipotesiaren alde egiten du. Elkarketako forma sinkopatu horren sorburua urrun samarrekoa izango da, ematen baitu Akitaniako AHERBELSTE eta [H]ARBELSIS izenetan mudantza burututa zegoela.

Gorrotxategiri (1984a: 220, 302, 379) ere iruditzen zaio (H)ARBELSIS eta HARBELEXIS hertsiki lotuak daudela, alegia, Cièrp e Gaudeko antroponimoaren

<sup>4</sup> Euskaltzaindiaren 36. araua.

bigarren osagaian azken bokalaren sinkopa agitu dela, aurreko silabaren intentsitate azentuak eraginda (\*-béletz > -béltz).

Eibarko euskalariaren (*ibidem*, 158) hitzetan, Schuchardtek bakanduriko *bel-* erroa (afrikariaren luzapena gabe), iberierazko AENIBELIS eta ANTVBELI-n ez ezik, Oiartzungo estelan aurki daiteke. *-Bel* duten euskarazko hainbat adibide (*harbel*, *mospel...*) ere aipatzen ditu. Duela gutxi argitalpen batean (2018: 257-258), *-zenbait* izenetan (formalki bederen) antzematen den atzizki afrikatu baten bidez egindako silaba bakarrekoinaren luzapenez ari delarik *-bel / beltz* bikotean dagokeen txandaketa aipatzen du eta eransten, antzinaerako lekukoaren artean, *Belex*, *-bels-ek* eta Andrearriagako BELTESONIS-ek txandaketa formal berbera erakuts dezaketela.

EHHE-200en (102-105. or.) Andrearriagako idazkuna *beltz* hitzarekin zerikusia izan dezaketen akitanierazko izenen artean sailkatzen da (BELEX, BELEXCONIS, AHERBELSTE...), baina adierazten da ez dagoela argi haiek guztiek *beltz*-ekin duten lotura, eta balitekeela horietako batzuk hurbilago egotea *belatz*-etik.

Hiztegi etimologikoaren arabera, \**bel* ('beltz', 'ilun') erroa bereiz daiteke *beltz*-en lehen osagai gisa, egun modu beregainean inon gordetzen ez bada ere. Hala berean, bigarren osagaia (*-tz*) atzizkitzat jo izan dela irakur daiteke (*cf.* *ahuña / ahuntz*, *bera / beratz*; Schuchardt 1909: 240-242), baita ere *beltz* akitanierazko *belex*-en (edo iberierazko *beles*-en) ondoko zuzentzat hartu izan dela, baina agerian jartzen da horretarako, \**beletz* > eus. *beltz* bilakaeran sinkopa zahar eta ezohikoak proposatu edo onartu beharko lirakeela.

*Bele* hitzari buruz honakoa diosku EHHE-200ek (104. or.):

Lehen osagaia \**bel-* da; hitzaren bukaerari dagokionez, oharturik *-e* ez dela atzizki ezagun bat eta ez dugula inon \*\**bere* aldaerarik, \**bel-le* proposa daiteke (*cf.* *erle*, *-le* atzizkiarekin): \**beLe* berreraiki behar da berez, eta \**bel-le* osaeratik azal daiteke albokari bortitza, kontsonante talde baten ondorio (FHV 320, 359).

*Bele*-ren eratorritzat jo ohi den *belatz*-en karietara, EHHE-200en adierazten da haren elkartuetan ikusten den *bela-* formaren gainean osatua behar duela. Zubererazko *belátz* oxitonoak *ahuntz*-ekin berdintzen du hitza, eta harentzat proposaturiko *-tzV* atzizkiaren aukera indartzen da horrela. Zubererazko *belátz* kontuan hartuta, nabarmentzen da ezin esan daitekeela *belatz* akitanierazko *belex*-en jarraitzaile zuzena denik.

Aurrerago (*ibidem*, lxxxiv, 367), nabarmentzen da *hortz* izena *hor* + *-tz* zatika daitekeela, *beltz* izenondoa *bel-tz* bana genezakeen bezala. Zehatz-mehatz, lehen osagaia *hor* ('txakur') litzateke, eta atzizkia *-tz* (*cf.* gaztelaniazko *can* 'txakur', (*diente*) *canino* 'letagin').

Azken buruan, EHHE-200en egileen iritzirako (103), \**beletz* protoformaren eratorria ikusi ordez, *hortz* eta halakoekin konparatuta, egokiagoa da *bel-tz* osaera zaharra proposatzea, \**bel* erroak ongi zehaztua duelako bere esanahia eta ez delako beharrezkoa *bele*-tik abiatzea *beltz*-en esanahia azaltzeko; alderantziz, *bele* bera erro horretatik atera izango da.

### 3.4.2. Iberierazko *bel* elementua

Mitxelena-arentzat (1954: 435) ez dago ezer akitanierazko *Belex*-en eta iberierako *Beles*-en arteko harremanaren aurka. Ideia horren habetako, besteak beste, iberierazko *Vmarbeles*, *Neitinbeles* zein «*ICORBELES*, *ISCEŔBELES*, *ILDUBELES*(*EBAN*)» izenak aipatzen ditu. Segidan, eransten du, «*ATABELS*»-en amaierak bezala, Ascoliko brontzeko *-peles* (*Estopeles*), *-meles* (*Ordumeles*) nahiz *-bels*-ek (*Bennabels*) *beles*-en aldaerak diruditela.

FHVn (415-416), *beltz*-en eta akitanierako *Belex*-en arteko loturaz ari delarik, esaten du, akitanieraz gainera, elkarketako balizko forma sinkopatua iberierazko «*Bennabels*, *Sanibelser*, *Adimels*, *atabels*, *anbels*»-en ere azaltzen dela.

Gorrotxategiren (1984a: 158) irudikoz, *bel*- erroa (afrikariaren luzapena gabe), akitanierazko BELTESONIS-en nahiz iberierazko AENIBELIS eta ANTVBELI-n aurki daiteke. Halaber, Eibarko irakasleak (*ibidem*, 360) akitanierazko *Belex*, euskarazko *beltz*-ekin ez ezik, iberierazko *-bels*, *beles*-ekin alderatzen du. Zentzu horretan, nabarmetzen du Ascoliko brontzean lekukotzen diren antroponimo iberiar asko bina silaba dituzten bi osagaiko elkartuak direla (*ibidem*, 366) eta etsenplutako, besteak beste, *Sanibelser Adingibas f.*, *Bastugitas Adimels f.* zein *Beles Umarbeles f.* darabiltza.

Grafiaz denaz bezainbatean, Gorrotxategik (1984a: 156-157) ñabardura garrantzitsua egiten du, alegia, (san-ekin idatzitako) *beles*-en ondoan («*icorbeles*, *iscerbeles*, *iltubeles*»), iberieraz *-bels* dugula (sigma-rekin; «*ecerebels*, *anbels*, *atabels*»). Hain zuzen, bi txistukari mota (*s*- eta *-s*-) egoteak akitanieraren fonologia koadroa euskararenarekin eta iberierarentzat proposa daitekeenarekin alderatzea ahalbidetuko luke (*ibidem*, 379).

Eibarko irakasleak (1993: 627) dio (ib.) *-beles* / *bels*, (akit.) *Belex*- / *-bels* eta (eus.) *beltz*-ena, akitanieraren eta iberieraren arteko nahiz euskararen eta iberieraren arteko parekotasunik sendoenetarikoa dela. Haatik, Villartosoko BEL2CON[...] alde batera utziz gero, Hegoaldeko euskal saileko elkartuetan beti bigarren tokian azaltzen da *-bels*, euskaraz adjektibo bati dagokion eran; elkartu iberiarretan, berriz, gutxiagotan bada ere, aurreneko lekuan dokumentatzen da. Ezagunak diren etsenplu batzuk besterik ez ipintzeko, iberieraz *belsosin* (Yátova, Valentzia, Hesperia [Gorrotxategi (koord.) 2005], onom. 5675), *belstáf* (Er, Cerdanya, Hesperia, onom. 5354) eta *belškó* (Er, Cerdanya, Hesperia, onom. 5353) ditugu.

Bi hizkuntza eremuetan dituen sustraiez zalantzarik ez dagoenez gero, (ib.) *-beles / bels-ek* ‘beltza’ esanahia balu, akitanieraren eta iberieraren artean elkarbizitza antzinakoa eta estua onartzea beste erremediorik ez legoke Gorrotxategirentzat (*ibidem*), izena aurrenekotik bigarreneira igaro eta molda zedin nahikoa zatekeena; horrela ez balitz, iradokitzen du biek hirugarren hizkuntza ezezagun batetik hartuko zutela.

Oiartzungo patronimoaren aurreneko zatian, txistukarien arteko disimilazioa dela medio, egiazki \**Belste-* balego, orduan, bat etorriko litzateke AHERBELSTE teonimoaren bigarren osagaiarekin. Komeni da ez ahaztea, nolana ere, Mitxelenari (1954: 415) ez zaiola onargarria iruditzen jainko izen horren aurreneko osagaia (*aher-*) euskarazko *aker-*ekin «*macho cabrío*» alderatzea eta, bestetik, gogorarazten duela Ascoliko brontzean lekukoturiko antroponimo iberiar asko bina silabako bi osagai dituzten elkartuak direla, hau da, AHERBELSTE-k duen egitura bera dutela. Hari horri tiraka, <h>a da Garona Garaiko jainko izenak iberiar etorkia izan dezakeela iradokitzeke oztopo nagusietariko bat, baina kontuan izan euskarara egokituriko balizko iberiar jatorriko izenetan grafema hori ez dela arrotza (*fr.* URCHATETELLI).

### 3.5. *Belteso*-ren zatikien ezaugarri morfologikoak

Oiartzungo antroponimoaren etimoa argitzen saiatzeko lagungarri gerta daiteke zatikien ezaugarri morfologikoei arreta opatzea. Konparaziora, atzizkiek oinarriaren kategoria aldatzen duten ala ez begira daiteke, baita, hala balegokio, zein kategoria lexiko sortzeko erabili diren ere (izenak, adjektiboak...). Hala berean, esanahiaren aldetik, zein motatako izenak edo adjektiboak sortu dituzten ikus daiteke. Bestalde, ez da sobera eratziki zaion oinarriaren kategoria lexikoa jakiteko ahalegina egitea. Azkenik, beste eratorpen-morfema baten ondoren edo aurretik ager daitezkeen ala ez begira daiteke.

Adibidea jartzearren, (eus.) *-txo* irizpen atzizkia da, oinarriari txikitasun adiera ematen diona. Arruntean ez du aurreko zatiaren kategoria aldatzen, eta gainerako eratorpen-atzizkien ondoren (flexio hizkien aurrean) ezartzen da. *Urdincho* jende izena ikusita irudi duke oinarriaren kategoria alda dezakeela, baina ez da horrela, *Urdin* antroponimo ezaguna delako Erdi Aroan.

*-So* bizidunen izenak sortzeko atzizkia da alde batetik (*aitaso...*), baina, bestetik, ematen du irizpen atzizkitako ere baliatu dela antzinatean (*otso, baso...*). Aurreneko kasuan flexio hizkien aitzinetik agertzen da.

*-Te* bi eratara erabili da, antza denez. Batetik, *-txo*, irizpen atzizkia bezala, oinarriari onginahia, maitasuna edo txikitasuna adiera eransteko baliatu da euskal onomastikan. Ez da ezinezkoa, ondorioz *--zta*, *-xka* atzizkiek egin moduan— oinarriari ‘aski’, ‘samar’ adiera ematea (*fr. gorritzta, zurixka*). Hala berean, *elurte* zein *eurite* bezalako izenak sortzeko baliatu da *-te*.

Badira aukera gehiago, adibidez, *-te* eta *-so* atzizkiak, izatez, adjektibo-sortzaileak izatea. Horrela balitz, *-te*-k izaera adierazten duen adjektiboa sortuko luke (*ifr. -ti*) eta, *-so*-k, berriz, erreferentzia-adjektiboa, zehazkiro gentilizio bat (*ifr. -(t)ar*), izen bihurtu bide dena.

*-Bel*-i bagagozkio, adjektibo kalifikatzailea nahiz izentzat lexikalizaturiko kalifikatzailea dateke.

Goiko tasunak erabiliz gero, hauek lirateke, apika, balizko zenbait aukera *Belteso*-rentzat etimoaren aldetik:

- Izena (*bel(z)*- [substantibatutako adjektiboa, ezaugarria adierazten duena]) + txikigarria (*-txo*): 'belztxo'. *-te* elementua soinu afrikatua adierazteko grafia baliabidea dela onartzea eskatzen duen hipotesia da.
- Izena (*bel(z)*- [substantibatutako adjektiboa, ezaugarria adierazten duena]) + erreferentzia atzizkia (*-so*): «beltz-tar». *Idem*.
- Adjektiboa / substantibatutako adjektiboa (*bel(tz)* + *-te* [ezaugarria adierazten duena]) + erreferentzia atzizkia (*-so*): 'beltzarandar'.
- Adjektiboa / substantibatutako adjektiboa (*bel(tz)* + *-te* [ezaugarria adierazten duena]) + txikigarria (*-txo*): 'beltzarantxo'.

### 3.6. *Belteso*-ren sustraia

*Belteso* jende izenarentzat bi osaketa proposa daitezke, *bel-te-so* eta *belte-so*. Aurreneko hipotesiaren oinarria da *bel-*, *-te* eta *-so* zatikiak euskal enborreko Antzinaroko beste izen batzuetan dauden osagaiekin aldera daitezkeela. Azterbide horrek dituen zailtasunak, baina, ez dira gutxi. Batetik, euskal ondareko antzinako onomastikan *bel(s)* elementua ez da arrunta aurreneko lekunean. Arreta pixka bat opa diona ohartuko da euskarazko *gorri*-rekin lotu izan den *-cori-*, *-corri-*, *-gori-* (HERAUSCORRITSEHE, BAICORISO / BAIGORIXO / BAICOR[r]IXO, BVAIGORIXE) bigarren lekuan azaltzen dela aldi oro, ez dagoela lehenbiziko tokian \**Cori-*, \**Corri-*, \**Gori-* duen izendapenik.

Bestetik, Oiartzungo *Belteso* da *bel-* hutsa (segidan txistukaririk gabe) duen adibide bakarra euskal sustraiko antzinateko onomastikaren sailean. Aukera bat da pentsatzea txistukariz luzatu gabeko *forma sparita*-z ari garela, alegia, zaharkina dela, *-tz* eratxiki aurrekoa. Beste azalbidea da sinestea disimilazioa egon dela, jatorriz \**Belteso* dagoela (bi txistukarirekin), bestela esan, (H)ARBELISIS, LUTBELSCOTTIO, LUNTBELSAR edo Soriako lur garaietako BEL2CON[...] -en dagokeen osagai bera dukegula. Zentzu horretan, oroit bedi sudurkarien arteko disimilazioa egon bide dela, esaterako, Sent Liser-ko HAVTETEN-en (*ifr. HAUTENSE, HAUTENSONI*).

Bada hirugarren eragozpen bat: akitanieraz albokariz amaitzen den izen-oinik ez da lekukotu. Gorrotxategirentzat (1984a: 372, 374) dokumentazio urritasunak eragotzi duke oinarrian albokaria duen izenik ez gordetzea. Azkenik, *-te-* osagaiaren kokalekuak ere badu arazoa, ezagutzen diren mostra guztietan azken tokian azaltzen delako, bestela esanda, Oiartzungoa delako segidan beste atzizki bat (*-so*) duen etsenplu bakarra.

Goikoa ikusita eta jakinik akitanierazko *-bels-* eta iberierako *bel(s)* jatorri berekoak diratekeela, baita bi hizkuntzetako deizioetan *-te* atzizkia dukegula ere, ez litzateke guztiz alboratu behar *Bel-te*-k iberierarekin lotura izatea. Horren aldeko argudio nagusietako bat da euskal ondareko izen berezietan, Soriako Villartosoko BELZCON[...] alde batera utziz gero, *Bel-* ez dela aurreneko tokian azaltzen, bai, ordea, iberiar jatorrikoetan. Daitekeena da, hortaz, bi hizkuntzek komunean zituzketen osagaien sailekoa izatea (*cf.* eus. \**ili* (> *hiri*) / ib. *il(t)i*, *il(t)u*), menturaz, urrutiko garaietan izan bide zuten loturaren lekuko.

Balitzko bigarren hipotesiaren (irudizko osaketaren) abiapuntua edo premisa da *Belte-* \**Beltz-*-en grafia adierazpena dela, alegia, egiazki \**Beltz-so* (*cf.* *otso* < \**hortz-so*?; EHHE-200: xlvi, cxii) edo \**Beltz-tso* dagoela.

Gorrotxategik (1984a: 302) –AHERBELSTE jainko izenari eskainitako atalean– hipotesi hori erabat ez txarrestea, Salaberrik (2009: 188) *Beltxo* forma, apika, *Beltz* + *-txo*-tik erator litekeela iradokitzea, Erdi Aroan Lizarerrian *Belso*, *Belcho* jende izena dokumentatzea nahiz Aranon 1726an *Belso* oikonimoa lekukotzea (*Béltso* ebakia egun) dira *-te* grafiak Oiartzungo idazkunean soinu afrikatua adierazten duelako ustekariaren aldeko arrazoi batzuk.


Zentzu horretan, gogora bedi Arano eta Oiartzun ez daudela bata bestetik oso urruti eta, horrenbestez, *Beltso* grafiak, egiazki, \**Beltz-so* edo \**Beltz-tso* adieraziko balu, Nafarroako *Beltso* Oiartzungoaren ahaidetzat hartu beharko litzateke. Azterbide horren eragozpen nagusia, eta ez nolana hikoia, da *-te*-k txistukari afrikatua adieraz dezakeelako etsenplu garbirik ez dagoela euskal enborreko onomastikan (galieran ez bezala).

Guztiz ere, BELTESONIS-ek euskal ondareko izena ematen du, batez ere *-so* duelako akabailan eta osagai hori ez delako kausitzen ondoko beste hizkuntzetan, ez galieraz, ez zeltiberieraz, ezta iberieraz ere (*cf.* eus. *-so* / *-txo*). *-Te* eta *-so*, biak ala biak, atzizkiak balira ez legoke arazorik hurrenkeraren aldetik, Akitaniako antzinateko onomastikan badirelako bi hondarki dauzkaten izenak, *Hautense* (*-ten* + *-se*) adibidez.

## 4. San Pedro ermitako estela (Zegama)

Zegamako San Pedro ermita Aminao (< *Amiano*) baserrien ondoan da. Estela aldarearen oinean dago, etzanda ezarrita. Mertxe Urteagak eta Txomin Ugaldek ediren zuten 1986an eta Echevarriak eta Urteagak (1988) eman zuten haren berri bi urte geroago. Aracamak eta Gorrochateguik (1924: 106) jasotzen dute, hilarriaren ondoan, aldare-mahaiaren alboan (eskuinaldean) dagoen zulo batean burua sartu eta kredo bat erreztatzen zela buruko minik ez izateko.

Estela hareharrizko lauza laukizuzena da (97 cm x 59 cm) eta goiko aldean dekorazioa du. Hizki larri arkaikoan marra finez grabaturiko inskripzioa bost lerrotan banaturik dago. Apaingarriak, zutabeak eta kapitelak dauzkaten hiru arku ditu eta Hades edo hilen bizilekuko ateak adierazten bide ditu (Urteaga 2002: 67).



*San Pedro ermitako estela (Zegama)*

Epigrafea hildakoaren izenak, adinak eta hileta formula batek osatzen dute. Nahiko hondatua dago. Echevarriaren eta Urteagaren (1988: 168) hitzetan, K.o. I. gizaldiaren amaierakoa edo K.o. II. gizaldikoa dateke. Esteban (1997: 64, 67) iritzi berekoa da. Azken honek Arabako hilarrien eitea duela azpimarratzen du, letrarengatik eta dekorazioarengatik.

Echevarriak eta Urteagak (1988: 167-168), J.M. Iglesiasi jaramon eginez, honako irakurketa proposatzen dute: «La[r]jici/us[---]om/n[- f(i)lius]/ an(norum) XXXX/.



H(ic) i(acet)». Zernahi gisaz, onartzen dute hasierako izena LANICIVS, LATICIVS nahiz L. ANNICIVS izan daitekeela, azken aukera –aipatu izena Araban ugari samarra izan arren– zaila iruditzen bazaie ere. Ciprés-ek (2006: 95-97), berriz, «L.? A[n]icius [...] oman[...]? H(ic) I(acet)?» dakusa. Hesperia datu baseak (onom. 3386) nahiz Vallejok (2016: 92), ordea, «La[b]icius [--]omn[--]» ematen dute.

Irakurketa zailtasunak direla medio, idazkuna arakatu duten ikertzaileak ez datoz bat izenaren egituraren azterketan. Muturreko interpretazio bat aipatzeagatik, Ciprés-en (2006: 95-97) irudiz filiazioa adierazten ez duen *tria nomina* baten aurrean gaude.

*Labicius* ez da izen naroa. Iberiar penintsulan ezagutzen diren etsenplu bakarrak Cartagenakoak dira: «L. Labicius W. I. Malcio» (Hesperia, onom. 3042), «Labicia W. I. Maura» (*ibidem*, onom. 3121), «Labi[cia/-us] W. I. Scu[---]» (*ibidem*, onom. 3993); *cf.* Solin; Salomies (1994: 99) eta EDH ([Alföldy eta Witschel 1997], HD037633). Gorrotxategik (1984a: 229-230) Asca-ko (Asque) galdutako aldare batean zegokeen (eta Oihenartek aipatzen duen) LABVSIVS izena biltzen du Akitaniako onomastika indigenari buruzko liburuan.

Balizko cognomenean dagoen [---]OM/N[---] segidari bagagozkio, VLPIO SOMNIONI lekukotua dago Italian (EDH, HD015119; *cf.* SOMNIUS, SOMMIUS, Solin; Salomies 1994: 174), baita ere «M(arcus) Vesomn(ius) / Sever(us)» Frantzian (EDH, HD065255; *cf.* VESOMN(IUS)?, Solin; Salomies 1994: 204). Horrenbestez, ezin bazter daiteke guztiz Zegamako San Pedro ermitako inskripzioaren bigarren osagaiaren adiera, agian, ‘lotia’ edo izatea.


## 5. San Valerio ermitako aldare zatia (Arrasate)

### 5.1. Epigrafearen historia eta ezaugarriak

Inkiszioak 1787. urtean lurperatu zuen arte, Arrasateko San Valerio ermitako aldare zatia Meatzerreka auzoko tenpluaren barruan egon zen. 1800-1803 artean Vargas Ponce jaunak lur azpitik atera eta Madrilera eraman zuen, *Real Academia de la Historia*-ren egoitzara. 1907. urtean *Museo Arqueológico Nacional*-era garraiatu zuten eta, azkenik, 1974an, handik Segóbriga-ko Museora (Saelisces-era), egun dagoen lekura, alegia.

Mitxelenak (1956: 80), Caro Barojari esker, bazuen Arrasaten epigrafe erromatar baten zatia bazelako zantzua, baina Abascalek argitu zuen behin betiko 2010ean Cuencan gordetako aldare zatia egiazki nongoa zen.

Garibaik (1571: 258) biltzen du San Valerio elizan bazegoela latinezko hizki zaharrak zituen harri bat, *Sant Valerio* izkiriaturtuta zuena eta jendeak jaiera handiz musu ematen ziona. Vargas Ponce-k jasotzen duenez (*apud* Abascal 2010: 128), buruko mina kentzeko muin egiten zioten. Esanak esan, Arrasatekoa Gipuzkoa osoan aipatu santuari eskainitako ermita bakarra da.



*San Valerio ermitako aldare zatia (Arrasate)*

Epigrafea eskuineko azpiko aldea puskatuta (eta galduta) duen kareharrizko lauza laukizuzen baten zati batean dago (16 cm x 19 cm), lau lerrotan grabatua, letrakera traketsarekin. Almagro Basch-en (1984: 92) iritzirako, azken datu horrek K.o. III. gizaldikoa dela adieraziko luke. Bigarren lerroko lehenbiziko hizkian zer ipintzen duen ez da garbi ikusten.

Tramacastilla-ko arkeologoak (*ibidem*, 90-91) VALERIVS TIR/O DIALCO VOTV/M LIBE(n)S ME/RITO LA[ETVS SOLVIT] irakurtzen du, baina *Hispania Epigraphica* datu basean (HE [Gómez-Pantoja 2013], 11794), azken zatia bestela ematen dute: «Valerius Tir/o Dialco votu/m libe(n)s m[e]/rito M[- -]».

### 5.2.1. Segida onomastikoaren egitura eta zatien tasun nagusiak

Segida onomastikoak bi zati ditu, *Valerius Tiro* jende izena eta *Dialco* teonimoa. Aurrenekoa bi osagai dauzkan gizonetzko izena da (*duo nomina*), nominatiboan deklinaturik dagoena.

*Valerius* (*Sempronius* bezala) joria da barruko aldeko Iberiar penintsularen iparraldean, batik bat Zeltiberian. Zabalkunde horren arrazoi nagusiak dira *Caius Valerius Flaccus* magistratuarekin hainbat herritarrek izandako mendekotasun edo bezeria harremanak eta erromatar hiritar berri askok izena aukeratzean deizio hori hobestea. Ez alferrik, *Caius Valerius Flaccus* prokotsulak sona eta ospe handia lortu zuen K.a. I. gizaldiaren hasmentan *Hispania Citerior* delakoan zeltiberiarren aurka erdietsitako garaipenengatik. (*fr.* Navarro; Gorrotxategi; Vallejo 2011: 136-140). Ebro ibaiatz honaindi ere maiz azaltzen da, baina ez zeltiberiarren, arebakoen edo pelendeoien lurraldeetan bezainbeste. Nafarroan, *Sempronius*-en ondoren, *Valerius* da izen erabiliena (Castillo 1977: 130); Araban ere naroenen artean dago, baina, *Sempronius*, *Porcius*, *Aemilius/a* eta *Licinius* ditu aurretik (Ciprés 2006: 104).

Jatorria latinezko *tiro*, *-nis* apelatiboan ('aprendiza') bide duen *Tiro cognomen*-ak (Kajanto 1982 [1965]: 320; Solin; Salomies 1988: 412) ez du erakuskari gehiago euskal eremuan. Hispanian badira laginak. Navarrok, Gorrotxategik eta Vallejok (2011: 151) biltzen dutenez, *Tiro* birritan azaltzen da, adibidez, zeltiberiarren artean lekukoturiko cognomina latinoen sailean. Reillo-ko (Cuencako) «L(ucius) Scribo/nius Tiro» (HE, 6746) da etsenplu horietako bat. Ezaguna den beste adibide bat aipatzeagatik, Ourenseko San Martinho de Vitoria-ko (Barco de Valdeorras-ko) inskripzio batean «Q. Iul(ius) Tiro» gizasemeak eskaintza egiten dio «Tilleno» jainkoari (Hesperia, onom. 4428). Hala berean, Lamas de Moledo-n (Portugalen) –Lusitanierazko hitz batzuen aurretik– «Rufinus et Tiro» izenak grabatuta daude (Gorrotxategi; Vallejo 2019: 343), hau da, *nomen unicum* gisa agertzen da. Puerto de Santa Cruz-en ere (Cáceresen) *Tiro* deizioa duen estela dago (HE 19997). Azkenik, *Tiro*-rekin lotua dagoela jakite ziurra izan ez arren, gogora bedi *Botorríta III* brontzean **tiri**u idionimoa irakur daitekeela

**uiriaskum** familiaz gaindiko antolakuntza unitate izenaren aurretik (Beltrán; Jordán 2019: 294; Jordán 2019: 783).

### 5.2.2. *Dialco* jainko izena

Sekuentzia onomastiko osoa eta haren gibeletik datorrena (votu/m libe(n)s m[e]/rito) ikusirik, bada, pentsa daiteke *Dialco* jainko izena dela. Horrelakoetan ohikoa den bezala, badirudi teonimoa datiboan deklinatuta dagoela eta, ondorioz, *Dialcus* litzatekeela nominatiboko forma.

Almagro Basch-ek (1984: 92) adierazten duenez, Hispaniako epigrafian eta, oro har, mundu erromatarrean, ez dago *Dialco*-ren mostra gehiago. Neurri batean, ez da harritzeko, euskal lurraldeetan edirendako aretan agerraldi bakarra duten jainko izenak nagusitzen baitira, ez delako arrunta teonimo batek erakuskari bat baino gehiago izatea (Gorrotxategi; Ramírez Sádaba 2013: 128-129).

Gorrotxategirentzat (2015a: 16) *Dialco*-k ez du jainko izen baskoi itxurarik, eta, segur aski, *-co* eratorjeta atzizki hispaniar-zeltaren bidez eratua dago. Taxu baskoia ez duela dioenean, menturaz, akabailaz gainera, hasierako zatia zukeen buruan, Mitxelenaren (1957) ondotik gauza ezaguna delako lehen idazkunen aurretik *\*d- > /-* aldaketa burututa zegoela, eta *d-* fonosinbolismoetan, maileguetan eta aditzetan besterik ez dagoela euskara historikoan. Lakarrak, Manterolak eta Seguroiak (2019: lxxvii, cvi) diote *\*d- [\*/t/]* *> /-* urratsa aitzineuskara modernoa baino lehen emana zela, aitzineuskara zaharreko *\*d-* erro gehienak *l-* erro bilakatuak baitziren orduko. Alde guztietara, Gorrotxategik (1984a: 374; 2015b: 301, 454; 2018: 265) zehazten du *-Lohi-* osagaiak akitanierazko epigrafeen garairako *d- > l-* bilakaera eginda edo abian zela erakutsiagatik– badaudela hitz hasieran horzkaria duten zenbait adibide antzinatean, DERRO (Burgalais), DERI (gen., Barran) zein *Doxxi* (gen., Hagenbach) konparaziora, hastapeneko lekunean horzkaria mantendu zela adierazten dutenak, puntu honetan aitzineuskararako berreraikitzen zenetik aldenduz. Berezitasunez ari garelarik, /ia/ hiatoa ez da arrunta akitanieraz; BELEXEIA da salbuespen bakarretakoa.

Garbi dagoena da DIALCO-k ez duela Nafarroan lekukotu diren jainko izen baskoien antzik, hau da, ERRENSAE (Muruzabal Andion), ITSACURRINNE (Izkue), LARRAHI (Mendigorría), LARAHE (Iruxo, Gesalatz), LOSAE, LOXAE, SELATSE, SELAITSE, URDE (Muzki) nahiz LACUBEGI (Uxue) teonimoen eiterik. Aurreko horiei Arabako (Miñaoko) HELASSE erants dakieke. Berebat, Arrasateko aldarekoak ez du Araban dokumentaturiko TULLONIO (dat., Alegría-Dulantzi), BAE LIBIO (2), (Angostina) zein LEUCINAE? (dat., emak., Comunion) jainko izen zelten tankerarik. Gauza bera agitzen da Eslabako PEREMUSTAE-rekin (dat., emak.) alderatuz gero. El

Rasillo de Cameros-eraino (Errioxaraino) urrundu behar da bukaera bertsua dukeen CALDO VLEDICO bezalako teonimo (zelta) bat kausitzeko.

Hitzak hizpidea ekarrita, diodan *-co* osagaia latinezko epigrafian jatorri euskalduna, zeltiberiarra nahiz iberiarra duten deizioetan ageri dela. Garai berean ondoan dauden hiru mintzairatako izenetan forma bera duten akabailak egoteak ez du esan nahi, halere, hiru kasuetan osagai beraz ari garenik. Gorrotxategiren (2018 [2006]: 204) ustez, adibidez, akitanierazko *-c(c)o*-k eta euskarazko *-ko* atzizkiak *-co* indoeuroparrarekin eta Hispaniako onomastikan hark dituen eratorrieekin duten antza halabeharrezkoa da.

Pirinioen hegoaldeko onomastikari begiraturaz gero, Araban (Durruma Donemiliagan) LUTBELSCOTTIO jende izena dugu, baina ez dago garbi hemen egiazki atzizkia den ala ez. Akitaniako onomastikaren zenbait ezaugarri dituen Soriako lurralde garaietako epigrafia multzoan ez dago zalantzarik, *-co* atzizkia argiro azaltzen delako, konparaziora, SESENCO (La Laguna, Soria) izen ezagunean, baita ere, segur aski, BELZCON[...]en.

Gauza jakina da, orobat, *-co* narea dela antzinateko epigrafia akitaniarrean. Mitxelenak (1954: 441) diosku akitanierazko *-co(n)*, *-cco(n)* eta Erdi Aroko euskal onomastikan txikigarriak (eta oro har hipokoristikoak) sortzeko erabilitako *-co* (*Ochoco...*; ikus Salaberri 2009: 141-159) atzizki bera direla. Ikusten denez, *-cco(n)-*, *-co(n)-* idazten du, latinez *-bukaerako -o* nominatiboko formatzat hartzen zenez gero-hirugarrenetik deklinatzen zelako eta sudurkaria eransten zitzaiolako. Errenteriako maisuak (*ibidem*, 416) zehazten du Antzinaroko etsenplu guztiek, ANDRECCONI-k (dat., emak., Sent Bertran de Comenge) izan ezik, genero maskulinoa dutela. Gorrotxategik (2015b: 292) *-co*-ren gisako atzizkiak akitanieraren eta euskararen arteko lotura egiaztatzeko garrantzitsuak direla azpimarratzen du.

Honatx Mitxelenak (1954: 415) eta Gorrotxategik (1984a: 134, 215, 361, 367) Akitanian bildutako lekukotasun batzuk: OMBECCO, SENICCO, LAVRCO (Gèrç), MATICO, ATTACCONIS (gen., Sent Bertran de Comenge), BELEXCONIS (gen., Cardelhac), HANACONIS (gen., Castillon de Larbost [Castillon-de-Larboust]), SEMBECCONI (dat., Vathcrabèra). Kasu batzuetan familia harremana adierazten duten oinarri erantsi zaie, beraz. BONCOXSI (gen. Montberaud) eta HALSCOTARRIS (gen., Vathcrabèra) antroponimoek erakutsi bezala, *-xs(o)-* nahiz *-tar(r)* atzizkien aurretik ere ageri da *-co* (Gorrotxategi 1984a: 367; 1995a: 43; 2018: 260). Guztiarekin, akitanieraz ez dago albokari ondoren *-co* atzizkia duen jende izenik, ezta DIALCO-ren antzeko «onimorik» ere.

Iberierari bagagozkio, Áscoliko brontzean badago *-co* akabaila duen *Austinco*. Velazak (2019: 168), aipatu brontzean oinarri hartuz, uste du iberieraz eratorpen atzizkiak egon daitezkeela, *-ko* adibidez. Gorrotxategiren (1993: 628) iritzirako, ordea, *Austinco*-ren kasuan bederik, bi mintzairak gertu zeudenez gero, ezin bazter daiteke *-co* antzinaerako euskal enborreko hizkuntzak iberiarrari egindako mailegua izatea.

### 5.2.3. *-ko-* atzizki hispaniar-zelta jende izenetan

*-ko* eratorjeta atzizki hispaniar-zelta ongi dokumentatua dago zeltiberierazko epigrafian. Calahorran jaulkitako txanponetan irakur daitekeen **kalakorikos** (nom. pl.) da gertu samarreko adibidea, Velazaren (2009: 612) iritzirako, etnonimoa datekeena. Zeltiberiaz haraindi, Hispaniako sartaldeko eremu zabal batean dokumentatzen da (Prósper 2002: 140, 307, 312, 323, 360).

*-ko-*, izenetatik adjektiboak eratortzeko baliatzen zen. Hain zuzen, hori da zeltiberieraz hobekien lekukoturiko adjektibo mota. Izen bereziei, hau da, antroponimoei (**abulokum**, Eivissa < **abulu**) eta toponimoei (**areikoratikos** < *Arecorata*, Soria?; **kortonikum** < *Cortonon*, Sevilla) nahiz apelatiboei (**kortika?** < **korta**; **kustaikos?** < **kusta**) eratxiki zaie (Ramírez Sánchez 1999: 91; Prósper 2002: 309, 360, 366; Beltrán; Jordán 2019: 257; Jordán 2019: 199-201).

Zeltiberieraz segida edo segmentu askotan azal daiteke *-ko-* atzizkia: *-iko-*, *-oko*, *-sko*, *-ako-*, *-ioko*, *-nko*, *-iako*, *-uko*, *-aiko-*, *-eko-*, *-ieko-*, *-rko-*? (Ramírez Sánchez 1999: 69; Beltrán; Jordán 2019: 257; Jordán 2019: 201). Hortaz, hasieran bokala (*i*, *o*, *a*) duten aldaerak gailentzen dira, eta haien artean *-i(V)ko-* segida dutenak dira jorienak (cfr. Ramírez Sánchez 1999: 71). Zeltiberiatik at (Hispaniako sartaldean) *\*-āko-*, *\*-aiko*, *\*-iko-* eta *\*-eko-* aldaerak aipatzen ditu Prósper-ek (2002: 36, 140, 312, 345); Lujánek (2016: 230) *-anko-* eta *-onko* ere biltzen ditu.

*-ko-*ren bidez sorturiko adjektibo denominalak usu gentilitatea (familiaz gaindiko antolakuntza unitate indigena) adierazteko erabili dira eta badirudi jainko izenetan, teonimoaren epiteto gisa (adjektibo teonimiko moduan) ere ageri direla.

Zeltiberiarren artean «gentilitateak», ahaidetasun taldeak edo, nahiago bada, familiaz gaindiko antolakuntza unitate indigenak, garrantzi handia zuen. Horregatik, *idionimoa* + *gentilitatea* moldea zeltiberieraren adierazle onomastikotzat hartzen da. Pirinioen eremu sartaldekoan ez dago, horratik, formula horren erakuskaririk.

Bigarren tokian (idionimoaren jarraian) dagoen eratorriak oso aspaldikoa ez den arbaso baten berri eman dezake, familiaz gaindiko antolakuntza unitate indigenari izena eman dionarena. Xehetasunetan sartuz gero, familia unitate horiek ez ziratekeen oso handiak (Luján 2017: 198, 200). Izen bereki edo idionimo indigenak eta familia unitateen izenak erreperitorio onomastiko berekoak dira, guztiak antroponimia indoeuroparraren arlokoak (Luján 2016: 230, 234).

Zeltiberian ahaidetasuna, arruntean, muinean pertsona (arbaso) baten izena eta segidan *-ko-* duen pluraleko genitiboan deklinaturiko (*-kum*) adjektibo batekin adierazten da. Gentilitatearen berri emateko sorturiko adjektibo gehienek genitibo pluraleko *-um* hondarkia eraman arren, badaude, antza, genitibo singularreko *-o* marka bide dutenak, **elatunako** (Soria) lekuko (Untermann 1967: 288; cfr. Ramírez Sánchez 1999: 850).

Zeltiberiarrek, erromatar kutsuko hilarrietan idazten hasi zirenean, izena adierazteko euren ohiko era latinera egokitu zuten. Erromesak ziren denboran, hots, bi osagaitako izena zerabilten bitartean, moldaketa erraz burutu zuten eta gentilitatea jakinarazten duten genitibo pluraleko formak latinez emateko, sarri askotan, –zeltiberieraren eraginez, menturaz– *-um* hondarkia hautatu zuten *-orum*-en ordean, bestela esan, *idionimoa* + *gentilitatea -cum bukaerarekin* moldea gailendu zen (Gorrotxategi 2011b: 205).

Goi Inperioko latinezko epigrafian, *-cum* / *-qum* pluraleko genitiboa duten gentilitate adierazpenen ondoan, Zeltiberia osoan badaude *-co* akabaila duten formak. Gorrotxategik (*ibidem*, 207–208; cf. Ramírez Sánchez 1999: 854, 857) ez du uste zeltiberierazko genitibo pluralaren (balizko *-om*-en) bilakaera direnik. Hain justu, Eibarko irakaslearen irudikoz, Inperioren garaiko latinezko idazkun batzuetan (erromesen gentilitatea adierazteko) irakur daitezkeen *-co* duten formek genitibo singularreko *-o* marka zeltiberiarra daukate. Interferentzia linguistiko garbiaren lekuko lirateke:

Teniendo esto en cuenta, puede pensarse que muchas inscripciones latinas de época imperial, que presentan una forma de gentilidad en *-co*, estén atestiguanando precisamente la forma celtibérica de gen. sing. de la gentilidad y sean un claro ejemplo de interferencia lingüística, mucho más llamativa y abrupta que la que se produce en las formas de gen. pl. en *-cum*, ya que en este caso ocurre un verdadero cambio de código con empleo de una forma flexiva que resulta agramatical en latín y por tanto de naturaleza diferente al empleo de los gen. en *-um* que podían ser tolerados por la gramática latina.

Nolanahi ere, epigrafe latindarretan ageri diren *-co* duten izendapen guztiak ez dira kode aldaketaren etsenpluak, batzuetan, datibo singularreko formak diratekeelako, Burgosko «*Segio Lougesterico*» (Clunia), «*Aliono Areieco Camali filio*» (Belorado), «*Segilo Aespanco Ambata<e> filio*» (Belorado) lekuko.

Honenbestez, *-ko-* / *-co-* atzizkia duten antolakuntza unitate indigenen izenak zeltiberieraz genitibo pluralean (*-um*) agertu ohi dira eta latinez, berriz, genitibo pluralean (*-um*, *-orum*), «genitibo singularrean» (*-o* [*<* zeltib.]) nahiz datibo singularrean (*-o*) azal daitezke.

#### 5.2.4. *-ko-* atzizki hispaniar-zelta jainko izenetan

Gizakien formula onomastikoetan ez ezik, gorago esan moduan, *-ko* / *-co* daukaten adjektibo eratorriak jainko izenen artean ere ikusten dira Hispaniako sartaldeko epigrafia latindarrean (Luján 2016: 251, *passim*). Sail horretakoa litzateke, hain zuzen, CALDO VLEDICO (Gorrotxategi; Ramírez Sádaba 2013: 137).

Badira, azken adibide horretan bezala, teonimoa (substantiboa) eta epitetoa (adjektiboa) duten jainko izen gehiago sartaldeko Hispanian. Bigarren osagai horiez

kestione, Prósper-ek (2002: 30-32) dio badaudela toponimoetan nahiz apelatiboetan jatorri dutenak. Bere iritzirako, jainko izen topikoetan, izena adjektibo bihurtzen duen atzizkiak teonimoaren eta kalifikatzailearen artean leku kidetasun harremana sortzen du, teonimoa herri bateko zaindari denean kasu.

Elorzak, Albertosek eta González-ek (1980: 35) «gentilizio indigenen saileko» epitetoak aipatzen dituzte. Preseski, egile horien aburuz, CALDO VLEDICO-n dagoena izango da etsenplu bat. Ildo beretik, Luján-ek (2016: 251-253) deritzo badaudekeela sorburua familia unitate indigena batean bide duten epitetoak dauzkaten jainko izenak, «Deo Menti/uiaco» (Zamora, Hesperia, onom. 4150) / «Aren/a Me/ntou/ieq(um)» (Ávila, Hesperia onom. 1039) bikotea konparaziora. Hortaz, kalifikatzailearen aurretik –teonimo indigenaren orde– *deo* generiko erromatarra egon daiteke. Ildo horretan, Prósper-en aburuz (2002: 30-32; 323-353), badira aitzinetik teonimoaren zuzeneko adierazpenik (*deo*) ez duten jainko izenenak, hau da, datibo singularrean deklinatutako epitetoa besterik ez duten adibideak, Zamorako «Mentouiac» esaterako.

### 5.3. *Dialco*-ren balizko jatorria

Ondare zaharreko hitzetan *D*- arrunta ez bada ere, hasierako kontsonanteari bagagozkio, ez da erabat ezinezkoa *Dialco* euskal jatorrikoa izatea. Haatik, gaurdaino Pirinioez honaindi lekukotu diren euskal sustraiko gainerako jainko izenen antzik ez duenez gero, zentzuzkoena da pentsatzea (berezia bada ere) Arrasateko teonimoak sorburua euskal jatorrikoa ez den hizkuntzaren batean duela.

*Dialco* datiboak *-co* atzizki hispaniar-zelta duen adjektibo eratorri («denominal») itxura du, zehazkiro, espresuki adierazitako teonimorik (substantiborik) ez duen jainko izen baten epiteto batena. Argi ez dagoena da atzizkia hartu duen izen berezia toponimoa edo antroponimoa den, onartzen bada jainko izenen epitetoen artean badaudela leku nahiz pertsona izenak oinarritzat dituztenak.

Penintsulako iparraldeko toponimiari erreparatuz gero, euskal eremutik urruti samar, hasmentan *Dial-* segida duen *Dialcabo* tokia dago San Fiz de Monfero parrokian (Coruñan).

Hispaniako antzinateko latinezko antroponimiari bagagozkio, «*L(ucius) Persius Diallus*» jende izena lekukoturik dago Kordoban (CIL II 2239, HE 3922), eremu zeltatik ez oso urruti, beraz. Gehiago aldentuz gero, Austrian «*Diacoxi(a)e / Meitim(a)e*» *duo nomina* (dat., emak.) dokumentatua dago (EDH, HD057666).

Balizko adjektibo denominalaren oinarrian *Diallus*-en saileko antroponimoa dugula onartzeko dagoen zailtasun nagusia da ez dela ezagutzen *-ko/-co* atzizki hispaniar-zeltaren aurretik albokaria duen beste adibiderik. Azalpen bat sinkopa egon



dela pentsatzea izan daiteke (cfr. Prósper 2002: 323), bestela esan, jatorriz, izena \**Dialicus*, \**Dialecus* edo zela.

*Dialco* ez da jainko erromatarra, zelta jatorrikoa dirudi (cfr. *Dyau-*, Gorrotxategi; Ramírez Sádaba 2013: 115), baina eskaintzailearen izena (*Valerius Tiro*) ez da Zeltiberian gailentzen den *idionimoa* + *gentilitatea* moldeko deizioa, erromatarturiko herritar arruntengan (erromesengan) ohikoa den *duo nomina* erakoa baizik.

## 6. Antzinaroko geografoek eta historialariek aipaturiko lekuak

### 6.1. Azterketaren oztopoak eta iturritako erabilitako autoreak

Antzinaroko geografoek eta historialariek aipaturiko lekuen azterketa buruaz gaineko aizkolketa da. Aurreneko oztopoa da, gurean bederik, toponimo gutxi ahotan hartzen dituztela, multzotzat ikertzeko adina mostrarik ez dagoela. Gehiago dena, zenbait aldiz autore klasikoen liburuetan irakurtzen diren izenak behin bakarrik azaltzen dira.

Gainera, –eta ez da buruhauste txikiagoa– transmisioaren arazoa dago, daitekeena baita behin baino gehiagotan kopistak nahastu izatea. Ez da harritzekoa, asko aldiz toponimoak ez direlako eskuz kopiaturiko testuetako hizkuntzetakoak, eta kopistek ez zituztelako ezagutzen mintzaira arrotz horiek. Beraz, antzinateko idatzizko iturrietan ageri diren leku izen asko kanpotarrek egindako interpretazioak dirateke, alegia, kopiatzaileek ezezagun zaien hizkuntza batetik berek darabiltenera edo onargarria iruditzen zaien molde batera ekarritako edo egokituriko formen aurrean gaudeke. Kopistek analogiaz jokatu izanaren arrisku nabarmena dago.

Hala berean, ezin dira gutxietsi autoreek erabilitako iturriek dakarzkieten arriskuak, ezaguna denez, Antzinaroko geografoak eta historialariak ez zirelako egon liburuetan aipatzen dituzten paraje guztietan eta, ondorioz, horiei buruz zerbait izkiriatu behar bazuten, jakin nahi zutenaz berriemaileei galdetzea besterik ez zutelako. Aski arrunta da kolonietan bizi ziren edo egon ziren herrikideak edota bidaiariak informatzailetakoa baliatzea eta, noski, askotan haiek ez zuten ezagutzen bizi izandako edo egondako herrialdeko mintzaira. Horrez gain, idazle klasikoek ere ez zekizkiten berriemaileek emandako datuen jatorrizko hizkuntzak, eta horrek, espero izatekoa zenez, toponimoak jasotzerakoan eta idazterakoan arazoak sor diezazkieketen.

Beste eragozgarria, zerabilzketen idatzizko iturrietatik datorke, batzuetan, liburuetan irakur daitezkeen datuak beste garai batekoak izan baitaitezke, alegia, datu zaharrak. Arrisku hori are handiagoa da oraindik toponimoez ari garenean, ez dutelako zertan bat etorri transmititu ziren garaian mintzatzen zen hizkerarekin, ez dutelako zertan izan liburuak idatzi ziren garaiko formak.

Azkenik, esan gabe doa ikusi ez zituzten urrutiko tokiez ari direnean haien kokapenari buruz antzinako geografoek eta historialariek esandakoa *cum mica salis* hartu behar dela.



Ptolomeoren *Geographia*-n oinarrituz F. Berlinghierik (1482) atondutako Tabula secunda de Europa maparen zatia

Goiko guztiaren eraginez, arrunta da, esate baterako, toponimo baten aipamen bat baino gehiago dagoenean beste hainbeste aldaera irakurtzea. *Oiartzun* izenaren antzinateko forma (*Oiarso*) da adibide garbia, Irunen zegoen hiriaren izena emateko Estrabonek (III, 4. 10, 161) Οἰδασοῦνα (*Oidasouma*, ak.) idatzi zuelako, Pliniok (IV.110) *Olarso* zein *litus Olarsonis* (gen.) eta Ptolomeok Οἰασσώ (*Oiasso*).

Bizirik dirauten Deba eta Oiartzun izenak alde batera utziz gero (ikus Salaberri; Zaldúa 2019: 137-139 eta 275-277), adituak ez datoz bat erromatar garaiko geografo eta historialariek aipaturiko hirietatik Gipuzkoan zeintzuk zeuden zehazteko orduan. Estrabon, Plinio eta Ptolomeoren liburuetako *Morogi* eta Μηνόσκα / *Menosca* toponimoez ari naiz. Kontuan izan horrelako bizitegiak landa eremuan bide zeuden bilgune txikiak ziratekeela, administrazio eta merkataritza eginkizunak betetzen zituztenak (Esteban 1997: 59).

Lehenbiziko iturria Estrabon greziarraren *Geografia* da, aurreko testigantzetan oinarrituz, K.a. 29. eta K.o.18. urteen artean idatzitakoa. Ebro ibaiaren eta Pirinioen artean bizi ziren baskoiei buruz mintzo da. Herri horren lurraldea itsasoraino iristen

zen antza denez, *Tarraco*-n hasten zen galtzada amaitzen zen *Oidasouna*-raino zehatz-mehatz. Hori da aipatzen duen Gipuzkoako alderdi bakarra.

Bigarrena Plinio Zaharra italiarraren *Naturalis Historia* da, K.o. 77. urtearen aurretik izkiriaturiko hau. Autorea Hispanian egon zen, baina aitzineko lanak ere erabili zituen iturritzat berea osatzeko. Barduliarren lurraldean zeuden zenbait *oppidum* ahotan hartzen ditu. Plinioren (IV.110) testua glosatzen hartu izan da eta, adibidez, ikertzaile batzuek *Olarso* «*Vasconum saltus*»-en pareko gisa interpretatzen dute (cfr. Gorrotxategi 2018: 282).

Hirugarrenik, egiptoar jatorriko Ptolomeo greziarra dugu, K.o. II. gizaldian (170. urtea baino lehen) *Geographia* izeneko atlas atondu zuena. Barduliarren lurraldean, *Δηούα* (*De·oúá*) ibaiaz landara (II, 6, 8), *Μηνόσκα* (*Menosca*) hiria aipatzen du (II, 6, 9), *Μηλάκου* (*Meelako* gen.) ibaiaren itsasoratzen zen gunean edo handik gertu zegoena, baskoien lurraldearen ondoan.

Badira autore gehiago, K.o. I. gizaldiaren aurreneko erdian *De Chorographia* idatzi zuen Ponponio Mela hispaniarra kasu, baina aztergai dugun lurraldeaz mintzo den pasartea itxuraldatuta gorde da, oso. *Magrada* ibaiaren berri ematen du, besteak beste.

#### 6.2.1. *Menosca*

*Menosca* / *Μηνόσκα* oppiduma edo hiria Pliniok (IV, 110) eta Ptolomeok (II, 6, 9) aipatzen dute, hizkuntza banatan aipatu ere, baina biek onimo bera dakarte, eta horrek formaren fidagarritasuna areagotzen du. Biek hala biek kostaldean kokatzen dute.

Mitxelena (1956: 71) azpimarratzen du itsasaldeko toponimian oinordekorik ez duela utzi eta, bere iritziz (1969b: 401), daitekeena da *Menosca* Urumea ibaiaren edo haren ondoan zegoen bizilekua izatea. Estebanek eta Izquierdok (2005: 390), berriz, uste dute Zarautz-Getarian zegoekela, erabat berretsi gabeko hipotesia dela onartzen badute ere.

Gorrotxategiri (1995b: 217) *Menosca* izen iluna iruditzen zaio. Villarren (2005: 462) aburuz, forma osoa aintzat hartuz gero, ez ditu pareko asko; gertukoena Germaniako *Menosgada* litzateke.

Akabailari begiratzen bazaio, Plinio Zaharrak eta Ptolomeok aipaturiko *Virovesca* (Burgosko egungo *Briviesca*) autrigoiarrarekin nahiz Zaragozako *Cotrebis Belaisca*-rekin (Botorritako berunak azaldu ziren hiri zeltiberiarrarekin) erka daiteke. Irudi du adjektibo denominalak sortzeko erabilitako *-ko* atzizki zeltiberiarraren *-ska* aldera (femeninoa) egon daitekeela (cfr. Villar 2005: 462).

Oinarriaz denaz bezainbatean, Matasović-ek (2009: 266) *\*menno-* izen proto-zelta biltzen du ('young of an animal, kid'), *\*men-* 'small' aitzinindoeuroperatik letorkeena. Haatik, Villarrek (2005: 488) dio oinarrian *maina-* («pantano») latinaren aurreko elementu indoeuropar ez-zelta dagoela. Azkenik, Yartzak (2014: 1123) dio sorburua *\*(terra, uilla) Venosica* deantroponimikoa dela eta Getariako *Meaga* toponimoarekin alderatzen du.

6.2.2. *Morogi*

Ezezaguna da Pliniok (IV, 110) aipatzen duen *Morogi* oppiduma zehazkiro non zegoen, baina, pasarte osoari erreparatuz gero, ez zegokeen Oiarsoetik eta kostatik oso urruti. Esteban eta Izquierdo (2005: 390, 401, 402) historialariek diote Urumea ibaiaren arroko beheko aldean zegoela eta, zalantza askorekin, Donostia inguruan kokatzen dute, Urgull mendian edo Astigarragako Santiagomendin hain zuzen. Hirugarren aukera bat ere badarabilte, *Morogi* bizileku baten inguruan egituraturiko lurralde baten izena izatea, Urumea ibaiaren arroko beheko alderdiarena alegia.

Ahotan hartzen duten ikertzaile guztiek irakurketa bera egiten dute, baina ez da gauza ziurra zuzen transkribaturiko eta kopiaturiko forma baten aurrean ote gauden, autore bakarrak erabiltzen baitu. Oroit bedi Ptolomeok (II, 6, 51) *murbogoi* etnonimoa jasotzen duela, *turmodigi* izenez ere ezagutzen den mesetaren iparraldeko barrutian bizi zen herri zeltari zegokiona, eta, hori ikusirik, ez da arras ezinezkoa *Morogi* forma *murbogoi*-rekin lotua egotea, hots, haren itxuraldaketa izatea.

Mitxelenari (1956: 71-72) Astigarragako *Murgia* izenak *Morogi* dakarkio burura. Zentzu horretan, komeni da gogoratzea Salaberriren (2015: 297) iritzirako, Euskal Herriko zenbait tokitan errepikatzen denez gero (Astigarragan, Oñatin, Zuian...), *Murgia*-k sorburua apelatibo batean izan dezakeela.

Villarren (2005: 100, 101, 462-463, 488, 491) ustekaria da oinarria *mar-* / *mor* «agua quieta, lago, mar» elementu indoeuroparra (ez zelta) dela; akabailan, berriz, *-uk-* / *-ok-* atzizkia dakusa.

Yarzak (2014: 1121-1122) *Orio* toponimoarekin lotzen du, baina aitortzen du balizko bilakabidearen urratsak bihurriak direla. Proposatzen duen *Morogi* > \**Orogi* > \**Oroi* > *Orio* etimoak ez du egiantzik, ematen duenez *Orio* deantroponimikoa delako (ikus Salaberri; Zaldua 2019: 296), jatorria \*(*fundu*) *olianu* deizioan duena ('*Olius* izenekoaren lurra, jabetza').

*Morogi* euskal enborrekoa izan daitekeelako hipotesiari helduz, badaude, konparazio batera, *Moregi* (aurkintza, Metauten, *Muregui*, 1620; *Moregui*, 1701; NTEM, XXIII, 206, 230, 246-247), *Moregia* (mendia, Espartza, Galar zendea; *Moreguia*, 1595; Jimeno Jurío 1987: 177-178) eta *Boregi* (gailurra, Legutio, *Boreguia*, 1606, López de Guereñu 1989) toponimoak, oinarrian *more* osagaia dutenak. Irabururen (1972: 332-335) eta Mitxelenaren (1987: 475) esanetan, 'aintzira', 'zingira' dateke *more* horren adiera. Guztiaz ere, *Morogi* eta *Moregi* lotu ahal izateko, Pliniok idatzitako formaren bigarren bokal irekiaren nondik norakoa azaldu beharra dago.

*Morogi* toponimoa \**mrogi-* zeltarekin ere aldera daiteke. 'Muga' baino gehiago, \**mrogi*-ren oinorde zelten esanahia 'lurraldea' zatekeen (Gorrotxategi 1987b: 956-957), eta, alde horretatik, *marka* ('lurraldea') gotikoarekin du antza. Matasovič-ek (2009: 280) aitzinzeltaren hiztegian dio \**mrogi*-k 'lurraldea', 'alderdia' adiera duela, baita

\**morg-* ('muga') aitzinindoeuroperatik datorkeela ere. Hain zuzen, forma zeltak metatesiaren bidez azaldu ahalko lirateke (\**morgi-* > \**mrogi-*).

Ondorioz, ezin bazter daiteke gutziz *Morogi* izen espezifikotzat erabilitako apelatiboa izan daitekeelako hipotesia, hizkuntza zelta batetik hartutakoa eta moldatutakoa, menturaz, galieratik edo. Koronimoa balitz, adieraren aldetik ez legoke ezin gairiduzko oztoporik \**mrogi-*rekin lotzeko, Plinioren testuan *Vardulorum oppida* (barduliarren hiriak) sintagmaren ondoren azaltzen delako. Arazo nagusia da \**mrogi* > *Morogi* egokitzapena edo moldaketa argitu beharra dagoela, eta, damurik, horretarako lagungarria litzatekeen antzeko kasurik ez da ezagutzen euskal eremuko onomastikan.

### 6.2.3. *Meelako*

Ptolomeoren (II, 6, 9) arabera, Μηνόσκα (*Menosca*) hiria *Meelako* ibaia itsasoratzen zen alderdian zegoen (Μηλάκου ποταμοῦ εκβολαί), baskoien lurraldearen ondoan. Hori dela eta, badira Urumea ibaia zatekeela uste dutenak, baina hori bai, zalantza askorekin (*cf.* Esteban 1997: 59). Etimoaz esan daitekeen gauza bakarra da akabailan zeltiberieraz adjektibo denominalak sortzeko erabilitako *-ko-* atzizkia dukegula, betiere toponimoaren forma, egiazki, *Meelako* dela jakite ziurra balitz.

### 6.3. Zuhurtziaren garrantziaz

Salaberrik (2011) zehazten eta azpimarratzen ditu hizkuntzalariek Pirinioetako euskal toponimoez hitz egiterakoan euskal onomastikaren ikuspegitik aintzat hartu behar litzuketen puntuak. Nago iturri klasikoetan ageri diren lekukotzak jorratzean ere gogoan izan beharrekoak direla. Honakoa dio hitzez hitz Uxueko irakasleak:

Lehenik eta behin erran nahi dut zuhurtziaz ikusi eta ibili behar ditugula zenbait ikertzaile «baikorren» lanak. Hau bistakoa dela dirudi, baina ez dakit denendako hola den eta horregatik, balekibale, hona ekarri nahi nuen. [...].

Azalpenak beti eman daitezke, bikainak, onak, erdipurdikoak, txarrak edo arrunt txarrak, baina nik uste hobe dela gauzak garbi ez dakuskigunean ez dakigula erran eta planto egitea, inolako egiantzik ez duten azalpenetan tematu eta egoskortzea baino.

Alegia, datu fidagarriekin jokatzear gainera, komenigarria dela ikertzaileok aurreiritziak alde batera uztea. Orobat, Salaberrik dioen bezala, ezinbestekoa da tokian tokiko toponimia sakonki ezagutzea. Ez hori bakarrik, euskal onomastikaren funtzionamenduaren berri jakin behar delako eta euskara jakitea, edo gutxienez ezagutzea, nahitaezko baldintza delako euskal eremuko toponimia ikertzeko. Bestalde, leku izena bere osotasunean aztertu beharra dago eta hura argitzeko bide bat baino gehiago izan daitezkeela onartu. Aurreko puntuei, jorratutako alderdia ondo ezagutzearen

garrantzia erantsiko nieke, gurean, adibidez, oharraz begiratzen diona konturatuko delako erromatar garaiko geografoek eta historialariek aipatzen dituzten leku izen guztiak nahiko eremu txikiaren barruan daudekeela, kostaldean egon ere, eta ez lurralde osoan zehar banatuta.

Zaila da garai bateko edo ondorengo beste mintzairetan arrastorik utzi ez duten eta ahaiderik ez daukaten izen bakanak ondo irakurtzea eta hizkuntza batekoak edo bestekoak diren ebaztea, baina, nolanahi ere, garrantzitsua da toponimoak ezaguna den edo tasun agerikoak dituen hizkuntzaren batekin lotzen ahalegintzea. Gipuzkoari bagagozkio, Deba edo Oiartzun dira hizkuntza sail jakinetan segurantziaz sar daitezkeen antzinateko leku izen bakarrak.


Gotrotxategik (2002b: 107) dioen bezala, toki izenak hizkuntza jakin bati esleitzen ez zaizkionean eta, horren ordez, ezaugarri batzuei erreparatuz, handik eta hemendik toponimoak bilduz (arrazoinamenduaren eskutik) eraikitako mintzairerkin edo haien esparruekin lotzen direnean, eremu irristakorrean sartzen gara, are gehiago hipotesia hizkuntzaz landako argudioren batekin egiaztatzen ez bada. Gauza bat da barruti jakin bateko izenak bilduz erdietsitako corpusa, eta bestea etimologiarik gabekoak edota ilunkarak diren beste etsenplu batzuetan ikusten diren ezaugarriak dituzten (eta ez dituzten) hango eta hemengo deizioekin osaturiko sortak.

Mitxelenak (1954: 436) diosku egungo toponimoen artean badaudela antzinaerako jainkoen oinordeak diruditen zenbait ale: *Garre* / Gar; *Aherbelste* / Arboust, Arbéust; *Artahé* / Ardet; *Baeserte* / Basert.... Ildo horretan, gogora bedi teonimo batzuek sorburua erlijioan (kultuan) izan dezaketela, baina beste batzuek bertako izenetan duketela jatorria. Azterbide horretan, Erdi Aroko agirietan lekukoturiko zenbait izen eta osagai antzinateko eta gaurko formen arteko katebegi garrantzitsuak dira; onomastikaren iraunkortasunaren adierazle garbiak haiek.

Harritzekoa dena da, neurri batean behintzat, Antzinaroko *Menosca*, *Meelako* edo *Morogi*-k gaurko toponimian oinorderik edo ahaiderik ez izatea, Probintzian badirelako bizirik dirauten herri izen (*Zegama*...) eta mikrotoponimo (*Arakama*, *Arkamo*...) aski zaharrak, jatorri indoeuroparreko *-(is)am(a, o)* atzizkia dutenak (ikus 7.1. §). Hor dago latinetik heldutako deantroponimiko saila ere (ikus 7.2. §).

Bizirik dirauten antzinako izenez eta elementuez ari garelarik, gogoan izan badaudela akabailan *-s-o* segida duten zenbait euskal leku izen. Ezaguna den adibide sorta besterik ez aipatzeko, *Erauso* dago Agezan (aurkintza, *Erahusso*, 1088; Lacarra 1957: 31; ikus AV, eta Salaberri 1994: 121), Ezkabarten (aurkintza, *Erauso*, 1699; NATM, LIX, 45, 55-56, 61) zein Urnietan (baserria, *Herauso*, *Erauso*, 1402, Ayerbe 2015: 779; *Eroxo*, *Eoxo* [ahoz]). Badakusagu, bada, Gipuzkoan sabaiaurreko txistukari igurzariz ebakitzen dela. *Erauso*, deitura ezaguna bihurtu den Beasaingo *Erauskin* toponimoarekin aldera daiteke eta, biak ala biak, Antzinaroko *Herauscorritsehe* jainkoarekin lot litezke, besteak beste, aurreneko osagaiaren aldetik.

Sarritan antzinako populazioen hizkuntza ezagutzeko bide bakarretakoa tokiko toponimiarik zaharrenaren azterketa da, baina mostrek zalantzazko kokapena dutenean eta ahaide gabeak, etimo ilunekoak eta jatorri ezezagunekoak direnean lurralde bateko hizkuntza arloko iraganeko egoerari buruz ondorioak ateratzea arriskutsua da, are gehiago, Gipuzkoako kasuan bezala, erabil daitezkeen leku izenak urriak direnean eta esparru txikia (kostaldea) harrapatzen dutenean (eta ez mugape osoa). Ikus 6. irudia.



6. irudia: Antzinaroko geografoek eta historialariek aipaturiko lekuak





## 7. Bizirik dirauten antzinako toponimoak Gipuzkoan

### 7.1. Latinaren aurreko jatorri indoeuroparra duten leku izenak

Gaurdaino iraun duten antzinako toki izenen artean badira batzuk idazkirik ez dagoen garaiak argitzeko informazio arras interesgarria eskain dezaketenak; mailegu zaharretan jatorri dutenez ari naiz, neurri batean bederik, euskarara iritsi zirenean zuketan forma antzeman daitekeelako eta, gainera, hura, gutxi gorabehera, data batzuekin lot daitekeelako.

Mitxelena (1984: 282) azterketa burutzean jarraitu beharreko bidea maisuki adierazten du. Ohartarazten du bi aldaketa saili erreparatu behar zaiela:

... hay que hacer la observación, paradójica sólo a primera vista, de que un término de origen latino incorporado a la toponimia es, en principio, tanto más antiguo cuanto más cambios haya experimentado y, al contrario, pero también en principio, tanto más reciente cuanto mayores sean las modificaciones sufridas por los sonidos primitivos. [...] El nombre de origen latino será, pues, tanto más antiguo cuanto más haya participado de la evolución fonética vasca, cuyos efectos sufre a una con el léxico patrimonial. Será, por el contrario, tanto más reciente cuanto mayores señales muestre de los cambios que han dado a las lenguas romances...

Latinaren aurreko osagai indoeuroparrak euskal onomastikan utzitako arrastoa hobeki ezagutzen laguntzeko asmoz, 2016an «Sobre el elemento indoeuropeo prelatino en la toponimia de Vasconia: los nombres de lugar terminados en *-ama*» artikulua argitaratu eman nuen eta 2020an «Latinaren aurreko osagai indoeuroparra Euskal Herriko toponimian: bukaeran *-(iz)amo* duten leku izenak» izenburua duen bigarren bat; izan ere, *-(iz)am(o, a)* atzizkia da toponimian izen indoeuroparrak badaudela erakusten duen adierazle garbi bakarretarikoa.

2016ko eta 2020ko artikuluetan esan bezala, gutxi izan arren, Gipuzkoan badaude bukaeran *-(iz)am(a, o)* duten leku izenak: *Amiama* (baserria, Gaintza), *Arakama* (baserria, Zegama), *Arkamo* (mendia, Leintz Gatzaga-Barrundia), *Bedama* (2) (saroiak, Errezil, Ataun), *Beizama* (herria), *Ezama* (2) (baserriak, Errezil, Tolosa), *Untzama* (aurkintza, Ataun) / *Ultzama* (aurkintza, Altzania) eta *Zegama* (herria). Ohartu bedi bat baino gehiago Probintziaren muinean daudela, eta beste zenbait hegoaldean.

Toponimo horietako batzuek izan duten hizkuntza trataerak antzinakoa ematen du, euskararen arauen arabera bilakatu diren latinetikoko leku izenetan antzematen diren aldaketa eta ezaugarri berak erakusten dituzten onimoenak batik bat. Konparazio

batera, *Zegama* (< \**segh-*; cfr. Sasamón < *Segisamo*, Burgos) eta *Beizama* (< \**Venisama*) herri izenek txistukari hobikari indoeuroparra euskal eremuan lepokari gisa bertakotu zela (S- > Z-, -s- > -z-) egiaztatuko lukete (Zaldua 2016: 215; Salaberri; Zaldua 2019: 115). Zentzu horretan, komeni da gogoratzea erromantzeen arabera bilakatu diren toponimoetan apikaria dagoela, *Osma* (Gaubea) lekuko (Salaberri 2005: 91; 2015: 319-320, 407, 419; Zaldua 2016: 215).

Era berean, ondoko erromantzeetan antzematen diren bilakaera fonetiko batzuen aztarnarik ez dago *-(iz)am(a, o)* duten euskal esparruko leku izenen artean, bokal sinkopa kasu (*-Vsama/o* > *-Vsama/o*; cfr. Salaberri 2005: 91; 2015: 319-320, 407, 419). Hain zuzen ere, Prósper-en (2018: 124-126) arabera, bokal sinkopa goiztiarra da *-isamo* duten superlatibo zeltetan; are gehiago, zenbait ale forma sinkopatuan bakarrik azalduko lirateke. Gipuzkoan *Beizama* herri izena dugu, *-Osma* (Gaubea) zein *Burgo de Osma* toponimoek ez bezala— bokal postonikoa gorde duena.

Gauza jakina da, azkenik, erromantze batzuen arabera bilakatu diren latinetiko toponimoetan bokal arteko herskariak ahostundu egin direla eta, aitzitik, bidea euskararen barruan egin dutenetan beren horretan iraun dutela. Zegaman, adibidez, oinarrian latinaren aurreko *Aracus* izen indoeuroparra duen *Arakama* baserria dago (Zaldua 2016: 215) eta, agerikoa denez, bokal arteko herskaria ahostundu gabe atxiki du.



## 7.2. Latinetik heldutako toki izenak

Latinetiko toponimoei bagagozkie, lehenik eta behin, —Lapurdin bezala— *Getaria* (lat. *caetariam* ‘arraintoki’) herri izena dugu Gipuzkoan. Gorrotxategik (2012: 44; 2018: 286) dioen gisan, mailegu goiztiarra izan behar du, bokal arteko herskaria ahoskabea delako, hots, *-t-* > *-d-* urratsa ez delako burutu (cfr. gailegozko *cedeira*) nahiz hasierako

belarra sabaikaritu gabe dagoelako, alegia, ez delako antzematen *ke-* > *tse-* > *se-* mudantzaren arrastorik (cfr. Ubarrundiko *Girku* herri hustua, Salaberri 2015: 152, nahiz Leatxeko *Zirikuzabal*, Salaberri 1994: 572-573; < lat. *circu*), eta bi aldaketa horiek, batez ere bigarrena, gauzatuak zeudekeelako erromatarren garaia amaitu aurretik.

Salaberri eta Salaberri (2020) are argiago mintzo dira:

Herri izen anitzen oinarrian den antroponimoa latinaren mundutik, erromatar kulturatik datorrigu. Honek erran nahi du izen horien eramaileak erromatarrak zirela, edota denbora hartako erromatar kulturaren ohikoak ziren ponte izenak ibiltzen zituzten euskaldunak. Badira, hala ere, Pirinioetako antroponimia zaharrarekin esteka egiten duten zenbait pertsona izen, eta ugariak dira, bestalde, Erdi Aroan sortutako toponimoak, sus-traian latin munduko edo beste etorki batzuetako antroponimoak dituztenak. Zernahi gisaz, garbi utzi behar da jatorrizko izendapenak ardura latinetik heldu bazaizkigu ere, toponimoen bilakaera euskararen barnekoa izan dela. Hau axola handiko gaia da, erromatarren denboran euskaldunak hemen bizi ginela frogatzen duelako.

2018an Antzinaroko antroponimoak oinarritzat dituzten Euskal Herriko saroizuzen izenen banaketa, zentzua eta etorkia aztertu nuen. Ikerturiko izendapenen artean badira Gipuzkoan kokatzen diren batzuk: *Aiazio* (2) (Ataun, Aralar), *Aketain* (Oñati), *Andurio* (Ataun eta Zaldibia-Lazkao (Intsusti)), *Aria* (Azpeitia-Zestoa), *Ariztain* (Zestoa), *Aztio* (Zegama), *Txispio* (Mendaro) eta *Zaria* (Oiartzun).

Latinaren aurreko toponimoen sailean erabili ditugun bi ezaugarri erakusten dituztenak besterik ez aipatzeko, *Aketain* deantroponimikoaren bokal arteko herskaria ez da ahostundu (< \*(*fundus, tugurium, capana...*) *aquitani*; cfr. *Aquitius*, Solin; Salomies 1994: 20; Zaldua 2018: 891) eta *Zaria*-ren kasuan, bestalde, *S-* > *-Z* egokitzapena dugu (< \*(*capana*) *salina*; *Salius*, Solin; Salomies 1994: 160; Zaldua 2018: 893).


Patxi Salaberri Zaratiegi irakaslearen eskutik Gipuzkoako zenbait populazio entitatearen lekukotasunak eta etimologiak aztertzeko parada izan dut azken urteotan eta, espero izatekoa zenez, haien artean ez dira falta jatorri deantroponimikoa dutenak: *Aduna* (Salaberri; Zaldua 2019: 25), *Andoain* (*ibidem*, 54-55), *Arroabea*, *Arroagoia* (*ibidem*, 338), *Bedaio* (*ibidem*, 312), *Bedoña* (*ibidem*, 275), *Gabiria* (*ibidem*, 184), *Hemialde* (*ibidem*, 205-206), *Lazkao* (*ibidem*, 243), *Leintz* (*ibidem*, 255), *Mendaro* (*ibidem*, 264), *Mixoa* (*ibidem*, 272-273), *Oikia* (346), *Orendain* (*ibidem*, 291-292), *Oria* (*ibidem*, 239), *Orexa* (*ibidem*, 294), *Orio* (*ibidem*, 296), *Zendoia* (*ibidem*, 95), *Zerain* (*ibidem*, 333-334) eta *Zestoa* (*ibidem*, 336).

Oharmen pixka bat jartzen diona jabetuko da deizio horiek eremu zabala harrapatzen dutela Gipuzkoan, baita ere beraien artean badaudela bokal artean herskari ahoskabea duten etsenpluak (*Oikia*) nahiz *S-* > *Z-* egokitzapena gertatu dela erakusten duten adibideak (*Zendoia*, *Zerain*, *Zestoa*).

Toponimia txikiari erreparatuz gero, zehazkiro baserri izenei, itxarotekoa zen bezala, jatorri deantroponimikoa duen oikonimo mordoa dago aztergai dugun lurraldean. Bokal artean ahostundu gabeko herskariak dituztenak bakarrik aipatuko

ditut hemen: Legorretako *Garikao* (*Garicano*, GipIz.: 100; < \*(*fundus, tugurium*) *caricano*; *Caricus* (EDH HD007895, HD013301, HD015670 eta HD045891) nahiz \*(*fundus, tugurium*) *galicano*; *cf.* *Galicius*, Solin; Salomies 1994: 85), Azpeitiko *Abitain* (GipIz.: 9; < \*(*fundus, terra*) *avitani*; *Avitus*, Solin; Salomies 1994: 30; ikus Salaberri 2000: 114), Idiazabalgo *Akutain* (GipIz.: 96; < \*(*fundus, terra*) *acutani*; *cf.* *Acutius*, Solin; Salomies 1994: 6; ikus Salaberri 2000: 126–127), Olaberriko *Garitain* (GipIz.: 102; *cf.* Bergarako *Garitao*; ikus Salaberri 2000: 119) zein Zestoako *Akoa* (*Acúa*, GipIz.: 17; < \*(*terra, capana*) *accona*; *Acco*, Solin; Salomies 1994: 4).

Latinetik iritsitako toponimo horiek guztiak izandako hizkuntza trataerak, erromantzearekin batera ezina denak eta euskarak bere-berekia duenak, sortu edo sartu zirenean bertako biztanleria euskalduna zela adierazten du. Berebat, goian ikusi dugunez, latinaren aurreko hizkuntza indoeuroparren batean jatorri duten Gipuzkoako toki izenen artean ez dago sinkoparen arrastorik (*Ezama*), bokal arteko herskariak –latinetikoa deizioetan bezala– ez dira ahostundu (*Arakama*) eta txistukari hobikari indoeuroparra lepokari gisa bertakotu da (*Zegama*). Aipatu ezaugarriak dituzten leku izen horiek guztiak barruti zabal samarra hartzen dute Probintzian, eta ez, erromatar garaiko geografo eta historialariek ahotan harturikoez bezala, eremu txikia (kostaldea).



7. irudia: Erromantzearekin batera ezina den eta euskarak bere-berekia duen hizkuntza trataera erakusten duten antzinako toponimoak Gipuzkoan

## 8. Hizkuntza eremuak eta arkeologia arloko informazioa

### 8.1. Barduliarren eta baskoien arteko irudipenezko muga

Estrabonek *Oidasouna* hiria baskoien lurraldearen muga zegoela idatzi zuen. Pliniok *Olarso* baskoien basoaren ondoren eta barduliarren hirien aurretik aipatzen du, eta Ptolomeok *Oiasso* baskoien itsasaldean zela adierazi zuen. Autore horiek erabilitako leku izenetan oinarrituz (*Morogi*, *Menosca*, *Meelako*, *Deua*), Gipuzkoan bi eremu berezi dituzte zenbait autorek, bata baskoia (euskalduna), bestea barduliarra (indoeuroparra). Ildo beretik, Pliniok baskoiak eta barduliarrak *conventus* banatan (zesaraugustarrean eta kluniarrean) zeudela idatzi zuela aintzat hartuz, zenbait historialarik deritzote balizko bi gizataldeek nortasun desberdina zuketela (ikus Esteban 1997: 58).

Baskoien lurraldean hizkuntzaren aldetik ezberdinak ziren hiru barruti bereizten dira erromatarren garaian: pertsonen eta haien lurren izenetan eragin indoeuropar nabaria erakusten duen alderdia (Lizarrerria), hizkuntza iberiarra zuen eta idazkera iberiarra zerabilen Ebroren erdiko eta beheko arroko jendearekin kultur harremana zuen beste eremu bat, eta, azkenik, erdiko gunean batik bat, mintzairaren aldetik euskal sustraikoa zen hirugarren barruti bat (*cf.* Gorrotxategi 2002b: 107; Gorrotxategi; Ramírez Sádaba 2013: 117, 135). Banaketa horren arabera, Andrearriagako estela euskal enborreko hizkuntza gailentzen zen eremuan zegokeen.

Inork ez daki, ordea, barduliarren eta baskoien esparruen arteko irudipenezko muga hori non zegoen, are gutxiago aspaldikoa edota finkoa zen ala ez. Xehetasunetan sartuz gero, Gorrotxategirentzat (1984a: 60) baskoien lurraldea hazi egin zatekeen erromatar errepublikaren garaian.

Historialari gehienek iritzirako (*cf.* Esteban 1997: 59) barduliarren lurraldea Ebroren arroraino zabaltzen zen. Hain zuzen, *Menosca* eta *Morogi* izan ezik, iturri klasikoek aipatzen dituzten hango hiriak (bederatzitik zazpi) ur banalerroaz hegoaldera zeudekeen. Antzeko zerbait gertatzen da baskoien hiriekin, Oiarso alde batera utziz gero, beste hamabostak banalerroaren hegoaldean baitzeudekeen. Datu garrantzitsua da hori, Gipuzkoa eta Araba bereizten dituen ur banalerroa epigrafiaren arloko muga ere badelako, Atlantikoko isurialdean inskripzio gutxiago dagoelako, alegia.

## 8.2. Hizkuntza eremuak eta arkeologia arloko informazioa

Antzinaerako kultura edo hizkuntza eremuez dakiguna askotariko jatorria duten gaurko elementuekin (etnologia, arkeologia edo hizkuntza arlokoekin) berrestea edo osatzea metodologia emankorra izan daiteke, bakoitzak bere aldetik ezer gutxi frogatzeko gaitasuna izan arren, batera erabiliz gero guztien artean kultura eremu baten irudia finkatzen lagun dezaketelako.

Honela mintzo da Gorrotxategi (1984a: 103) arkeologia arloko datuen ekarpenaz:

Pero si en una zona determinada existe una cultura material que puede en varios aspectos individualizarse y definirse como original con respecto a otras vecinas, con las cuales comparte algunos elementos a modo de isoglosas, mientras que otros muchos le son exclusivos, y en esa zona tenemos en época posterior testimonios directos de la existencia de una lengua distinta de las vecinas, entonces se da una coincidencia entre datos arqueológicos y lingüísticos que seguramente no será debida al azar. En este caso es muy probable que nos hallemos ante un ejemplo de área cultural estable, en que tanto los datos arqueológicos como los lingüísticos estén apuntando a un mismo norte.

Gurera etorritz, Eibarko irakasleak (2018: 234) diosku arkeologiak deskribatutako ezaugarri batzuk bat datozkeela autore klasikoek emandako datuekin eta irudiarekin eta, esate baterako, baskoien eta barduliarren arteko muga, itxuraz, bat etorriko litzatekeela Pirinioetako cromlechen eremuaren sartaldeko muturreko lerroarekin. Izan ere, Peñalver-en (2004: 237; 2006: 15) iritzian, sortaldera ugari diren Pirinioetako cromlechak Leitzarango ibaiaz sartaldera ez agertzeak zerikusia izan dezake baskoien mendeko lurraldearen hedadurarekin. Hau da, Gipuzkoako ipar-sortaldean baskoien eta barduliarren arteko balizko banalerroa bat zetorkeen historiaurreko harrizko biribilen barrutiaren norainokoarekin.

Gorrotxategik (2009: 547; 2018: 281) dio Leitzarango harana gauza bat baino gehiagoren muga izan zela. Uste du Pirinioetako lepogainetan joriak diren eta Leitzaran ibaiaren eta Andorra inguruaren bitartean bakarrik aurki daitezkeen Pirinioetako cromlechen esparrua –Pirinioetako mendikatearen luzerari bakarrik erreparatzen badiogu– -os akabaila duten toponimoek harrapaturiko lurraldearekin bat datorrela. Hedaduraren aldetik antzekotasuna handia izanik ere, argitzen du ez dela ahaztu behar Pirinioetako cromlechak goi-mendietako larre eta lepoetan (500–600 metrotik gora) baizik ez direla azaltzen, eta toponimoak, aldiz, Akitania osoan nahiz Nafarroako eta Aragoiko eremu zabaletan aurkitzen direla. Gainera, amaieran -os duten leku izenek eta Pirinioetako cromlechek ez dute zertan izan aldi berekoak. Horrek ez luke, halere, muga adierazletzat duten esanahia ahulduko, prozesu luzeen barruan ulertu behar diren gertakari edo elementuez ari baikara.

Arkeologia arloko datuetan (Pirinioetako cromlechen banaketan) oinarri hartuz, Leitzaran ibaia kultura (baskoiak) nahiz hizkuntza (-os akabaila) arloko ezaugarrien

araurrena zatekeelako hipotesia erabili da, horrenbestez. Baina, begira diezaiozun astiroago Pirinioetako cromlechen auziari.

### 8.3. Pirinioetako cromlechen mugapea Euskal Herrian

Euskal Herrian, Brontze Aroaren amaieran, K.a. 700 urtearen inguruan (K.a.1.000 kal.), hildakoak errausteko ohitura oso zabaldua zegoen, Pirinioez iparretik iritsitako eraginengatik. Erritua, harriekin finkaturiko biribil baten erdian erraustetaren hondarrak ezartzea zen (ikatz, hezur zatiak). Beste batzuetan, harrizko estela baten oinetan ikatz sorta bat eta errausturiko hezurren zatiak jartzen ziren, zeramikazko ontzi batzuekin batera, Beaskinarten (Aralarren) bezala (ikus Mujika 2018: 108; Mujika *et al.* 2019: 160-154).

Pirinioetako cromlechek aldi oro ez dute tamaina eta egitura bera. Askok 3 eta 7 m arteko diametroa dute eta, batzuetan, tumulu bat izan dezakete, lurrezkoa edo harrizkoa («cromlech tumularrak» esaten zaie horrelakoei). Barandiaranen aburuz, egitura horiek, dolmenen osagai esanguratsuenen eboluzioa dirateke (ganbera, tumulua, peristalitoa), erritu berri batera egokituak (*ibidem*).

Peñalver-ek (2004: 227; 2006: 14) diosku datazio gehienak Aro aldaketaren aurreko lehen milurtekoari dagozkiola eta gehienara jota 840 bat urteko aldea dagoela zaharrenaren eta berrienaren artean; kalibrazioz lortutako datetan tarte hori milurteko baten ingurura zabal daitekeela zehazten du gero.

Hara Euskal Herrian erdietsitako Pirinioetako cromlechen zenbait datazio, data kalibratuetan betiere (K.a.): *Meatse 8*, Baztan-Itsasu ( $1185 \pm 81$ ); *Oianleku baratze txikia*, Oiartzun (1127-891; 879-848); *Apatesaro 1*, Lekunberri, NB ( $971 \pm 107$ ); *Ondarre I*, Aralar (1120-970; 960-930); *Millagate 5*, Larraine ( $898 \pm 59$ ); *Mendiluze*, Entzia ( $872 \pm 47$ ); *Oianleku baratze handia*, Oiartzun (809-748; 641-588); *Beaskin II*, Aralar (770-415); *Mulisko gaña*, Hernani-Urnieta ( $748 \pm 137$ ); *Errozate 3*, Lekunberri, NB ( $452 \pm 184$ ); *Pittarre*, Biriatu ( $285 \pm 98$ ); *Millagate 4*, Larraine ( $189 \pm 112$ ); ikus Mujika *et al.* (2016a: 196), Mujika *et al.* (2016b: 69), Mujika (2018: 106-107) eta Mujika *et al.* (2019: 177).

Peñalver-en (2004: 230) hitzetan, Pirinioetako cromlechak dauden lurraldeak 250 kilometro lituzke sortaldetik sartaldera eta 5 eta 40 kilometro bitarteko zabalera (*Mendiluze* aintzat hartu gabe). 2004an argitaratu zuen tesian 413 (+14) multzo eta guztira 1.104 Pirinioetako cromlech (+22) bildu zituen. Azpimarratzen du zenbat eta sortalderago orduan eta garaia azaltzen direla.

Azken urteotan egitura eta multzo berriak ediren dira. Egun, –Karrantza eta Gorbeiko balizko aleak alde batera utziz gero– Pirinioetako cromlechen barrutiaren iparraldeko mugaren lerroa *Baigura* (Ortzaize), *Urtsua* (Kanbo), *Jaizkibel* (Hondarribia), *Mendizorrotz* (Donostia), *Almitxuri?* (Gaztelu), *Ondarre* (Aralar), *Mendiluze* (Entzia), *Iraskardi* (Andia) eta *Induriagako* (Zarikieta, Agoitz) egiturak lotuz marraztu behar da.





*Beaskinarteko cromlecha (Aralar)*

#### 8.4. Pirinioetako cromlechen mugapea eta euskararen eremua

Hegoaldetik Pirinioetako cromlechen esparrua Ribagorzaraino heltzen da, han dago balizko muga (*cf.* Peñalver 2004: 230). Inguru hartako multzo narioenatariko bat Beranuy eta Areny de Noguera [gazt. Arén] artean kokatzen den *Sis* mendikatean dago (Montes; Cuchi; Domingo 2003: 317-323; Luis Millán a.a.). Gogora bedi Huescako alderdi hartan, asko ez izanagatik, badirela euskal jatorriko toponimoak. Esaterako, aipatu Pirinioetako cromlech sortatik nahiko gertu (5-6 kilometrora), mendilerroaren oinean, Calvera udalerrian zehazkiro, *Santa María de Obarra* monasterioa dago. Hagiotoponimo horren bigarren osagaia euskal sustraikoa da eta IX. zein XII. gizaldian lekukotzen da: *Ubarra*, *Ouarra*, (*H*)*uarra* (ikus Irigoien 1986: 229 eta Salaberri 2011: 1043). Handik ez oso urruti (*Beranuy* udalerrian) bada *Biascas de Obarra* kontzejua ere.

Ur banalerroaren beste aldean, Okzitania eskualdean (Garona Garaia departamentuan) euskal enborreko inskripzio ugari agertu diren *Banhèras de Luishon* inguruan ere badira Pirinioetako cromlechak. Konparaziora, Guelh-go (Oueil) eta Larbost-eko (Larboust) haranek bat egiten duten gunean, *Mail de Soupène* izeneko mendian, bata bestetik nahiko gertu, *Mail de Soupène / Castera* (Coutil 1923: 352-356; L. Millan a.a.) eta *Peyrelade / Sarrat de Cousseillot / Hourtina* (Coutil 1923: 352-356; L. Millan a.a.) Pirinioetako cromlechak daude. Haietatik hurbil (1-2 km-tako erradioan), mendiaren alde bietan, euskal jatorkiko antzinateko hainbat antroponimo daude lekukotuta, HARBELEXSIS (Benca) zein CISSONBONNIS (gen., Sent Avantin [Saint-Aventin]), HANACONIS (Castilhon de Larbost) eta VLOHOXIS (Garin), adibidez.

Gipuzkoako Pirinioetako cromlechek harrapaturiko barrutian oinarri hartuta kultura edo hizkuntza arloko ondorioren bat ateratzen hasi aurretik, komeni da gogoratzea Leitzaran ibaia ez dela inon itsasoratzen, Andoainen Oriarekin bat egiten baitu, hau da, berez, Pirinioetako cromlechen esparruaren sartaldeko araurrena Oria ibaia dela. Aipatu bezala, mugapearen ipar-sartaldeko muturra Donostiako (Igeldoko) *Mendizorrotz* Pirinioetako cromlechak finkatzen du. Orobat, kontuan hartu beharra dago 2012az geroztik, jakin, badakigula Aralarren badirela Pirinioetako cromlechak. Horrek esan nahi du denbora joanetan Leitzaranen zegoen muga Agauntza-Oria ibaira zabaldu behar dela. Gipuzkoako eremu baskoiaren (eta euskaldunaren) hedadura Pirinioetako cromlechek hartzen duten azalerarekin bat baletor, eta kultura, hizkuntza zein arkeologia arloko datuak elkarrekin lotuta egon daitezkeela onets baledi, orduan, euskal enborreko hizkuntza, gutxienez, Probintziaren erdian hitz egiten zela onartzea besterik ez legoke.

Pirinioetako cromlechak dauden barrutia ez da Gipuzkoa aldean (Aralarren) bakarrik zabaldu, Induriagan (Agoitzen) edirendakoek Brontze eta Burdin Aroetako egitura biribilek Nafarroan betetzen duten lurraldea handitu egin baitute. Mujikak (2018: 108) azpimarratzen du aipatu bi aurkikuntza horiek harkaitz bigunak (kareharriak, hareharri eozenoak...) egoteagatik egiturak gaizki kontserbatzen diren lekuetan, aztarnak antzematea zaila den tokietan, egin direnez gero, ez litzatekeela harritzekoa etorkizunean Pirinioetako cromlechen mugapea gehiago handitzea.

Aski onartua dago Aro aldaketaren garaian sartaldeko eta erdialdeko Pirinioen zenbait eremutan (Aran eta Salat ibarretaraino) euskararen aldaera zaharren bat mintzatzen zela. Kultura berrikuntzek sartaldeko eta erdiko-sartaldeko Pirinioetan izan duten eraginaren artean dagoen aldeaz diharduelarik, Gorrotxategik (2002a: 75) nabarmentzen du bi lurraldeen arteko ezberdintasuna Brontze Arorako antzematen dela, Pirinioetako cromlechak erdiko-sartaldeko Pirinioetan baizik ez baitira azaltzen.

Ematen du erdialdeko Pirinioen hegoaldeko alderdian Pirinioetako cromlechak dauden eta euskararen lekukotzak ageri diren eremuen mugak bat datozela, Ribagorza aldean bat etorri ere. Hala berean, epigrafiar arloan euskal enborreko epigrafe mordoak azaldu den Garona Garaian (Banhèras de Luishon...) badaude Pirinioetako cromlechak. Arreta pixka bat opa diona ohartuko da Pirinioetako cromlechen barrutiaren sartaldeko ertzean ere, euskal ondareko toponimoenak ez ezik, badirela antzinateko euskal sustraiko antroponimoen lekukotasunak; Mendiluzeko (Entziako) Pirinioetako cromlechetik gertu (3-4 km-tara), Durruman idorotako LUTBELSCOTTIO-z zein LUNTBELSAR-ez ari naiz. Esan gabe doa Oiazuneren ere, Andrearriagako estela zegoen inguruan (1-3 km-tara), Pirinioetako cromlech ugari dagoela (*Algorrieta, Egieder, Guardiako lepoa, Urkullu txiki egia...*).



## 9. Ondorio zenbait

### 9.1. Inskripzioetan lekukoturiko hizkuntzen eta eskaintzaileek zerabiltzatenen arrazoia

Epigrafe «berria» idoro den arren eta ezagutzen zen beste baten irakurketa behin betiko argitu bada ere, funtsean gauzak ez dira asko aldatu Mitxelenak 1956an «Gipúzcoa en época romana» argitara eman zuenetik, informazio bigarrenkaria, urria eta zatikakoa besterik ez baitago. Ondare zaharreko lexikoarekin lot daitezkeen lehen mostren eta idatzizko estreinako pasarteetan artean hamabost bat gizaldiko tartea dago. Antzinaroko euskararen testurik ez dagoenez gero, hizkuntza, geografiaren eta historiaren aldetik azaltzen ahalegintzeko zein linguistikoki deskribatzen hasteko, ezagutzen diren zeharkako datuez hausnartzea besterik ez dago.

Mitxelenak (1954: 414) oroitarazten duen bezala, izen bat osagaietan zatitzea, edota banaezina den elementu bakar bat balitz bezala aztertzea, analisiak hondakinik uzten ez duenean bakarrik eman daiteke ontzat, zatiketaren emaitza den elementu bakoitza beste izen batean gutxienez behin agertzen den bigarren batekin identifika daitekeenean baizik ez. Identifikazioa onargarria izan dadin beharrezkoa da formaren aldetik bi osagaiak erabat bat etortzea, edota aldea txikia izatea eta, ahal delarik, beste adibide batzuei esker ezaguna den aldaketa (txandakatze) orokor baten bidez azaldu ahal izatea. Analiaren eta konparazioaren ondoren erdietsitako puskak zenbat eta handiagoak izan identifikazioaren ziurtasuna hainbat eta pisuzkoagoa izango da.

Izen bat akitaniartzat onartzeko edo sailkatzeko bi irizpide erabili behar direla ohartarazten du Gorrotxategik (1984a: 358): etimologiaren aldetik pareko akitaniarrak egotea eta akitanieraren edo euskara zaharreko fonemen banaketa kanonikoarekin bat etortzea, alegia ondoko hizkuntzekin bateragarria ez izatea (hasperena...). Aurreragoko beste lan batean (2018: 270), Eibarko irakasleak azpimarratzen du Pirinioen hegoaldeko pertsona eta jaingo izen batzuek dituzten osagai eta atzizkiak nahiz guztiek erakusten dituzten ezaugarri fonetikoak akitaniar corpuseko izenetan antzematen direnen parekoak direla eta, besteak beste, *-bel*, *-bels-*, *-hori*, *illun-*, *narhun-* eta *umme-* (*cf.* akit. *ombe-*) osagai onomastikoak eta *-har*, *-so*, *-se?* atzizkiak jartzen ditu etsenplutako.

Hala berean, Mitxelenak (1964: 135) latinaurrekotzat hartu nahi diren maileguez bete beharreko baldintzak ezarri zituen: deribazio fonetiko eta semantiko egokia; maileguaren indoeuropartasuna segurua izatea; erkaketa hitzen artekoa izatea (eta ez hitz eta erroen edo erro soilen artekoa); indoeuropar jatorriko hitzak izateaz landa, euskararekin kontaktuan egon den dialekto indoeuroparren batetik ekarriak izatea; euskarara latinaren eta erromantzearen bidez iritsitakoak ez izatea.

Goiko irizpide eta baldintzak azterbidetzat harturik, euskal enborreko BELTESONIS antroponimoarentzat \**Bel(z)-te-so-n-is* nahiz \**Belte-so-n-is* (\**Beltz-so-n-is*) dirateke egiantz handieneko analisiak, eta (segur aski) jatorri indoeuroparra duten *Dialco* teonimoarentzat zein *Menosca* eta *Morogi* toponimoentzat, berriz, \**Dial-(i)co*, *Meno-sca* eta \**morogi*.

Jende eta jainko izenak adierazten dituzten «onimoei» ez ezik, garrantzitsua da inskripzioen ingurumariari erreparatzea, formula onomastikoei eta kontsakrazio zein eskaintza moldeei batez ere. Andrearriagako estelan, esaterako, ikusirik patronimioa bertako izena eta idionimioa latinetikoa direla, pentsa daiteke *Valerius* edo *Valeria Belteso* erromesa zela, ez erromatar hiritarra, idazkunaren onomastika moldea erromatarra izanagatik, bertako izena zerabilen bertako familia edo talde batekoa.

Arrasateko inskripzioaren kasuan, ez dago antroponimo zeltiberiarretan ohikoa den izendapen moldearen zantzurik, ez delako adierazten zeltiberiarrengan garrantzitsua zen familiaz gaindiko antolakuntza unitatearen izena. Gauza bera gertatzen da Arabako eta Lizarraldeko zelta enborreko pertsona izenetan; zeltiberiar onomastikaren ezaugarri hori falta da. Arrasateko aldareko eskaintzailea, Oiartzunen bezala, erromatarturiko gizasemea dateke, erromesen izenak ezagutarazten dituen *duo nomina* daukana, eta ez zeltiberiarren moldeko *idionimioa* + *gentilitatea* segida onomastikoa.

Oiartzungo kasuan euskal etorkiko mintzaira zekien norbaitek eginarazi zukeen estela, baina Arrasatekoan, ordea, ez dago argi aldarea eskaini zuenaren sustraia hizkuntzaren aldetik, zeltiberiarra zela esateko argudio sendorik ez baitago. Besterik da zelta enborreko jainko bati zergatik egiten dion gorazarre jakitea. Azalbide bat izan daiteke indoeuropar eremuarekin harreman estua izandako alderdia duen lurralde batetik (Arabatik) gertu egotea.

## 9.2. Onomastika arloko lekukotasunen kronologia

Lan honetan baliaturiko onomastika arloko hainbat mostraren kronologia zehaztea zaila da, gaurdaino iraun duten deantroponimikoena batez ere, ez direlako erromatarren garaiko inskripzioetan eta liburuetan azaltzen. Izan ere, geografo eta historialariek aipatzen dituzten leku izenei, oztopoak oztopo (ikus 6.1.§), data bat jar dakieke eta, orobat, zailtasunak zailtasun, estela zein aldareetan grabaturiko izendapenen adina muga daiteke, gutxi gorabehera bederik.

Zoritxarrez, ez dago euskal eremuan eta ondoko lurraldeetan ediren diren Antzinaroko idazkun guztien denbora erreferentziarik, baina, zorionez, Pirinioez hegoko alderdian ez dira gutxi, letrari, molde onomastikoari, apaingarriei nahiz arkeologia testuinguruari esker datatu ahal izan diren inskripzioak, ez C14arekin lortzen den xehetasunarekin, baina bai gizaldi batzuekin lotzeko behar bezainbateko zehaztasunarekin. Hori horrela delarik, puntu honetan epigrafiako eta iturri klasikoetako

lekukotasunei bakarrik lotuko natzaie, aurrenekoei nagusiki, ahal den heinean, azterkizun ditugun auzietan kronologia arloko ondorioak erdiesten saiatzeko.

Honako taulan bateratu ditut erromatar garaiko Gipuzkoako antroponimia eta toponimia saileko idatzizko mostren ustezko datak; ikus 3.1.1., 5.1. eta 6.1.§.

Izena	Saila	Gizaldia	Kokapena
BELTESONIS	Antr.	II.-I. K.a. - I. K.o.	Oiartzun
Oiarso (Οἰδασοῦνα)	Top.	I. K.a. - I. K.o.	Oiartzun
<i>Menosca</i>	Top.	I. K.o.	Kostaldea
<i>Morogi</i>	Top.	I. K.o.	Kostaldea
<i>Deua (Ἀηούα)</i>	Top.	II. K.o.	Kostaldea
<i>Meelako? (Μηλάκου)</i>	Top.	II. K.o.	Kostaldea
DIALCO	Teo.	III. K.o.	Arrasate

3. taula: Erromatar garaiko Gipuzkoako antroponimia eta toponimia saileko idatzizko mostren ustezko datak

